



# IRAKASLEEN EUSKALDUNTZEA

61:37

## HE1erako curriculumua (1000, 2000 eta 3000 atalak)



**erria**

katalogoa

Eibarko Hezkuntza Esparrua

943.20.27.48

20600 EIBAR



# IRAKASLEEN EUSKALDUNTZEA

## HE1erako CURRICULUMA

(1.000, 2.000 eta 3.000 atalak)



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 1996

Argitaraldia: 1.a, 1996ko abendua

Ale kopurua: 2.000

© Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioa  
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Duque de Wellington, 2 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Fotokonposaketa: Didot, S.A.  
Nervi3n, 3-6.º - 48001 Bilbao

Inprimaketa: Boan, S.A.  
Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao

ISBN: 84-457-1110-5

L.G.: BI-2212-96

## AURKEZPENA

IRALE programak eskaintzen dituen ikasketak, bost urratsetan antolatuak daude oinarriz. Urrats horiei **atalak** deitzen zaie. Horrela, 1.000, 2.000, 3.000, 4.000 eta 5.000 atalek osatzen dute ikasketariak jorratu beharreko ikaskuntza. Lehen hiru atalak HE1erako ibilbidea dira; hurrengo bi atalek, berriz, ikasketaria HE2rako prestatzea dute helburu.

Liburuxka honek lehen ibilbide horren curriculumak biltzen du, hots, 1.000, 2.000 eta 3.000 atalena. Material hau prestatzeak gogoeta-saio luzeak eta sistematizazio-lan handia eskatu du, bai IRALEko irakasleentzat bai zeregin honetan lagundu duten guztientzat ere.

Eraitza ez da, halere, ikasketa-plan bukatu eta itxia. Oraindik zer konpondu, zer orraztu eta zer hobetu izango du. Baina aurrerapauso nabarmena dakar ikastegi hauen pedagogi antolamenduan. Ez da ahantzi behar, curriculum hau, IRALEk dituen lau ikastegietan ezezik, beste hainbat eta hainbat euskaltegitan ere manejatuta beharko dutela. Izan ere, IRALE programaren ikastaroak, irakastorduz kanpokoak batez ere, ia edozein euskaltegi publiko edo pribatutan ematen baitira.

Horregatik helduen euskalduntze-prozesuan, eta bereziki irakasleen euskalduntzean, erreferentzia garrantzizkoak izango dira curriculum hauek: bai orain eskuetan duzun hau eta baita, aurrerago, goiko bi ataletarako argitaratuko dena ere.

**Edurne Gumuzio Añibarro**  
Pedagogi Berrikuntzarako zuzendaria





## AURKIBIDEA

AURKEZPENA .....	5
I. 47/1993 DEKRETUA: HELBURU OROKORRAK .....	9
II. EBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK .....	11
III. ABIAPUNTUA ETA PROZEDURA .....	15
IV. BEHAR KOMUNIKATIBOEN AZTERKETA .....	17
V. PORTAERAZKO HELBURU XEHEAK .....	23
VI. EDUKIEN AUKERAKETA ETA SEKUENTZIAZIOA .....	25
VI.1. 1.000 Atala .....	29
VI.1.1. Hizkuntz egiturak .....	29
VI.1.2. Nozioak .....	35
VI.1.3. Bukaerako gaitasuna .....	42
VI.2. 2.000 Atala .....	44
VI.2.1. Hizkuntz egiturak .....	44
VI.2.2. Nozioak .....	52
VI.2.3. Bukaerako gaitasuna .....	62
VI.3. 3.000 Atala .....	64
VI.3.1. Hizkuntz egiturak .....	64
VI.3.2. Nozioak .....	70
VI.3.3. Bukaerako gaitasuna: HE1eko Helburu Xeheak .....	83
VII. ORIENTABIDE METODOLOGIKOAK .....	87
ERASKINAK .....	103
1. eraskina: lexikoa .....	105
— Oinarrizko lexikoa .....	105
— Gaikako hitz zerrendak .....	105
2. eraskina: hiztun arruntaren profila .....	127
3. eraskina: komunikazio eta informazio funtzioak .....	143



## I. HELBURU OROKORRAK

### **47/1993 DEKRETUA, martxoaren 9koa, irakaspostuetarako hizkuntz eskakizunak eta derrigortasun egunak zehazteko irizpideak finkatzen dituen (EHAA - 1993ko apirilak 2)**

#### I. ATALBURUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. *atala.* Dekretu hau Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpeko ikas-tetxe publikoetako Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntza/OHOko eta Irakaskuntza Ertainetako irakaspostuei ezartzeko da.

#### II. ATALBURUA. HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK

2. *atala.* Lanpostua lortzeko eta bertako lana betetzeko beharrezko diren euskararen ezagutza mailek finkatutakoa da irakaspostuetako hizkuntz eskakizuna. Hizkuntz eskakizuna finkatzeko, izaera orokorreko hizkuntz trebetasunak sartuko dira (ahozko eta idatzizkoaren ulermena edo adierazpena), baita 4. eta 5. ataletan adierazitako helburuak beteko direla bermatzeko izan eta zuzenean irakaskuntzarekin lotuta daudenak ere.
3. *atala.* Irakaspostuei ezarriko zaizkien hizkuntz eskakizunak bi dira: 1. Hizkuntz Eskakizuna eta 2. Hizkuntz Eskakizuna. 1. Hizkuntz eskakizuna ez euskarazko ez euskaraz irakaskuntzak ematen ez dituzten irakasleek betetako irakaspostuei ezarriko zaie, baina euskara zerbitzu hizkuntza legez erabiltzeko beharrezkoa den hizkuntz gaitasuna bermatuko da. 2. Hizkuntz eskakizuna euskarazko edo euskaraz irakaskuntzak ematen dituzten irakasleek betetako lanpostuei ezarriko zaie, eta euskara zerbitzu-hizkuntza eta irakaskuntza-hizkuntza legez erabiltzeko beharrezkoa den hizkuntz gaitasuna bermatuko da.
4. *atala.* HE1eko eskakizunarekin, besteak beste, dena delako irakaslea honako honetarako izango da gai:
  - ikasleekin bakarka edo taldean irakaskuntza iharduerarekin zerikusia duten gaiez euskaraz hitz egiteko: besteak beste, jokabide, motibazio, ikasketetan lortutako emaitza, beste ikasle batzuekin eta irakasleekin izandako arazo eta ikasketak egiteko familiako giroaz aritzeko;

- ikasleekin bakarka edo taldean beren adineko arazoekin eta interes bereziekin zerikusia duten gaiez euskaraz hitz egiteko: familiako arazo, adiskidetasun, nortasun, zein bere heldutasunerako bidean izan deza-keten beste edozein arazoz aritzeko;
- gurasoekin, irakasleekin eta Hezkuntza Administrazioari langileekin, hizkuntza maila egokian nahiz eta tekniko ez izan, honako gaiez euskaraz hitz egiteko: eskolaren funtzionamendu, helburu, pedagogiako jokabide, ikasturteko egitarau, ikastaroari eta zehazki ikasleari buruzko iritzi, eskolako orduko eta orduz kanpoko iharduera, ebaluaketarako irizpide, lortutako emaitza eta, orokorrean, pedagogia lanari eta ikastetxearen funtzionamenduari buruzko gaiez aritzeko.

5. *atala*. HE2ko eskakizunarekin, besteak beste, dena delako irakaslea honako honetarako izango da gai:

- HE1erako zehaztutakoa euskaraz egiteko;
- bere ikasgaiko edo alorreko irakaskuntzak ikasleei bai bakarka, zein taldeka, euskaraz emateko, dela azalpen magistrala eginez, zein gelan eztabaida sortuaz eta jasotako galderei erantzunez;
- eskolak prestatzeko edo ikasleek irakurtzeko probetxugarriak izan daitezkeen euskarazko argitalpenak, programa ofizialak, testu liburuak, kontsulta liburuak, artikulak eta abar ulertzeko;
- irakasgaiarekin zerikusia izanik eskolak prestatzeko probetxugarria izan daitezkeen ahozko materiala euskaraz ulertzeko (besteak beste, pelikulak, bideoak, zintak, irratiko programak);
- programa orokorrak eta bakoitzaren alorreko programazioa euskaraz idazteko;
- eskolak emateko fitxak, apunteak, materialak, ariketak, ebaluazioko ariketak eta abar euskaraz idazteko;
- ariketen zuzenketa, txostenen idazketa eta ikasleen lana baliostatzeko beste edozein iharduera euskaraz egiteko.

#### IV. ATALBURUA. HIZKUNTZ ESKAKIZUNEN EGIAZTAPENA

11. *atala*. Hizkuntza eskakizun bakoitza egiaztatzeko, Hezkuntza Administrazioak finkatuko ditu kasu bakoitzean euskararen ezagutza maila ebaluatzeko saioen edukina eta modua (...).

## II. EBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK

### **1994KO URTARRILAREN 10EKO AGINDUA, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Irakaslegoaren Euskalduntze-Alfabetatzerako IRALE Programaren ebaluazio-bidea arautu eta irakasleen hizkuntz eskakizunak egiaztatze probak edukinez eta formaz zehazten dituen (EHAA – 1994ko urtarrilak 26)**

#### I. HE1 EGIAZTATZEKO EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Hizkuntz eskakizunak zedarritzeko irizpideak finkatzen dituen 47/1993 Dekretuak ezartzen dituen hizkuntz gaitasunen arabera HE1 egiaztatu ahal izateko honako ebaluazio-irizpide hauek erabiliko dira:

#### A) Gaitasuna frogatu behar deneko hizkuntz egoerei dagokienez

Irakasle-ikasketariak HE1 egiaztatuko badu, eskola-inguruan, hau da, eskolan ohiko diren egoeretan hizkuntz gaitasuna baduela erakutsi beharko du, konkretuki ikasleekiko elkarrizketan (banaka nahiz taldean), gurasoekin, gainerako irakasleekin eta Hezkuntza Administrazioako pertsonalarekin dituen harremanetan.

#### B) Komunikazio-gaiei dagokienez

##### B.1. Ikasleekiko elkarrizketan

- Irakaslanarekin zerikusirik duten gaietan: ikasleen jokaera, motibazioa, eskolalorpena, beste ikasle eta irakasleekin izan ditzaketen bestelako arazoak eta etxean duten ikas-giroa, besteak beste.
- Ikasleek, zein bere adinean, dituzten arazo eta interesekin loturik dauden gaietan: familiako, lagunekiko nahiz nortasun-arazoetan; era berean heltze-prozesuan izan dezaketen beste edozein alderdi esanguratsu.

##### B.2. Beste irakasleekin, ikasleen gurasoekin eta Hezkuntza Administrazioako pertsonalarekin dituen harremanetan

- Eskolarekin loturik dauden gaietan: pedagogiazko helburu eta orientabideak, ikasturtearen programazioa, ikasturteari buruzko iritzia orohar eta ikasle ba-

koitzari buruzkoa, eskola barneko nahiz eskolaz kanpoko ekintzak, neurketa-irizpideak, lortutako emaitzak eta, orohar, pedagogia-lanarekin eta ikastegiaren funtzionamenduarekin loturik dauden gaietan.

C) Hizkuntz trebetasunei dagokienez

*1. Kanal anitzetik igorritako ahozko testuetako informazio nagusia jasotzea.*

Irizpide honen bidez ahozko mezuetan dauden oinarrizko ideiak ulertu diren ala ez egiaztatu nahi da. Komeni da, horretarako, eskola-inguruan ohikoak diren hizkuntz egoeretan erabili diren testuak erabiltzea.

*2. Eskola-inguruan ohikoak izanik eta orohar irakaslanarekin loturik dauden gaien buruzko testu idatzietako informazio nagusia beste inoren laguntzarik gabe antzematea.*

Irizpide honekin ikasketariak zailtasun-maila eta luzera desberdinetako testu idatzietatik, informazioa jasotzeko duen gaitasuna neurtu nahi da, beti ere luze-zabalean erabilgarri diren testuetan: aktak, zirkularrak jakinarazpenak, eskutitzak, buletinak, ikasmaterialak...

*3. Testu idatzietan nahiz ahozkoetan daudekeen hizkuntz elementu ezezagunen eta informazio inplizituen esanahia deduzitzea.*

Irizpide hau aurreko beste biekin loturik dago. Ikasketariak testu idatziak eta ahozkoak zenbateraino ulertzeko gai den neurtu nahi da. Arreta berezia hartuko da ikasketaria testuan ezagutzen ez dituen hizkuntz elementuen esanahia bereganatu eta egiaztatzeko gai den ala ez neurtzerakoan, horretarako testuingurua, bere kultur jakituria, prozedura analitiko eta etimologikoak edo bestelako baliabideak erabiliz, adibidez benetan ulertu den egiaztatzeko testuan atzera egitea edo kontsulta-materiala erabiltzea. Era berean testuinguruagatik elementu inplizituak ateratzeko edo testuaren hitzez hitzeko esanahiaz haratago ulertzeko duen gaitasuna (igorleak izan dezakeen zeharbidezko intentzioa, ironia...).

*4. Aldez aurretik zehaztu gabeko elkarrizketa informaletan parte hartu ahal izatea eta eskola-inguruaz edo irakaslanari buruzko gaien inguruko aurrez prestaturiko eztabaidetan esku hartu ahal izatea.*

Irizpide honen bidez ikasketariak dituen ideiak argiro antolatu eta adierazteko eta hartzaileak ulertzen duen eta egoera eta helburuari egokia zaion diskurtsoa produzitzeko duen gaitasuna neurtu nahi da. Era berean, ikasketarien ahozko adierazpena zuzentasunaren aldetik neurtuko da, eta mintza-jardunean etenik gerta ez dadin lagunduko zaio: galderak eginez, argudioak emanez, txandaka mintzatuz...

*5. Era askotako hartzaileei (lankide, guraso, ikasleak) egokitutako testu sinpleak idazteko gai izatea, komunikazio-intentzio desberdinak dituztelarik, zalantzak argitzeko kontsulta-materialak erabiliz.*

Irizpide honekin bilatzen da ikasketariak bere irakaslanean dituen hizkuntz egoera arruntei egokitzen zaizkien testu sinpleak idazteko gauza den ala ez egiaztatzea. Erregistro egokia aukeratu beharko du, horretarako, zuzentasunez, ortografia-arauak errespetatuz eta testuari barne-lotura eta koherentzia emanez. Ikasketariak, halaber, laguntzarako materialak erabiltzen jakin beharko dute lexiko eta ortografiako zalantzak argitu ahal izateko.

*6. Eskuratutako hizkuntz ezagupenak erabiltzeko gai izatea, ikas-prozesuan autonomia indartzeko antozuzenketa-prozedura zenbaitez baliatuz.*

Irizpide honen bitartez neurtu nahi dena zera da: ikasketariak berak edo bere lankideek egin ditzaketen akatsak, ahoz nahiz idatziz, indentifikatzeko, eta, zenbaitetan, zuzentzeko gai den ala ez.

## **IRALE Birmoldatzeko Batzorde Akademikoak (IBIBA) Hezkuntza Sailari HE1erako hurrengo hizkuntz kalitate maila eta ordu kopurua proposatu zizkion:**

### **ENTZUTEZKO ULERMENA**

Ikasketaria gai da bere arloan, horri dagozkion ingurune eta gaietan eta horietan hartu behar dituen rol-paperetan, esaten zaiona ulertzeko edozein komunikazio-eraz baliaturik, inoiz xehetasun batzuk galdu arren. Gehienetan gai da hitz ezezagunen esanahia testuinguruaz baliatuz deduzitzeko eta informazio inplizituak antzemateko.

### **AHOZKO ADIERAZPENA**

Ikasketariak parte hartzen duen ohizko komunikazio-egoeretan gertaera konkretuak eta esperientzia pertsonalak komunikatzen ditu, bere iritzia eta jarrera pertsonala adieraz ditzake ohizko gaietan, baina zailtasunak ditu eztabaidan aritzeko, nahiz nolabaiteko azalpen eta arrazonamendu ez oso luzeak egin ahal izan.

Ezagutzen dituen lexiko-unitate eta hizkuntz egituretara egokitzen du ekoizten duen testuaren edukina, honek dakartzan aberastasunaren aldetiko mugak eta zenbait gramatika-loturaren gehiegizko erabilera agerian utziz. Inoiz hutsegite morfosintaktikoek komunikazio-etenak eta gaitzulertzeak sorraraz ditzakete, baina bere burua zuzentzeko adina ezagutzen du gramatika. Erdararen interferentziak soma daitezke.

Eskola-gaiei buruzko lexiko aski garatua du, batzuetan asmatu ez arren; bestelako gaietan lexiko orokorraren jabe da, batzuetan hitz desegokiak, erdaratik hartutakoak edo parafraasiak erabili behar baditu ere.

Hizkeran gutxienezko jariotasuna izango du, inoiz osatu gabeko esaldiak eta etenak gertatu arren. Ahoskeran ama-hizkuntzaren eragin handia soma daiteke batez ere azentuan eta, inoiz, intonazioan ere bai.

### **IRAKURRIAREN ULERMENA**

Ikasketariarentzat ezagunak diren mota orokorreko gaiiez ari diren testu arrunt eta zailtasun maila ertainetakoetan mamia eta xehetasunak ulertzen ditu, nahiz eta ohizkoa baino erritmo apalagoaz irakurri eta ñabardura zenbait galdu.

Ikasketariari hain ezagunak ez zaizkion gaiak direnean edo testu konplexuagoak direnean, berriz irakurri beharra, hiztegieta jo beharra eta inoiz informazio-galerak ere gertatuko dira. Dena den, horretarako ohizkoa dena baino denbora gehiago beharko badu ere, informazio nagusia eta bigarren mailakoak bereizten ditu, testuaren parteak antzeman eta haien arteko erlazioak ulertzen ditu eta gaian edo erregistroan gerta daitezkeen aldaketak antzematen ditu.

Testu korapilatsuak edo oso espezialduak nekez ulertuko ditu, baina ideia nagusiak, testuaren egilearen intentzioa eta zenbait xehetasun ere ulertzea iritsiko da. Elementu lexiko ezezagunen gutxi gora-beherako esanahia eta informazio inplizituak deduzitzeko estrategiak garatuak ditu.

### **IDATZIZKO ADIERAZPENA**

Ikasketariak testu sinpleak ekoizten ditu, bere komunikazio-intentzioei eta irakurle posibleei doitzen zaizkien hizkuntz eta erregistro-motak erabiliz. Testuok ulergarriak eta koherenteak izango dira, era logikoz ordenatuak, zuzentasun dezentekoak, lexiko egokitasun nahikokoak eta, lokailuetan, aberastasun mugatukoak. Orobat, era sinplez antolatutako testuak izango dira eta mezuaren ulergarritasunerako ondorio larririk ez duten akats ortografiko, morfosintaktiko eta lexikoak erakusten dituztenak.

Elaborazio-prozesu konplexuagoa eskatzen duten testuetan ama-hizkuntzan pentsatu eta xede-hizkuntzara itzultzearen ondorioak nabarituko dira eta hiztegiaren morrontza oso handia izango da. Hauetan gainera idazkuntza-prozesua oso neketsua izango da.

HE1erako proposatutako **ordu kopurua** 1.350 ordukoa da, ikasprozesua 450 orduko hiru ikastaro edo Ataletan banatzen delarik

3.000 Atala: 450 ordu 2.000 Atala: 450 ordu 1.000 Atala: 450 ordu
---

HE1



### **III. ABIAPUNTUA ETA PROZEDURA**

#### **ABIAPUNTUA**

IRALEko Curriculum honen iturburuak hurrengo hauek izan dira:

- 47/1993 DEKRETUA, martxoaren 9koa, irakaspostuetarako hizkuntz eskakizunak eta derrigortasun egunak zehazteko irizpideak finkatzen dituena (EHAA - 1993ko apirilak 2).
- 1994ko urtarrilaren 10eko AGINDUA, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Irakaslegoaren Euskalduntze-Alfabetatzerako IRALE Programaren ebaluazio-bidea arautu eta irakasleen hizkuntz eskakizunak egiaztatzeko probak edukinez eta formaz zehazten dituena (EHAA - 1994ko urtarrilak 26).
- IRALE Birmoldatzeko Batzorde Akademikoak (IBIBA) Hezkuntza Sailari Hizkuntz Eskakizun bakoitzerako proposatutako hizkuntz kalitate-maila eta ordu kopurua.

#### **PROZEDURA**

Helburu Orokorrak (47/1993 Dekretua), Hizkuntz Eskakizunei dagokien hizkuntz kalitate-maila (IBIBA) eta Ebaluaziorako Irizpideak (1994ko urtarrilaren 10eko Agindua) aztertu ondoren, hurrengo grafikoan zehazten diren urratsak jarraitu dira, bigarren hizkuntzaren irakas-planetan egin ohi den bezala.

Baina, IRALE programaren ezaugarriak kontutan harturik eta IRALEko zentroetako irakas-planak bateratu nahian, Curriculum hau ohikoak baino urrats bat harantzago doa, irakas-planaren bost Atalen arteko edukin-sekuentziazioa eskaintzen baitu. Beraz, Curriculum honek, lan-marko orokorraz gain, atal bakoitzari dagozkion edukinak ere zehazten ditu. Honela, hurrengo zehazpen-maila, hots, atal bakoitzaren barne-antolamendua edukinen sekuentziazioa eta metodologia, IRALEko zentro bakoitzaren esku geratzen da.

<i>CURRICULUMA</i>	<b>1</b> <b>2</b> <b>3</b> <b>4a</b>	Behar komunikatiboen azterketa Helburu xeheen finkapena Edukinen aukeraketa Edukinen sekuentziazioa Atalka
<i>IRALEKO zentroa</i>	<b>4b</b> <b>5</b> <b>6</b>	Atal barneko edukinen sekuentziazioa Ikas-aktibitateen aukeraketa Ikas-aktibitateen sekuentziazioa
<i>IRALEko zentroa</i> <i>Hezkuntza Administrazioa</i>	<b>7</b>	Ebaluazioa

Lehenengo urratsa, beraz, Helburu Orokorren eta Hizkuntz Eskakizun bakoitzari dagokion hizkuntz kalitate mailaren argitan, behar komunikatiboen azterketa burutzea da. Honetarako, irakasle arrunt batek ikastetxearen ingurunean burutzen dituen hizkuntz eta komunikazio-ekintzen azterketa egin behar da, nolabait esateko, “lanpostuaren” definizioa. Aipatu beharrekoa da azterketa honen oinarria ez dela irakasle arrunt batek bere eguneroko lanean esan/ entzun/ irakurri/ idatz lezakeena (sailkaezina litzateke hau), normalean esan / entzun / irakurri / idazten duena baizik.

Ikastetxearen ingurunean sor daitezkeen komunikazio-egoeren aldagaiak asko dira, baina nagusitzat hurrengo hauek hartu dira: solaskidea, lekua, helburua, gaia eta hizkuntz forma. Beste era batean esanda, irakasle arrunt bat bere eguneroko lanean zein motatako solaskideekin komunikatzen den, zein egoeratan, zertarako edota zein xedekin, zertaz hitz egiten duen eta, azkenik, zein hizkuntz mota erabiltzen duen. Guzti honek Ahozko Adierazpena eta Entzutezko Ulermenari dagokien profil orokorra —irakasle euskaldunarena (2. Eraskina)— eskainiko du.

Irakurriaren Ulermena eta Idatzizko Adierazpenaren kasuan prozedura bera segitu da, baina solaskidearen ordeztasun/igorle/jasotzailea hartu da kontutan, eta leku/egoeraren ordeztasun mota. Honela, irakasle arruntak bere eguneroko lanean zein testu mota irakurri/idazten duen aztertu da.

Hurrengo orrialdeetan Hizkuntz Trebetasun bakoitzari dagozkion komunikazio-egoerak grafikoetan zehaztu dira, HE1eko ikasketariaren komunikazio-beharrak aiseago ulertuko direlakoan.

## IV. BEHAR KOMUNIKATIBOEN AZTERKETA

### AHOZKO ADIERAZPENA

<p>I Ikasketaria ↓ ↓ Ikasleak</p>	<p>II Ikasketaria ↓ ↓ Irakasleak</p>	<p>III Ikasketaria ↓ ↓ Gurasoak</p>	<p>IV Ikasketaria ↓ ↓ Hezkuntza Administrazioa</p>	<p>V Ikasketaria ↓ ↓ Eskolaz kanpoko solaskideak</p>
<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Pasilua</li> <li>2. Patioa</li> <li>3. Liburutegia</li> <li>4. Jantokia</li> <li>5. Txango / Irteerak</li> <li>6. Tutoretza</li> <li>7. Ikasgela</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Mintegia / Departamentua</li> <li>2. Zikloko bilera</li> <li>3. Klaustroa</li> <li>4. Irakasleen gela</li> <li>5. Zuzendaritza</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Telefonoa</li> <li>2. Eskola Kontseilua</li> <li>3. Tutoretza</li> <li>4. Kalea</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Pertsonala, Nominak, Euskara atala, Maileguak, Ikuskaritza...</li> <li>2. Eskolazaintza</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Udaletxea</li> <li>2. Liburudendak / Argitaletxeak</li> </ol>

Aurreko grafikoan irakasle arrunt batek ikastetxearen eguneroko dinamikan parte hartzen dueneko komunikazio-egoera arruntenak zehazten dira. Zutabe bakoitza solaskide mota ezberdin bati dagokio eta bertan kasuan kasuko solaskidearekin normalean non edo zein egoeratan komunikatzen den zehazten da.

Mapa moduko hau abiapuntutzat harturik, irakasle arrunt batek solaskide horiekin komunikazio-egoera bakoitzean hizkuntza zein helbururekin, zer komunikatzeko eta nola erabiltzen duen aztertu da, hiru datu mota ezberdin jaso direlarik: komunikazio-egoera bakoitzari dagozkion **hizkuntz funtzioak**, **nozioak** (orokor eta espezifikoak) eta **hizkuntz formak** (egitura gramatikalak).

Kontutan hartu beharrekoa da hizkuntzaren posibilitate guztiak ezin direla jaso zerrenda batean eta, beraz, maiztasun handiko hizkuntz funtzio, nozio eta hizkuntz formak bakarrik bildu direla. Zerrenda hauek ez dute inolako asmo agortzailerik; aitzitik, irekiak dira eta IRALEko zentruak edo irakasle-taldeek zerrenda hauetan tokian tokiko edota maiztasun handiko hizkuntz forma garrantzitsuak falta direla irizten badeute, inolako zalantzarik gabe erantsi behar dituzte beren irakas-planeari. Datu hauek

guztiek Hitzun Arruntaren Profila dei litekeenaren perspektiba zabal bat eskaintzen dute eta 2. Eraskinean jasorik daude, IRALEko irakasleek edota aztertzaileek, hala nahi badute, sakonkiago aztertu ahal izan ditzaten.

Hurrengo pausua HE1eko ikasketariak grafikoan zehaztutako komunikazio-egoera hauei guztiei zer nolako erantzuna eman behar dien aztertzea da, guztiak ez baitira berdinak: batzuek (ikastetxeko lan bilerak), beren formaltasun mailagatik edota lexi-koagatik, konplexuagoak izaten dira eta trataera berezia eman zaie. Honetarako, Hizkuntz Eskakizunen Dekretuak HE1erako finkatzen dituen gaitasun mailak, Hizkuntz Kalitate-Mailaren zehaztapenak eta Ebaluaziorako Irizpideak komunikazio-egoera jakin guzti horietara moldatu dira.

Moldaketa honen emaitza zuzena Ahozko Adierazpenari dagozkion Portaerazko Helburu Xeheak dira, non HE1eko ikasketariak kasuan kasuko solaskidearekin eta egoeran zer nolako hizkuntz funtzioak burutzeko gai izan behar duen zehazten baita eta, baita ere, zein hizkuntz kalitate-mailarekin.

Portaerazko Helburu Xeheak finkatu ondoren, edukinen aukeraketa egin da: HE1eko ikasketariak hizkuntz funtzio horiek guztiak burutu ahal izateko zer jakin behar du? Abiapuntua Hitzun Arruntaren Profila (2. Eraskina) izan da: bertan agertzen diren nozio eta hizkuntz formen zerrendetatik aukeraketa bat egin da, nozio eta hizkuntz forma bakoitzaren maiztasun eta erabilgarritasunaren arabera eta HE1erako proposatutako ordu kopurua eta orain arteko IRALEko irakas-programak kontutan harturik.

Aipatu beharrekoa da, bestalde, HE1eko ikasketariak ez dituela erabiliko, hasieran behintzat, irakasle euskaldunak erabiltzen dituen hizkuntz forma guztiak, beraien errepertorio mugatua baizik; nahikoa, hala ere, ikastetxearen eguneroko dinamikan sortzen diren komunikazio-egoera arruntei aurre egiteko.

Edukinen aukeraketa egin ondoren, geroago zehaztuko den sekuentziazioa egin da, 1.000, 2.000 eta 3.000 ataletarako.

## ENTZUTEZKO ULERMENA

I Ikasleak ↓ ↓ Ikasketaria	II Irakasleak ↓ ↓ ↓ Ikasketaria	III Gurasoak ↓ ↓ ↓ Ikasketaria	IV Hezkuntza Administrazioa ↓ ↓ ↓ Ikasketaria	V Eskolaz kanpoko solaskideak ↓ ↓ ↓ Ikasketaria	VI Norabide bakarreko diskurtsoa ↓ ↓ ↓ Ikasketaria
1. Pasilua 2. Patioa 3. Liburutegia 4. Jantokia 5. Txango / Irteerak 6. Tutoretza 7. Ikasgela	1. Mintegia / Departamentua 2. Zikloko bilera 3. Klaustroa 4. Irakasleen gela 5. Zuzendaritza	1. Telefonoa 2. Eskola Kontseilua 3. Tutoretza 4. Kalea	1. Pertsonala, Nominak, Euskara At., Maileguak, Ikuskaritza... 2. Eskolazaintza	1. Udaletxea 2. Liburudendak / Argitaletxeak	1. Komunikabideak 2. Ikastaroak 3. Hitzaldiak 4. Bisita komertzialak 5. Bisita kulturalak

Ahozko Adierazpenerako zehaztu diren komunikazio-egoerak berberak dira hemen, zeren komunikazioak bi norabide ditu eta ikasketariak, beraz, ez du hitzegiteko bakarrik gai izan behar, baita esaten zaiona ulertzeko ere.

Ahozko Ekoizpenean hizkuntz formen errepertorio mugatu baten jabe bada, Entzutezko Ulermenari dagokionez hitzun arruntak egoera hauetan normalean erabiltzen dituen hizkuntz forma guztiak ulertu behar ditu, baina, jakina, salbuespen batzuekin.

Aurreko grafikoan Ahozko Adierazpenarenean baino zutabe bat gehiago dago, VI.a hain zuzen ere, Norabide Bakarreko Diskurtsoari (komunikabideak, hitzaldiak, ikastaroak...) dagokiona, zeren ikasketariak honelako diskurtsoak ere ulertzeko gai izan behar du.

Honezaz gain, ikastetxearen eguneroko dinamikan badira komunikazio-egoera batzuk (letra handiz idatzitakoak) hizkuntza edo diskurtso mota arruntetik apur bat desbideratzen direnak eta, beraz, trataera berezia behar dute.

Alde batetik, ikastetxeko lan bilerak daude (Mintegia/Departamentua, Zikloko Bilerak eta Klaustroa), non kasuan kasuko gaiaren konplexutasunaren arabera ikasketariak guztia ulertzeko arazoak izan ditzakeen.

Bestetik, Tutoretza dago, hots, gurasoekiko komunikazioa, non ikasketariak, kasu batzuetan, benetako arazo larriak izan baititzake.

Komunikazio-egoera berezi hauetan ikasketariak esaten dena/zaiona ulertzeko norainoko gaitasuna izan behar duen Portaerazko Helburu Xeheetan zehazten da.

Bigarren Hizkuntzaren ikas-prozesuan Entzutezko Ulermen maila Ahozko Adierazpenarena baino altuagoa izatea oso gauza arrunta da, hala izaten baita gehienetan.

Baina, HE1en kasuan ezberdintasun bat dago: ikasketariak Entzutezko Ulermen maila altua izan BEHAR du. Eta honek euskararen irakaskuntzan orain arte, behe mailetan behintzat, hain ahaztua izan den Entzutezko Ulermenari trataera berria ematea dakar, askoz ere sistematikoago eta itentsiboagoa, Orientabide Metodologikoetan azalduko den bezala.

## IDATZIZKO ADIERAZPENA

	Hizkuntza Literaturan	Hizkuntza Gizarteko Komunikabideetan	Hizkuntza Instituzio Harremanetan	Hizkuntza Harreman Pertsonaletan	Ikasketako Hizkuntza
<i>DESKRIBAPEN TESTUA</i>		– Lan-eskaintza * Iragarki laburra	* Curriculum-a * Inprimakia	* Karta	* Eskema * Koadro sinoptikoa * Grafikoa
<i>NARRAZIO TESTUA</i>	– Ipuina – Biografia	– Berria – Kronika – Erreportaia – Publizitatea – Komikia		* Karta – Egunerokoa	– Problema – Testu historikoa
<i>ARGUDIO TESTUA</i>	– Entsaioa – Eztabaida	– Editoriala – Artikulua – Mahai-ingurua * Zuzendariari karta – Eztabaida – Publizitatea	* Eskabidea	* Karta	* Txostena – Tesia – Iruzkina – Kritika
<i>AZALPEN TESTUA</i>	– Entsaioa	– Artikulua – Agenda informatiboa – Iragarki ofiziala – Elkarrizketa	– Iragarki ofiziala – Idearium-a	* Abisua * Oharra	– Monografia – Azterketa (erantzuna)
<i>INSTRUKZIO TESTUA</i>		– Publizitatea	– Araudia (eskolakoa) – Araubidea	* Abisua * Oharra	– Azalpen/ erabilpen liburuxka * Azterketa (galdera) * Eskola-ariketa

Aurreko grafikoan testu tipologia zabal bat biltzen da, ikasketariak bere eguneroko lanean ekoitz litzakeen testu motak jasotzen dituena. Testu mota guzti hauetatik aukeraketa bat egin da: ikasketariak eguneroko lanean maizen ekoiztu beharko dituen testuak eta, beraz, HE1 gainditzeko eskatu beharko litzazkikeenak izartxo batez idatzi dira, gainerakoak, maiztasun txikiagokoak izan arren, ikas-prozesuan zehar Idatziko Adierazpena lantzeko osagarri gisa geratzen direlarik.

Baina honek ez du esan nahi ikasketariaren idazteko gaitasuna testu horietara bakarrik mugatzen denik, HE1ean testu mota hauek bakarrik ekoiztea eskatzen zaiola baizik, zeren HE1ean Ahozko Adierazpenak Idatzizkoak baino pisu handiagoa baitu. Gainera, ez da ahaztu behar HE2rantz segitu nahi duen ikasketariari 4.000 eta 5.000 Ataletan Idatzizko Adierazpenean oso gaitasun handia eskatuko zaiola eta, beraz, 3.000 Atala bukatzen duenerako trebetasun honetan oinarri sendoa lortu baldin badu, askoz errazago lortu ahal izango duela HE2an eskatuko zaion maila.

Testu tipologia hau eta egindako aukeraketa irekiak dira eta baliteke maiztasun edo interes handiko testu mota bat edo beste hemen ez agertzea. IRALEko zentruak

edo irakasle taldeek hala irizten badute, delako testu mota zalantzarik gabe gehitu behar dute beren irakas-planean.

Ikasketariari testu hauek ekoizterakoan zer nolako hizkuntz-kalitatea eskatzen zaion sakonkiago zehazten da Portaerazko Helburu Xehetan.

## IRAKURRIAREN ULERMENA

	Hizkuntza Literaturan	Hizkuntza Gizarteko Komunikabideetan	Hizkuntza Instituzio Harremanetan	Hizkuntza Harreman Pertsonaletan	Ikasketako Hizkuntza
<i>DESKRIBAPEN TESTUA</i>	– Poema	– Grafikoa – Mapa – Argazki-oina – Lan-eskaintza – Iragarki laburra – Aldezkarri espezia-lizatua	– Curriculum – Turismo gidaliburua – Inprimakia	– Karta	– Eskema – Koadro sinoptikoa – Grafikoa
<i>NARRAZIO TESTUA</i>	– Ipuina – Biografia – Elaberria – Poema – Teatroa	– Berria – Kronika – Erreportaia – Publizitatea		– Karta	– Problema – Testu historikoa – Akta / Agiria
<i>ARGUDIO TESTUA</i>	– Entsaioa – Eztabaida – Poema – Teatroa	– Editoriala – Artikulua – Zuzendariari karta – Publizitatea	– Eskabidea	– Karta	– Txostena – Zientzi artikulua
<i>AZALPEN TESTUA</i>	– Entsaioa – Poema	– Artikulua – Agenda informatiboa – Iragarki ofiziala – Elkarriketa	– Iragarki ofiziala – Zirkularra	– Abisua – Oharra	– Curriculum egokitzena – Testuliburua – Zabalkunde testua – Katalogoa – Entziklopedia/Hiztegia – Azterketa (erantzuna) – Didaktikari buruzko artikulua
<i>INSTRUKZIO TESTUA</i>	– Poema – Teatroa	– Publizitatea	– Deialdia – Araudia (eskolakoa) – Iragarki ofiziala – Araubidea	– Abisua – Oharra	– Deialdia – Abisua / Oharra – Azterketa (galdera) – Eskola-ariketa

Aurreko grafikoan testu tipologia zabal bat biltzen da, ikasketariak bere eguneroko lanean ulertu beharko lituzkeen testu motak jasotzen dituen, HE1eko ikasketariak zer nolako testuak ulertzeko gai izan behar duen argitzeko asmotan. Testu tipologia hau irekia da eta baliteke maiztasun edo interes handiko testu mota bat edo beste hemen ez agertzea. IRALEko zentruak edo irakasle taldeek hala irizten badute, delako testu

mota zalantzarik gabe gehitu behar dute beren irakas-planean. Tiopologia hau, beraz, orientagarria da eta ez du inolako asmo agortzailerik.

HE1eko ikasketariari Idatzizko Adierazpenean eskatzen zaion maila oso altua ez bada ere, Irakurriaren Ulermenean eskatzen zaiona altu samarra da, ikastetxearen eguneroko dinamikan erabiltzen diren testu mota ia guztiak ulertu behar baititu. Baina testu mota hauek guztiek ez dute zailtasun bera, ezta egitura bera ere: badira ikasketariak inolako esfortzurik gabe ulertuko dituenak eta, baita ere, beren egitura edo lexiko konplexuagatik ulergaitzago izango zaizkionak.


Hala ere, oso testu korapilotsuak ez direnean, gehienetan guztia ulertzeko gai izan behar du ikasketariak. Guzti hau sakonkiago aztertu da Portaerazko Helburu Xehetan.



## V. PORTAERAZKO HELBURU XEHEAK

Irakasle arruntak eguneroko lanean burutzen dituen hizkuntz eta komunikazio-funtzioak zehaztu ondoren, hurrengo urratsa HE1eko ikasketariaren hizkuntz eta komunikazio-gaitasunak funtzio horietara egokitzea da. Honetarako, Dekretuaren helburu orokorrek HE1eko ikasketariarentzako finkatzen dituzten gaitasun orokorrak aurreko atalean zehaztutako egoera komunikatiboetara moldatu behar dira.


Moldaketa hau HE1en hizkuntz kalitate-mailaren zehaztapenak eta Ebaluaziorako Irizpideak kontutan harturik burutu da. Hurrengo grafiko honetan, agian, errazago ulertuko da prozedura.



Beraz, Helburu Xeheek hurrengo hau zehaztuko dute (ikus 3.000 Atala: Bukaerako gaitasuna. HE1eko Portaerazko Helburu Xeheak, 83-86 orr.):

- Egoera komunikatiboa (solaskidea, lekua).
- Ikasketariaren gaitasun komunikatiboa egoera horren aurrean.
- Zein hizkuntz kalitaterekin aurre egin behar dion egoera komunikatiboari (zuzentasuna, egokitasuna, doinuera,...).

Garrantzi handikoa da Helburu Xehe hauek zehatz-mehatz finkatzea, alde batetik ikas– prozesuaren helmuga direlako, hots, ikasketariak ikas-prozesuaren bukaeran trebetasun bakoitzean zer egiteko gai izan behar duen, eta beste aldetik, ebaluazioak (edota azterketak) ikasketariaren benetako gaitasuna neurtu nahi badu, portaerazko helburu xeheetan oinarritu behar delako eta ez, batzuetan gertatzen den bezala, gaitasun hori zeharka isladatzen duen froga edo ariketa batean. Honela, gainera, zer ebaluatu aldeztatik ondo finkaturik egoteak ebaluatzeko modua hein handi batean erraztea dakar.



Honezaz gain, ikas-prozesuan edo ebaluaketan desbiderazioak edo akatsak egi-ten badira, helburu xeheak oso tresna baliotsuak dira ezinbestekoak agian burutu behar den zuzenketa edo berrikusketa burutzeko.

## **VI. EDUKINEN AUKERAKETA ETA SEKUENTZIAZIOA**

### **SARRERA**

Hurrengo urratsa irakasle euskaldun arruntak lehen zehaztutako egoera komunikati-  
boetan erabiltzen duen hizkuntza mota (ikus 2. Eraskina) aztertzea da, hau da, egoera  
horietan nola (zein hizkuntz formarekin) burutzen dituen funtzio ezberdinak. Hizkuntz  
forma posible guztiak zerrendaezinak dira: bakar-bakarrik eguneroko komunikazioari  
dagozkionak aukeratu dira, maiztasun handikoak, erabilgarriak eta HE1i dagokion  
hizkuntz eta komunikazio-gaitasuna ziurtatzen dutenak.

Baina hizkuntz forma hauek irakatsi ahal izateko edukinetan adierazi behar dira  
eta honek hautaketa bikoitza eskatzen du: alde batetik, edukin motarena (gramatikal,  
funtzional...), eta bestetik, mota horren barruan, zein edukinena.

Hizkuntzaren irakaskuntzaren tradizioan irakas-planen ardatz nagusia gramatika  
izan ohi da, gainerako osagaiei (hizkuntzaren erabilerari batez ere) gero eta garrantzi  
handiagoa eman izan zaielarik. Programaketa gramatikal hutsetan hizkuntza erabil-  
tzeko gaitasuna, ikas-prozesu luzea bukatu arte diferitua, xede-hizkuntzarekin harre-  
man luze baten ondorioz lortzen zen —lortzen zenean—. Baldintza horietan hizkuntz  
eta komunikazio-gaitasunik minimoena ere ziurtatzea oso zaila da, hainbat elementu  
ikasketariaren esku geratzen direlako.

Honek ez du esan nahi programaketa tradizionalekin ikasketariak nozio edo le-  
xikorik ikasten ez zuenik, ezta ere hizkuntz funtziorik burutzen edo lexikorik ikasten  
ez zuenik. Ikasten zuen, bai, baina sistematizazio handirik gabe edukin gramatikalei  
erantsita.

Baina orain ikasketariak 3.000 Atala bukatutakoan hizkuntz eta komunikazio-gai-  
tasun jakin bat erakutsi behar du. Eta honek edukin gramatikal multzo bat baino  
gehiago eskatzen du: ikasketariak egitura gramatikalak ezagutzeaz gain, egoera ja-  
kinetan erabiltzen jakin behar du, eta erraztasunez gainera; egoera horietan normalean  
zer esaten den jakin behar du, eta berari esaten zaionean, ulertu; eta hala behar  
denean, egokitasunez erantzun; egoera horien inguruko nozioak ere ezagutu behar  
ditu, eta adierazten jakin.

Honetarako ezinbestekoa da, gramatika edo hizkuntz sistemaz gain, beste bi  
osagai mota integratzea: osagai funtzionala, hau da, edukin gramatikalak zertarako

eta zein egoeratan erabili, eta osagai nozionala, hots, ideiak eta kontzeptuak nola adierazi. Bestela, ikasketariak, edukin gramatikalekin bakarrik, ezin liezaioke eguneroko komunikazioari erraztasunez aurre egin, ezta ere nozioekin edo hizkuntz funtzioekin bakarrik. Guztiak batera “hizkuntz sarean” txertaturik eduki behar ditu.

Honen ondorioz, azken xedea ikasketariak “hizkuntz sare” hau bereganatu eta erabiltzen jakitea delarik, HE1eko curriculum honen osagaiak hiru motatakoak dira:

- formala: egitura gramatikalak zein testualak,
- funtzionala: aurrekoen erabilpen esparruak (komunikazio-egoerak, hizkuntz funtzioak),
- nozionala: nozio orokorrak eta espezifikoak.

Atal honen hasieran aipatu den bezala, ikasketariak HE1en hizkuntz eta komunikazio-gaitasuna lortzeko ikasi eta erabiltzen jakin behar dituen edukinak irakasle euskaldun arruntak ikastetxeko eguneroko dinamikan erabiltzen dituen hizkuntz formatik atera dira. Edukinen hautaketa hizkuntza errealean oinarritu da, maiztasun edo erabilgarritasun urriko hizkuntz forma konplexu edota bitxiak, alde batetik, eta hizkuntzaren erabilera errealari ez dagozkion sinplifikazioak, bestetik, alde batera utzi direlarik.

Honez gain, osagai kulturala ere edozein hizkuntzaren berezko osagaia txertatu beharko litzateke, hizkuntzak ez baitira komunikazio-kode hutsak. Honelako elementu kulturalak, curriculum honen esparrutik at geratzen direlarik ere, ez dira horregatik ahaztu behar: IRALEko zentro bakoitzak bere irakas-planean txertatu beharko lituzke, egoki deritzon moduan eta tokian tokiko egoera soziolinguistikoa eta soziokulturala kontutan harturik.

## SEKUENTZIAZIOA

HE1eko ikasketariak landu behar dituen edukinak aukeratu ondoren, hurrengo pausoa edukinok Hezkuntza Sailak HE1erako finkatutako hiru Ataletan sekuentziatzea da. Honetarako, hurrengo alderdi hauek hartu dira kontutan:

- Zailtasuna. Edukinok zailtasun progresiboaren arabera sekuentziatu dira, sinpleenetatik konplexuagoetara.
- Egitura gramatikalen eta hizkuntz funtzioen arteko banan-banango lotura eza: funtzio bakoitza hainbat gramatika-egitura ezberdinekin buru daiteke eta gramatika-egitura bakoitzarekin hizkuntz funtzio ezberdinak burutzen dira. Sekuentziazioaren ardatz nagusia gramatika izan bada ere, hizkuntz funtzioak eta nozio orokor eta espezifikoak txertaturik azaltzen dira, ikasketariak gramatika egiturak komunikazio-egoera ezberdinetan eta ideia ezberdinak adierazten ikas dezan.
- Hizkuntzen eskuratze-prozesuaren izaera espirala edo ziklikoa. Edukin formalak, hizkuntz funtzioak eta nozioak behin baino gehiagotan agertzen dira 1.000, 2.000 eta 3.000 Ataletan zehar, ez errepikaturik, erabilpen esparru ezberdinetara aplikaturik edota hizkuntz gauzapean ezberdinekin.
- Ikasketariaren behar komunikatiboak. Hasiera-hasieratik erantzun bat eman nahi izan zaie, ikasketaria, oso maila apalean bada ere, hizkuntzaren bidez “gauzak” egiteko gai izan dadin.

Gainera, Atalkako progresio zikliko hau ez da bukatzen sekuentziazio honekin: Atal bakoitzaren barruan ere segitu behar da, hurrengo hau lortu nahi baldin bada:

- Ikasketariak hasieratik hizkuntzaren funtzionamenduaren ikuspegi orokor bat hartzea

- Hizkuntzari buruzko hausnarketa progresiboa ahalbidetzea
- Hizkuntza kontestualizatua ikastea

## ATALEN EGITURA

1.000, 2.000 eta 3.000 Atalak honela egituratuta daude:

**a) HIZKUNTZ EGITURAK** izenburupean honako hau zehazten da Atal bakoitzaren hasieran:

MORFOLOGIA	MORFOLOGIA: ADITZA	SINTAXIA	DISKURTSO LOTURAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>• deklinabidea</li> <li>• galdetzaileak</li> <li>• izenordainak</li> <li>• determinatzaileak</li> <li>• ...</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• aditz formak</li> <li>• denborak</li> <li>• pertsonak</li> <li>• ...</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• menpeko esaldiak</li> <li>• nominalizazioa</li> <li>• ...</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• lokailuak</li> <li>• diskurso antolatzaileak</li> <li>• ...</li> </ul>

**b) HIZKUNTZ EGITUREN LANKETA / ERABILPEN ESPARRUAK** izeneko azpiatalean arestian aipatutako hizkuntz egituren alderdi funtzionala zehazten da, ikasketariak egitura bakoitza zein egoeratan erabiltzen ikasi behar duen, zein hizkuntz funtzio burutzeko eta zein sakontasun-mailarekin bereganatu behar duen.

**c) NOZIOAK** izeneko azpiatalean nozio orokor eta espezifikoen hizkuntz gauzape ezberdinak azaltzen dira, kasuan kasuko mailari dagozkionak. Nozioen gauzape linguistiko ezberdinen lanketa erraztearren, ikur bat jarri da bakoitzaren aurrean. Bi ikur mota erabili dira: izartxoa (\*) eta puntua (●):

(\*) Kasuan kasuko Ataleko edukin gramatikalekin zerikusia duela adierazten du.

(●) Lexiko bezala landu behar dela adierazten du.

Atal bakoitzerako zehazten diren nozioak hurrengo orrialdeko eskema orokorraren arabera sailkatuta daude. Nozio gehienak Atal ezberdinetan agertzen dira hizkuntz gauzape ezberdinekin.

**d) BUKAERAKO GAITASUNA** azpiatalean ikasketariak moduluaren bukaeran hizkuntz trebetasun bakoitzean zer nolako gaitasuna lortu behar duen zehazten da. Ikasketariak 3.000 Atalaren bukaeran lortu behar duen gaitasuna HE1eko Portaerazko Helburu Xeheetan adierazita dago, prozesu osoaren helmuga gisa.

## NOZIOEN ESKEMA OROKORRA

### I. ENTITATE-NOZIOAK

- 1 Izen bereziak
- 2 Izen arruntak
- 3 Izenordainak
- 4 Determinatzaileak
- 5 Nolakotzaileak

### II. PROPIETATE ETA KUALITATE-NOZIOAK

#### A. EXISTENTZIA

- 6 Existentzia/inexistentzia
- 7 Disponibilitatea/eza
- 8 Posibilitatea/eza

#### B. ESPAZIOA

- 9 Kokalekua
- 10 Besteekiko posizioa
- 11 Ordena
- 12 Distantzia
- 13 Mugimendua

#### C. DENBORA

- 14 Astea, eguna, orduak...
- 15 Bestelako lexikoa
- 16 Gertakariak denboran
- 17 Iraupena
- 18 Maiztasuna
- 19 Sekuentzia

#### D. DIMENTSIOAK, MAGNITUDEAK

- 20 Tamainua
- 21 Luzera, altuera...
- 22 Pisua
- 23 Bolumena/edukiera
- 24 Tenperatura
- 25 Adina
- 26 Abiadura

#### E. KUANTIFIKAZIOA

- 27 Kopurua
- 28 Kantitatea
- 29 Kuantifikazioa zehaztasunik gabe
- 30 Gradua

#### F. KUALITATEAK

- 31 Kualitatearen adierazpena
- 32 Kualitate fisikoak
- 33 Pertsonarenak
- 34 Balorazioak

### III. HARREMAN-NOZIOAK

- 35 Berdintasuna, korrespondentzia
- 36 Ezberdintasuna, kontrastea

## VI.1. 1.000 ATALA

## VI.1.1. HIZKUNTZ EGITURAK

## MORFOLOGIA

**Deklinabidea**

Izenen deklinabidea

- izen propioak/ izen arruntak (bereiztu)
- bizigabeak/ bizidunak (bereiztu)
- Sing./ Plu.: forma ohikoenak
- Mugg. eta bizidunak: oinarrizko formak

Bestelakokak

- galdetzaile, izenordain, erakusle, zenbatzaile eta adberbioen forma deklinatu ohizkokenak

Zenbakia + izena

- ondorioak deklinabidean

	<u>MGG.</u>	<u>SING.</u>	<u>PLU.</u>
Nor/ Zer	*	*	*
Zerik	*		
Nork/ Zerk		*	*
Nori/ Zeri		*	*
Non	*	*	*
Nongo	*	*	*
Nora	*	*	*
Nondik	*	*	*
Noren		*	*
Norekin		*	*
Nortaz/ Zerez	*		
Norentzat		*	*

**Galdetzaileak**

- Nola, nolako(a)
- Nor (deklinabidea: nork, nori, noren, norekin, ...; norengan, norengana)
- Zer (deklinabidea: zerk, zertaz, zergatik, ...); zeri buruz, zer ordutan, ...
- Non (deklinatua: nongo(a), nora, nondik, ...)
- Noiz (noizko(a), noiztik, ...); noiz arte
- Zein, zenbat, ... (+ izen deklinatua)

**Izenordainak**

Pertsona izenordainak

- Ni, zu; gu, zuek
- forma deklinatu erabilienak: nik, niri, nire, nirekin, ...

Determinatzaileak izenordain gisa

- erakusleak, zenbatzaileak, ...

**Determinatzaileak**

Artikuluak: sig. -a; plu. -ak

Erakusleak

- hau, hori, hura; hauek, horiek, haiek
- forma deklinatu erabilienak: honek, honi, ...

Zenbatzaileak

- zenbakiak: bat, bi, hiru, ...
- "bat" artikulu gisa erabilia
- zenbatzailea + izena
- batzuk, asko, gutxi; apur bat, piska bat, nahikoa

- guzti

- ordinalak: -garren (deklinatua)

**Adjetiboak**

- adjetiboa+izena (deklinabidea, komunztadura)
- gradu markak: -ago, -egi, -en

**Adberbioak**

Deiktikoak

- hemen, hor, han
- forma deklinatu erabilienak: hemengo(a), hona, hemendik, ...
- honela, horrela, hala

Maila aditzondoak

- oso; "zein" esklamatiboa

Aditza + -ta

- eginda; -ta/ gabe (eginda/ egin gabe)

**Posposizioak**

- IS+ ø/ -aren + posp.+ -an aurre/atze, azpi/gain, barru, pare, ondo, arte

**Aditz izena**

- -tzea, -tzen, -tzera, -tzeko

**Atzizkiak**

- -ari, -gile, -le, -tzaile, -keria, -tasun, -tar

MORFOLOGIA: ADITZA	SINTAXIA
<p><b>Indikatiboko orainaldia</b></p> <p>Laguntzailea: N, N-Nk, N-Ni, Z-Ni-Nk Trinkoak: Egon, Joan, Etorri, Ibili, Eduki, Jakin, Eraman, Ekarri.</p> <p><b>Indikatiboko lehenaldia:</b></p> <p>Laguntzailea: N, Nk Trinkoak: Egon, Ibili (3.p), Joan (3.p), Eduki</p> <p><b>Aditz lokuzioak:</b></p> <p>Bizi izan, Ari izan, Balio izan, Behar izan, Ezin izan, Falta izan, Komeni izan, Ahal izan</p> <p><b>Aditz aspektuak:</b></p> <p>Nator, Etorri / -tzen / -ko naiz</p> <p><b>Agintera:</b></p> <p>N (zaitez, zaitezte) Nk (ezazu(e), itzazu(e))</p> <p><b>Ahalezko orainaldia:</b></p> <p>N (naiteke, daiteke, ...) Nk (dezaket, dezake, ...)</p>	<p><b>Esaldiak:</b> Baiezkoak, ezezkoak, galdezkoak</p> <p><b>Konpletiboak:</b> -la, -nik, -tzeko</p> <p><b>Zehar galdera:</b> -n</p> <p><b>Helburuzkoak:</b> -tzera, -tzeko</p> <p><b>Nominalizazioa:</b> -tzea, -tzen</p> <p><b>Kontzesiboa:</b> Nahiz eta...</p> <p><b>Baldintza erreala:</b> ba- ...</p> <p><b>Zergatikakoak:</b> -lako, ... eta.</p> <p><b>Denborazkoak:</b></p> <p>-nean, eta gero, ondoren, baino lehen, aurretik, .. arte, bitartean</p> <p><b>Erlatiboa:</b> ...-n gizona(k), -na(k)</p> <p><b>Konparatiboak</b></p> <p>baino ...-ago, gutxiago, gehiago, bezalakoa</p> <p><b>Zehar estiloa</b></p> <p>Orainaldia</p>

### DISKURTSO LOTURAK

Baina, hala ere, eta, ba, ala, orduan, ere bai, ere ez, begira, ezta?



## MORFOLOGIA

### Deklinabidea

- NOR, NORI eta gainerako kasuak singular, plural eta mugagabeen landuko dira, ikasketariak nolabaiteko automatismoa lortu ahal izateko.
- Mugagabea izen propioekin landuko da. Ikasketariak ondo bereiztu behar ditu izen arrunt eta izen propioen deklinabidearen bukaera ezberdinak eta mailari dagokion automatismoaz erabili.

### Galdetzaileak

- Aipamen berezia behar du "Zein" galdetzailearen erabilerak batez ere NON, NOIZ, NORA kasuetan. Behar beharrezkoa da ikasketariak "Zein ...+TAN", "Zein ...+TARA" galderak egiterakoan automatismoa lor dezan, aurrerantzean ikasiko dituen antzerako galderak esfortzu handirik gabe egin ahal izateko.

### Partizipioa

- -TA partizipioa bakarrik landuko da, -RIK formakoak ere ulertu arren. GABE partikula ere landuko da, -TA partizipioaren kontrako bezala, ikasketariaren adierazkortasunaren esparrua zabaltzeko (ad. eginda/ egin gabe)

### Izena + (adjetiboa) +a

- Hasiera-hasieratik landu behar da artikuluen erabilera, H1en eraginez joera nagusia kentzea baita. Argi utzi behar da hitzak hiztegian nola agertzen diren eta sintaxian integratzerakoan nola artikulua hartzen duten, adibidez, erosketen zerrendan: esneA, ogiA, .... Hau hasieratik ulertzen bada, errazago egingo zaie gero determinatzailez aldatzea, adib. liburuA //liburu BAT.

### Atzizkiak

- Atzizkiak lantzearen helburu nagusiak bi dira: alde batetik, euskal lexikoaren funtzionamenduaren ikuspegi orokor bat hartzea eta, bestetik, hitz ezezagunak ulertzen edota ikasitakoak gogoratzen laguntzea.
- Kontutan hartzekoa da ikasketariak lexikoa testuinguruan finkatu behar duela eta ez inolako lotura semantikorik ez duten hitz zerrendetan. Beraz, ez da gomendatzen atzizki jakirik lantzea harik eta ikasketariak nahikoa adibide ezagutu arte.

## MORFOLOGIA: ADITZA

### Indikatiboko orainaldia

- Bai laguntzaileekin bai trinkoekin nolabaiteko automatismoa lortu behar da.
- Kontutan hartu behar da pertsona (1, 2, 3.a) bakoitzaren maiztasuna eguneroko hizkuntzan, eta, aditz trinkoen kasuan, bakoitzaren maiztasuna eta erabilgarritasuna.

### Aditz aspektuak

- Orainaldikoak bakarrik landuko dira eta betirako finkatu.
- Garrantzitsua da ikasketariak hasiera-hasieratik aspektu bakoitza bere denbora-esparruarekin lotzea.

### Indikatiboko lehenaldia

- N eta Nk formako laguntzaileak landuko dira, ikasketariaren komunikazio-esparrua zabaltzeko.

- Jariotasun maila apalean bada ere, ikasketariak honelako funtzioak burutu ahal izango ditu:
  - \* Iraganeko esperientzien berri eskatu eta eman: *Non ikasi zenuen? BBB bukatu ondoren Bilbora etorri ginen...*
  - \* Gertaera-kate simple eta laburrak egin: *Goizean etxean gosaldu ondoren, parkera joan ginen...*
  - \* Iragan hurbilean egindakoaren berri eskatu eta eman: *Non egon zinen oporretan? Madrilen egon eta gero, Malagara joan ginen.*
  - \* Gertaera arrunten berri eskatu eta eman: *Zer gertatu zen atzo Arenalean? Istripu bat egon zen...*
- Honezaz gain, Egon eta Eduki aditzen iraganeko forma trinkoak ere landuko dira, ikasketariari iraganeko egoerak deskribatzeko aukera eskaintzeko, adibidez: *nekatuta / triste / pozik nengoen, bueltaka genbiltzan , ez neukan dirurik, ...*
- Ibili eta Joan aditzen iraganeko forma trinkoak 3.pertsonan bakarrik landuko dira maila honetan (*zebilen, zebiltzan, zihoan, zihoazen*), ikasketariak testu narratibo sinpleak ulertu eta ekoiztu ahal izateko (ipuinak, gertaerak,...).
- Denborazko esaldi batzuk ere landuko direla kontutan hartuta, eta oso maila apalean bada ere, honelako esaldiak ulertu eta ekoiztuko ditu ikasketariak:
  - \* *Hiru urte nituenean Durangora joan ginen bizitzera.*
  - \* *Filmea bukatu baino lehen kalera joan ginen.*
- Iraganeko aspektuak (*joan nintzen / joaten nintzen*) ez dira sistematikoki landuko maila honetan, nahiz eta ikasketaria, analogiaz, ulermen mailan bereizteko gai izan.

### Aditz Lokuzioak

- Orainaldian bakarrik landuko dira, aspektuak (*bizi naiz / bizi izan naiz*) 2. Atalerako uzten direlarik.
- “*Bizi nintzen, nahi nuen*” eta antzerako formak berez sortuko dira klasean. Garrantzitsua da aditz lokuzio hauen erabilera betirako finkatzea, hots, guztiak direla “burutu gabeak”, nahiz eta formaz kontrakoa iruditu.
- “*Ahal izan*” aditz lokuzioa maiztasun handiko esaldi laburretan bakarrik landuko da, gainerako egoera guztietan benetako ahalezko formak (*naiteke, dezaket...*) landuko direlarik:
  - \* *Ahal duzunean, argazki bat ekarri, mesedez.*
  - \* *Ahal dudanean ekarriko dizut.*
  - \* *Ahal baduzue, lehenago etorri bihar.*

### Ahalezko Orainaldia

- N (*naiteke, ...*) eta Nk (*dezaket, ...*) formak landuko dira, indikatiboko laguntzaileekin batera.
- Honelako funtzioak burutzen ikasi behar du ikasketariak:
  - \* Baimena eskatu / eman: *Sar naiteke? Liburua etxera eraman dezaket?*
  - \* Proposamena egin: *Autobusez joan gaitetzke ... Jai bat egin dezakegu bihar ...*
  - \* Aholkua eman: *Etxean lasaiago egin dezakezu ... Nahi baduzu, hemen gera zaitetzke*

- \* Posibilitatea adierazi/galdetu: *Grafikoak egin daitezke ordenadorean? Marrazkiak ere egin daitezke*
- \* Gaitasuna adierazi / galdetu: *Buka dezakezue hau 10 minututan? Ostegunerako egin dezakegu...*

## Agintera

- Forma simple hauek landuko dira (*zaitez*, *ezazu*), ikasketariak honelako funtzioak bete ahal izateko:
  - \* Aginduak eman: *Jezar zaitez! Ireki ezazu leihoa!*
  - \* Aholkua eman: *Etor zaitez honantzago; hobeto ikusiko duzu ...*
  - \* Proposamena egin: *Nekatuta bazaudete, egin ezazue bihar...*
  - \* Mehatxua egin: *Ez ezazu berriro egin hori, bestela ... ikusiko duzu!*
  - \* Mesedea eskatu: *Jezar zaitez hemen, mesedez. Ekar ezazu biharko, mesedez.*
  - \* Instrukzioak eman: *Orain, ireki ezazue botila. Ireki ondoren, bota ezazue ardoa lapikoan. Gero ...*

## SINTAXIA

### Esaldiak

- Etengabe landu behar dira nolabaiteko automatismoa lortu arte.
- Kontutan hartu behar da automatismo hau bereganatzeak prozesu luzea eskatzen duela eta ez dela ikastaro bakar batean lortuko.

### Konpletiboak / Zehar galderak (Zehar Estiloa)

- Zehar estiloaren mekanismoaz jabetzea oso prozesu luzea denez, ahalik lasterren lantzen hastea ezinbestekoa da.
- Kontutan hartu behar da ikasketariarentzat zehar estiloak sintaxian jauzi handi bat ematea suposatzen duela eta, beraz, ikastaro honetan oso esaldi sinpleekin landu behar dela. Nahikoa izango da hiru perpausa hauen transformakuntzaz jabetu eta maila apal batean erabiltzea

Adierazpen esaldia → -LA (-nik)      Galde perpausa → -N      Aginte esaldia → -TZEKO

- Konpletiboek beste funtzio garrantzitsu hauek burutzeko aukera eskaintzen diote ikasketariari, komunikazio "naturalerako" behar-beharrezkoak direnak:
  - \* Iritziak eman: *Polita dela uste dut.*
  - \* Asmo / planen berri eman: *Uste dut arratsaldean zinemara joango garela.*
  - \* Ustea adierazi: *Bihar euria egingo duela uste dut.*

### Helburuzkoak / Nominalizazioa

- Kontutan hartu beharreko bakarra. *-teko* formaren erabilera bikoitza litzateke (helburuzkoa / zehar estiloa).
- *-tea* formak trataera berezia behar du, alde batetik hurrengo ataletan ikasi beharko diren transformazio konplexuen oinarria delako, eta, bestetik, oinarriko funtzio batzuk burutzeko aukera eskaintzen duelako, adibidez:
  - \* Gustu / zaletasunen berri eskatu eta eman: *Ibiltzea gustatzen zait.*
  - \* Aholkuak eman: *Gutxiago erretzea komeni zaizu.*
  - \* Iritzia eskatu / eman: *TB asko ikustea ez da ona.*

- -ten forma aditzekin batera (egon, ari izan, ibili, hasi) landuko da. (ad. *Noiz hasi zinen klaseak ematen?*).

### Kontzesiboa

- “*Nahiz eta + (partizipioa)*” forma bakarrik landuko da, ikasketariak komunikaziorako hain beharrezkoa den “kontzesio” ideia adierazi ahal izateko.

### Baldintza erreala

- Intentsiboki landuko da, forma honek eguneroko hizkuntzan hainbat funtzio ezberdin burutzeko aukera eskaintzen baitu:
  - \* Mehatxuak egin: *Isiltzen ez bazara, ikusiko duzu!*
  - \* Proposamenak egin: *... eta zinemara bagoaz, zer?*
  - \* Aholkuak eman: *... eta honela egiten baduzu...?*
  - \* Ondorioak atera: *Bihar bagoaz, azoka ikusiko dugu.*
  - \* Baldintza jarri: *Euria egiten badu, ni etxean geratuko naiz.*
  - \* Truke / xantaiak egin: *Zuk bazkaria prestatzen baduzu, nik harrikoa egingo dut.*
- Kontutan hartu beharrekoa da “ba-” aditz aspektu desegokian jartzeko joera “*joan bagara edo joango bagara*” “*joaten bagara edo bagoaz*” jarri beharrean.
- Aditz lokuzioak finkatzeko ere lagungarria izango da baldintza erreala, hone-lako esaldietan:
  - \* *Kanpora joan nahi baduzu, joan zaitez.*
  - \* *Ahal badut, biharko egingo dizut.*

### Denborazkoak

- -*nean* forma izan ezik, beste guztiak partizipioarekin landuko dira ikastaro honetan, nahiz eta forma jokatuak (adib. -n bitartean) ulertu. Forma hauek erabiliz, ikasketariak denboraren antolamenduari dagozkion funtzio hauek burutu ahal izango ditu:
  - \* Prozesu sinpleen berri eskatu / eman, orainaldian eta iraganean: *Zer egin zenuen atzo? Autobusa hartu baino lehen, egunkaria erosi nuen. Eta zer egin zenuen gero?*
  - \* Instrukzioak eman: *Ordenagailua pizten duzunean, disketea sartu. Baina idatzi baino lehen, formatoa aukera ezazu, bestela...*
  - \* Ohituren berri eskatu eta eman: *Zer egiten duzu euria egiten duenean?*

### Erlatiboa

- Oinarrizko erabilera bakarrik landuko da ikastaro honetan, transformakuntza konplexurik egin gabe, bere egitura bereziagatik prozesu luzea eskatzen baitu. NOR kasuaren erlatibizazioa landuko da, singular eta pluralean. Ahozko ekoizpenean identifikazio mailan landuko da eta batez ere galderei erantzunez:
  - \* Identifikazioa: *Nor da Iñaki hori? Tabernan ikusi dugun (mutil)a; Zein da zure euritakoa? Txoriak dituen*

### Konparatiboak

- Oinarrizko formak (*baino ...-agoa, baino gehiago / gutxiago*) bakarrik landuko dira. Komenigarria da formari dagokion kalitate / kantitate bereizketa maila

honetan finkatuta gera dadin, hurrengo ikastaroetan landuko diren forma konplexuagoak erraztasunez burutu ahal izateko. Forma eliptikoa (“*nirea gehiago gustatzen zait*”) ere landuko da.

- Ahozko ekoizpenean honelako funtzioak burutuko ditu ikasketariak:
  - \* Objektu / pertsonak konparatu eta deskribatu: *Etxe hori oso polita da, nirea baino handiagoa ...*
  - \* Gustuak konparatu eta deskribatu: *TB ondo dago, baina irratia gehiago gustatzen zait.*
- “*zurea bezalakoa*”, “*aita bezalakoa*” kalifikatiborik gabeko konparazioak ere landuko dira, *bezain* eta *beste* formak 2.000 Atalerako utziko direlarik. *Bezala / bezalako* ohizko bereizketa konplexua hurrengo Ataletan aztertuko denez, nahikoa da oraingoz konparazio sinple eta erabilgarriak lantzea.
  - \* *Nolakoa da zure kotxea? Zurea bezalakoa.*
  - \* *Zure jertsea nirea bezalakoa da.*
  - \* *Zure poltsa hau bezalakoa da? Ez, handiagoa da.*

## Forma inpertsonalak

- Nk → N aditz forma inpertsonalak sistematikoki landuko dira 2.000 Atalean, baina badira ikasketariak klasean lehenengoz sartzen den une beretik behar dituen zenbait forma, hala nola, *Nola esaten da ...?* edo *Nola idazten da...?*. Beraz, honelako forma sinpleen errepertorio labur bat eskaini beharko zaio ikasketariari hasiera-hasieratik. Honekin batera egitura honek sortzen dituen akats tipiko hauek zaindu behar dira:
  - \* *Liburuan ipintzen da ... (du)*
  - \* *Zer esan nahi da ...? (du ...-ak?)*

## DISKURTSO LOTURAK

- Hasiera-hasieratik landuko dira, ikasketariak elkarrizketa “naturalak” mantendu ahal izateko, oso maila apalean bada ere.
- Entonazioa eta erritmoa lantzen hasiko da, ikasketariari hizkuntza mintzatuaren ereduak eskaintzen zaizkiolarik (elkarrizketa erreal eta laburren grabaketak).

## VI.1.2. NOZIOAK

### I. ENTITATE-NOZIOAK

#### 1 Izen bereziak

Pertsona eta leku-izenak.

#### 2 Izen arruntak

Bizidunak / bizigabeak (*ume, gizon / harri, bide*).

Bakunak: (*begi, esku, hitz, egun, erloju, ...*)

Eratorriak

Atzizkiak:

## Egileak

- \* -ari (-lari): *arraunlari, agintari, dendari, ...*
- \* -gile (-kile): *langile, gaizkile, ...*
- \* -le: *idazle, entzule, ikusle, ...*
- \* -tzaile: *laguntzaile, galtzaile, ...*
- \* -zain: *atezain, artzain, ...*

## Izen abstraktuak

- \* -keria: *txorakeria, alferkeria, ...*
- \* -tasun: *aberastasun, gaixotasun, trebetasun, ...*

### 3 Izenordainak

Pertsona-izenordainak: ● *ni, zu; gu, zuek*

Izenordain zehaztugabeak:

- \* galdetzaileak: *nor/ zein, zer (zer esan du? zer moduz dago?)*
- \* mugagabeak: *-beste*

### 4 Determinatzaileak

Mugatuak

Artikuluak: \* sing.: *-a*; plur.: *-ak*

Erakusleak

- \* forma: *hau, hori, hura / hauek, horiek. haiek*
- \* izenordain gisa erabiliak: *honek apurtu du, ez nik*
- \* determinatzaile gisa erabiliak: *mutiko honek apurtu du, ez nik*

Zenbatzaileak

Zehaztuak: \* zenbakiak: *bat, bi, hiru, lau, bost, ...*

Zehaztugabeak: \* *batzuk, asko, gutxi ; piska bat, apur bat, nahikoa*

Orokorrak: \* *guzti*

## II.A. EXISTENTZIA

### 6 Existentzia/inexistentzia

- \* izan, egon
  - kafea dago; folioak daude*
  - badago kaferik? badago foliorik?*
  - badago kafea; badaude folioak; ez dago kaferik; ez dago foliorik*
- \* eduki/ ukan, ekarri, gelditu, amaitu, bizi izan, hil
  - kafea ekarri dugu, gelditzen da, amaitu da*

### 7 Disponibilitatea/eza

- \* eduki, ukan/ ez eduki, ukan
- \* egon/ ez egon (*ez dago dirurik*)
- *libre, okupatuta/ -a, beteta/ -a*

### 8 Posibilitatea/eza

Posibilitatea/eza: \* *ezin izan; ahalera*

Ahalmena/ ezintasuna: \* *ezin izan; ahalera*

## II.B. ESPAZIOA

**9 Kokalekua**

- hemen, hor, han
- ohean, lur honetan,
- alde honetan
- barruan, kanpoan
- goian, behean
- lehenengo solairuan, bigarren...
- leku/toki/.../ guztietan
- Gasteizen, Iruñean, Donostian, Bilbon...

**10 Besteekiko posizioa**

Izen-sintagmak -(R)EN kasu-atzizkia hartzen duela: *nire, arbelaren, aulki honen, bion, bata bestearen...*

- \* *ondoan; aurrean, atzean; azpian, gainean; artean*
- \* *parean; ezkerrean, eskuinean*
- \* *barruan*

Izena kasu-atzizkirik gabe: *etxe, mahai, itzal, harri...*

- \* *ondoan; aurrean, atzean; azpian, gainean; artean*
- \* *barruan*

**11 Ordena**

- \* *lehena = aurrena, bigarrena, hirugarrena, ...azkena*

**12 Distantzia**

- *hurbil = gertu, urruti = urrun*
- *oso urruti*
- \* *X metro/ kilometro daude ...-tik ...-ra*

**13 Mugimendua**

Norabidea, abiapuntua

- \* *lekuak (adb. merkatu, Grezia) + -ra joan, heldu; -tik etorri, irten; -an geratu, geldialdia egin; -ra, -tik itzuli*
- *aurrera; atzera; barru; kanpo; goi, behe; ezker, eskuma/ eskubi/ eskuin*
- \* *hona, horra, hara; hemendik, hortik, handik*

Garraio-bidea

- *bizikleta, kotxe, autobus, tren, hegazkin/ abioi, itsasontzi/ barku,... + -z, -an joan, etorri; -a hartu; -ra sartu; -tik jaitsi*
- *oinez, igerian, hegan, korrika*

Aditzak

- *ibili, mugitu, gelditu, geldirik egon, ...*

## II.C. DENBORA

**14 Astea, eguna...**

- *astelehen, astearte, asteazken, ...*
- *goiz, eguerdi, arratsalde, gau*

- *Ze(r) ordu da? ordu bata, ordubiak eta bost, hirurak eta laurden, ordubi eta erdiak,...*
- *Ze(r) ordutan? ordu batean, ordubietan, hirurak eta hamarrean...*
- *aste, hile = hilabete*
- *urtarril, otsail, martxo, apiril, maiatz, ...*
- *udaberri, uda, udazken, negu*
- *Zein egun da (gaur)?*
- *Noiz? urtarrilaren 30ean, ...otsailaren 28an*
- *Gabonak, Aste Santua*
- *urtebetetze = egun*

## 15 Bestelako lexikoa

- *denbora, bolada, ...*
- *atsedenaldi, oporraldi*

## 16 Gertakariak denboran

Erreferentzia unetzat oraina hartzen dugula: noiz?

Orain

- *orain; gaur, aurten, hile (=hilabete) honetan; oraindik*

Iraganean

- *lehen; atzo, herenegun, atzo arratsaldean, atzo goizeko hamarretan,...*
- *lehengo egunean; iaz, iazko udan / neguan / martxoan...*
- *hil honen 1ean / 2an...; joan den (=pasa den) astean / hilean / urtean*
- *egun batean; aspaldi*
- \* *X urte nituenean (neuzkanean), X hilabeterekin / urterekin*
- *orain dela gutxi / astebete / bi urte ...*

Gero

- *gero, laster, berehala*
- *gaur arratsaldean, gaur gauean; bihar, bihar goizean, etzi*
- *datorren egunean / astezkenean / astean / hilean / ...*
- *X egun / aste barru*

## 17 Iraupena

Hitz egiten dugun unea erreferentziazat hartuta

Iraganetik hona

- *atzotik; asteazkenetik; aspalditik*

Hemendik aurrera

- *hemendik aurrera, aurrerantzean, datozen eguetan / asteetan*

Iraganeko une batetik bestera

- *iaz arte*

Erreferentzia jakinik gabekoak

- *goizetik gauera / astelehenetik larunbatera / otsailetik ekainera / arte*

## 18 Maiztasuna

- *inoiz ez; batzuetan, gutxitan; normalean; askotan; beti*
- *berrito, berriz*



Zenbat aldiz?

- *behin; bi aldiz/bider = birritan = bitan; hiru aldiz/bider = hirutan , lau aldiz*

## 19 Sekuentzia

- *aurrena, lehenengo (eta behin)*
- *gero, ondoren*
- *azkenean, azkenik*

## II.D. DIMENTSIOAK, MAGNITUDEAK

## 20 Tamainua

- *handi, txiki, zabal, hestu, altu, baxu, luze, labur, lodi, mehe, sakon...*
- *graduatazaileak (ikus. gradua)*

## 21 Luzera, altuera...

- *unitateak: kilometro (Km), metro (m), zentimetro (cm), milimetro (mm), ...*

Luzera: *luze, labur*

Altuera: *altu, garai, luze, baxu*

Zabalera: *zabal, estu*

## 22 Pisua

- *unitateak: kilo(gramo) (Kg), gramo, tona*
- *astun, asko pisatu*
- *arin, gutxi pisatu*
- *lodi, argal, mehe, ...*
- *loditu (izan), argaldu (izan), ...*
- *zenbat pisatzen du? 60 kilo pisatzen du*

## 23 Bolumena/edukiera

- *unitateak: litro (L)*
- *litro erdi, litro laurden; litro eta erdi, litro eta laurden*
- *bete/ hustu; beteta/ hutsik*

## 24 Temperatura

- *bero, hotz, epel, fresko*
- *hotz, bero, epel, fresko egiten du*
- *temperatura, giro, eguraldi atsegina, ...*

## 25 Adina

- *unitateak: urte, hil/ hilabete*
- *haur, ume; mutiko, neskatila, nerabe (=gaztetxo), gazte; heldu, zahar*
- *urteak bete; norbaiten eguna, urtebetetzea izan*
- \* *X urte eduki; X urtean jaioa izan/ jaio (izan)*

## 26 Abiadura

- *arin, agudo, azkar, korrika, ... egin, etorri, joan, ibili, ....*
- *astiro, poliki, patxadaz, ... egin, etorri, ...*

## II.E. KUANTIFIKAZIOA

**27 Kopurua**

Singularra/ plurala (gramatika): *herria, herriak*

Kopuru zehaztuak

Zenbaki kardinalak

- \* zenbakia + izena: *herri bat, (bi) herri (bi), zazpi herri*
- \* funtzio gramatikala:
  - zazpiak dira (orduak); abuztuaren zazpia (fexak)*
  - zazpi eta hiru hamar dira (eragiketa matematikoak) (izord.)*
  - zazpi herri (izlag.)*
- *zatikiak: erdi, heren, laurden, bosten, seiren, ...; erdia/ erdiak*

Kopuru zehaztugabea

- \* *bat ere ez; batzuk, gutxi; asko; guztiak; beste bat, bi, ...*
- \* *zenb. + gehiago, gutxiago: bi gehiago, hiru urte gutxiago*

**28 Kantitatea**

Zehaztugabea

- \* *pixka bat,apur bat; nahikoa; osoa; guztia; dena*

**29 Kuantifikazioa zehaztasunik gabe**

- *zenbakia + gutxi gora behera*
- \* *zenbakia + baino gehiago/ gutxiago*
- *ia + zenbakia*

**30 Gradua**

- \* *oso interesgarria; zein azkarra!; azkar-azkarra; ez da batere azkarra*
- \* *nahikoa aberatsa*

## II.F. KUALITATEAK

**31 Kualitatearen adierazpena**

Izenondoak

Bakunak

- *atsegin, borobil, dotore, ezagun, garden, itsusi, lasai, oker, ...*

Eratorkiak

- *-tar: bilbotar, gasteiztar*

Izenlagunak

Adberbioa + -KO

- \* *etxeko lanak, itsasoko bizitza, ...*
- \* *kristalezko lanpara, urrezko katea, igeltsozko irudia, ...*

**32 Kualitate fisikoak**

Forma

- *borobil, karratu, zuzen, oker*

## Zaporea

- *gozo (azukrea), gazi (kresala), geza*
- *gustu/ zapore ona/ txarra du/ dauka*
- *gozoa, ... da*
- *gozo(a), ... dago*

## Usaina

- *usain ona/ txarra egon/ bota/ hartu/ eduki*

## Ukimena

- *latz, gogor, leun, bigun,*
- *ikutu*

## Kolora

- *urdin/azul, beltz, marroi, berde, gris, laranja, gorri, zuri, hori, arrosa, more*
- *kolore + kol. izena: kolore gorria, kolore horia, ...*
- \* *izena + kolorea: jertse urdina, zapata beltzak, ...*
- *koloretako telebista, ...*

## Materialak

- *metal, urre, zilar, plastiko, larru, zur/ egur, artil, altzairu, kristal, ...*
- \* *mat. + -zko: metalezko aulkia, urrezko eraztuna, ...*

**33 Pertsonarenak**

## Jatorria

- *leku-izena + -n jaio/ sortu: Zarautzen jaio nintzen, Barakaldon jaioa*
- *leku-izena + -koa izan: Gasteizkoa naiz, Bergarakoa da*
- *leku-izena + -(t)ar izan: nafarrak dira, durangarrak gara*

## Sexoa

Femeninoa/ maskulinoa: *emakume, andre/ gizon, jaun; emazte/ senar; neska/ mutil*

Neutroa: *pertsona, haur*

**34 Balorazioak**

## Balioa / prezioa

- *zerbait garesti, merke/ dohainik izan, egon, eman, erosi, saldu, ...*
- *angulak garestiak dira; sagarrak merke(ak) daude gaur*
- *balio (du): zenbat balio du/ dute?*
- *kostatu (da, zaio): zenbat kostatu zaizu?*

## Onargarritasuna / eza

- \* *ondo/ txarto-gaizki egon*
- \* *konforme, ados egon/ conforme, ados ez egon*

## Desiragarritasuna / eza

- \* *nahi/ gura izan, ...-tzeko gogoia*
- \* *zerbait nahi: umeak bizikleta bat nahi du*

## III. HARREMAN-NOZIOAK:

**35 Berdintasuna**

Entitateen arteko berdintasuna

- berdin: *hiru etxeak berdinak dira*
- \* ...(ren)a bezalako: *jauregia bezalako etxea, zurea bezalako orrazkera*

**36 Desberdintasuna, kontrastea**

Entitateak

- *desberdin, diferente*
- \* *ukapena: berdin ez izatea; ...-rena, ...-koa, ...-a bezalakoa ez izan; gauza bera ez izatea, bat ez izatea*

Kualitateak

- \* *izenondoa: Iñaki setatiagoa da Jose Ignazio baino*

**VI.1.3. BUKAERAKO GAITASUNA**

## AHOZKO ADIERAZPENA

Atal honen bukaeran, ikasketariak eguneroko elkarrizketa arruntetan parte hartu ahal izango du, nahiz eta diskurtsoa antolatzeko izango dituen zailtasunengatik, kanpotiko laguntzak beharko dituen, hala nola, solaskidearen galderak eta estimuloak nahiz euskarri materialak (testu idatzi laburrak, irudiak, entzutezko testuak ...). Bestalde, elkarrizketarako zenbait estrategia eskuratuak izango ditu, hau da, ez duela ulertu adieraztea, errepikatzeke eskatzea, e.a. Aipatutako baldintzetan, gai izango da:

- narrazio laburrak antolatzeke (biografiak, gertaera sinpleak, ipuinak,...),
- instrukzioak emateke (joko eta jolasetako arauak, sukaldeko errezetak, tresnen erabilerak, helbideak, sendabideak...),
- elkarrizketa laburrak burutzeke (agurrak, aurkezpenak eta kunplimenduak, proposamenak eta planak, laguntza eskaera nahiz eskaintzak, informazio trukeak, obligazio, baimen, mehatxu, aholku, zaletasun, posibilitate eta ezintasunari buruzko galderak eta erantzunak...).

## ENTZUTEZKO ULERMENA

Ikasketariak parte hartzen duen elkarrizketetan, solaskideek esaten dutena/diotena orokorrean ulertu ahal izango du, jasotzen dituen instrukzioak egoki interpretatuko ditu eta oztupoak dituenen, lehenago aipatutako elkarrizketarako estrategiak erabiliko ditu.

Honez gain, 1.000 Atalaren bukaeran ikasketaria komunikabideetako saio arruntetan entzuten ohituta egongo da eta informazio nagusia ateratzeko gai izango da. Kontutan hartzekoa da betiere errazago izango zaiola elementu paralinguistikoak eskaintzen dizkion mezuak (telebista) ulertzea eskaintzen ez dizkionak baino (irratia).

## IDATZIZKO ADIERAZPENA

Ahozko adierazpenak eta entzutezko ulermenak izango dute garrantzirik handiena. Ikasketariak, hizkuntza kolokialek hurbilen dauden testu-tipoak (postalak, telefonoz jasotako errekaduak, oharrak,...) erraz idatziko ditu.

Bestalde, estilo formalagoa eskatzen duten testu sinpleak ere (biografia laburrak, inprimakiak, instrukzio sinpleak ...) idatziko ditu, erregistro ezberdinen arteko aldeak bereiziz.

### IRAKURRIAREN ULERMENA

Ikasketaria era ezberdinetako benetako testuak irakurri eta ulertzeko gai izango da, betiere laburrak eta sinpleak direnean. Informazio nagusia atera ahal izango du eta ulertzen ez duena testuingurutik inferituz edota hiztegiak baliatuz ulertuko du.

Ikasketaria gai izango da hurrengo testu mota hauek ulertzeko:

- narrazio sinpleak: egunkarietako berri laburrak, umeentzako ipuinak ...
- deskribapenak: argazki-oinak, publizitatea, testu-liburu errazetako testu-zatiak ...
- instrukzio-testuak: errezetak, horoskopoa, larrialdietarako neurriak ...
- azalpen-testuak: agenda informatiboak...

## VI.2. 2.000 ATALA

## VI.2.1. HIZKUNTZ EGITURAK

## MORFOLOGIA

**Deklinabidea**

Izenen deklinabidea

- izen propioak/ izen arruntak
- bizigabeak/ bizidunak
- Sing, Pl. eta Mugg.: forma ohikoenak
- bizidunak: forma ohizkoenak

Bestelakoak

- erakusleak eta euren forma indartuak (hau, hauxe)
- galdetzaileak eta izenordain mugagabeak (nor, zer...; norbait, zerbait...; inor, ezer...)
- zenbatzaileak (bat, bi...; batzuk, asko, gutxi, ...)
- adberbioak (hemen, hor, han; ...)

	MGG.	SING.	PLU.
Nor/ Zer	*	*	*
Zerik	*		
Nork/ Zerk	*	*	*
Nori/ Zeri	*	*	*
Non	*	*	*
Nongo	*	*	*
Nora	*	*	*
Norantz	*	*	*
Noraino			
Nondik	*	*	*
Noren	*	*	*
Norekin	*	*	*
Nortaz/ Zerez	*	*	*
Norengatik	*	*	*
Norentzat	*	*	*
Norako	*	*	*
Zertzat			

**Galdetzaileak**

- zer, zertan, zertarako, zergatik, ...
- nor, nork, nori, ...
- noiz, noiztik, noizko, ...
- zein, zeinek, zeinetan, zeinetatik, ...
- zenbat, zenbatek, zenbati, zenbatetan, ...
- nola/ zelan
- galdera konplexuak: zer ordutatik zer ordutara, zenbatetik zenbatera, zenbat ordutan...

**Izenordainak**

Izenordain mugagabeak

- norbait, zerbait
- Inor, ezer
- dena/ denak

**Determinatzaileak**

Artikulua. Plural hurbila: -ok

Erakusleak

- forma indartuak: hauxe, horixe, bera; hauexek,...

Zenbatzaileak

- oso (tarta osoa)
- zenbait
- zenbatzaileen aditzarekiko komunztadura

Nolakotzaileak

- edozein
- beste (+ izena + mugatz./ + zenbatz.)

**Gradua**

- lokuzioak: gero eta ...-ago, askoz ... -ago
- atzizkiak: -xe; -txo

**Prozedura indartzaileak**

- -xe/ -txe (hauxe, hementxe)
- bertan (hementxe bertan, bihar bertan)
- errepikapena: polit-polita

**Txiki-handigarriak:** -txo; -tzar, -kote**Adberbioa**

Mugagabeak

- i-/ e- + gald.: inon, inoiz, inola, ...

Maila aditzondoak:

- guztiz, izugarri, ikaragarri
- hain; erdi

Eritzi aditzondoak

- agian, behar bada, noski, jakina

**Posposizioak**

- IS + -ø/ -ren/ -ri/ -an/ -tik + posposizioa + -ø/ -z/ -an alde, aurka/ kontra, begira, bide, bila, buru, inguru, kanpo, zain, zehar

**Aditz izena**

- -tzea, tzera, tzeko, tzearekin

**Atzizkiak**

- -kada, -gailu, -aldi, -tegi
- -garri, -ti, -tsu, -gaitz, -dun
- -ka (harrika)

**Hitz elkartuak**

Izena + izena

- Koordinazio elkarteak: seme-alabak, neba-arrebak
- Menpekotasunezkoak. Erabilienak: fisika mintegia

<b>MORFOLOGIA: ADITZA</b>	<b>SINTAXIA</b>
<p><b>Indikatiboko lehenaldia</b></p> <p>Laguntzailea: N, Nk, N-Ni, Z-Ni-Nk Trinkoak: Joan, Etorri, Ibili, Jakin, Ekarri, Eraman</p> <p><b>Lehenaldiko aspektuak</b></p> <p>Nentorren, etorri / -tzen / -ko nintzen</p> <p><b>Aditz lokutiboen berrikusketa</b></p> <p>behar dut / behar izan dut; ezin dut / ezin izan dut</p> <p><b>Baldintza hipotetikoak</b></p> <p>N, Nk, N-Ni, Z-Ni-Nk</p> <p><b>Agintera</b></p> <p>ie zadazu(e), iezaiozu(e), ... dadila / dezala daitezela / dezatela</p> <p><b>Ahalezko orainaldia</b></p> <p>diezaiokezu / diezadakezu</p>	<p><b>Nominalizazioa</b></p> <p>-tzea, -tzera, -tzeko, -tzearekin</p> <p><b>Konparatiboak</b></p> <p>bezain, beste, hain, hainbeste</p> <p><b>Erlatiboa</b></p> <p>Deklinatu osorik, -tako</p> <p><b>Kontzesiboak:</b> ba- ere, arren</p> <p><b>Denborazkoak</b></p> <p>-n bitartean / bakoitzean / guztietan / gehienetan, -netik</p> <p><b>Baldintzaren ordezkioak:</b> -z gero / ezean</p> <p><b>Moduzkoak:</b> -n bezala (moduan)</p> <p><b>Zergatikakoak</b></p> <p>bait, zeren (eta), -tzeagatik, zer dela eta</p> <p><b>Modu-denborazkoa:</b> -la (rik)</p> <p><b>Jerundiala:</b> -Z</p> <p><b>Subjuntiboaren ordezkioa:</b> -tzea</p> <p><b>Forma inpersonalak:</b> Nk → N</p> <p><b>Zehar estiloa:</b> orain eta lehenaldia</p> <p><b>Zehar galdera:</b> harridurazkoa</p>

<b>DISKURTSO LOTURAK</b>
--------------------------

Beharbada, agian, baita ere, ezta ere, baizik, berriz, ezik,
--

## MORFOLOGIA

## Deklinabidea

- Kasu guztiak landuko dira singular eta pluralean. Mugagabea ZEIN eta ZENBAT galdetzaileekin landuko da batez ere, kasurik erabilienekin. Honez gain, zenbaki kardinalen deklinabidea landuko da eta , baita ere, ASKO, GUTXI eta antzerako formena.

**-KO deskribatzailea**

- (izena + KO izena) moduko kalifikatiboak (*17 urteKO mutila*) hasiko dira lantzen, ez oso intentsiboki , baina bai eguneroko hizkuntzan maiztasun handia duten adibideetan.

**Indefinituak (Inoiz, inor)**

- Hauen erabilera konplexu samarra denez, maila honetan sinplifikazio bat egingo da: ezezko formak (INOR / -K / -I / -EKIN, EZER, INOIZ, INON) alde batetik eta baiezkoak (NORBAIT / -K / -I / -EKIN, ZERBAIT, NOIZBAIT, NONBAIT) bestetik. Ikasketariaren behar komunikatiboek, agian, ezezko formak eskatuko dituzte gehienbat. Beraz, ezezko forma hauek landu behar dira egoera arruntetan (adib. "ez dut ezer egin asteburuan") nolabaiteko automatismoa lortu arte. Erantzun laburretako forma eliptikoak (adib. "ezer ez" "inoiz ez") ere landuko dira .
- Forma hauek (Inor, inoiz, ...) ez dira landuko sistematikoki ez galderetan ("Inoiz egon zara Alemanian?") ezta ere baiezko erantzunetan ("Bai, inoiz ikusi ditut holakoak..."), nahiz eta ikasletaria ulertzeko gai izan.

**Atzizkiak**

- Atzizkiak lantzearen helburu nagusiak bi dira: alde batetik, euskal lexikoaren funtzionamenduaren ikuspegi orokor bat hartzea eta, bestetik, hitz ezezagunak ulertzen edota ikasitakoak gogoratzen laguntzea.
- Kontutan hartzekoa da ikasketariak lexikoa testuinguruan finkatu behar duela eta ez inolako lotura semantikorik ez duten hitz zerrendetan. Beraz, ez da gomendatzen atzizki jakinik lantzea harik eta ikasketariak nahikoa adibide ezagutu arte.

## MORFOLOGIA: ADITZA

**Indikatiboko Lehenaldia**

- N, Nk laguntzaileak 1. Atalean lantzen badira ere, gainerako guztiekin batera landuko dira.
- Zehar estiloa atal honetan ere sakonki landu behar denez, Z-Ni-Nk formarik erabilienak praktikatzeko erabil daiteke hurrengo funtzio hauekin:
  - \* Ikasketariak berak izandako elkarrizketen berri eman: *Zer moduz nengoen galdetu zidan. Ondo nengoela erantzun nion*
  - \* Solaskideak izandako elkarrizketen berri eskatu: *eta zer esan zizun? Eta zuk zer erantzun zenion?*



- \* 3.pertsonek izandako elkarrizketen berri eskatu eta eman (komunikabideak barne): *...eta galdetu zion noiz bukatuko duen filme berria...*
- Aditz forma trinkoekin ere nolabaiteko automatismoa lortu behar da, betiere kontutan hartuta aditz eta pertsona guztiek hizkuntza errealean ez daukatela maiztasun bera.
- Sintaxiaren edukinen artean –LA denborazkoa agertzen denez, iraganeko trinkoekin batera lantzea gomendatzen da, eguneroko hizkuntzan ere sarritan elkarrekin agertzen baitira., denbora-erreferentziak adierazteko (adib, *Etxera nindoala, Mikel ikusi nuen ... Bueltaka nenbilela ...*)

## Iraganeko Aspektuak

- 1.000 Atalean orainaldiko formekin bezalaxe egingo da hemen ere. Helburua ikasketariak aspektuen arteko bereizketa argi ulertu eta erabiltzea da.  
Egon nintzen (ekintza burutuak) Egoten nintzen (ohiturak) Nengoen(egoerak/ekintza burutu gabeak)
- Aipatu beharrekoa da erdarazko “pluscuamperfecto” formaren trataera. Honi erantzunez, ahozko benetako baliabideak (“ikusita neukan”) landuko dira eta ez, berriz, baliabide literarioak (“ikusia nuen”).
- Ikasketariak ez du lortuko aditz aspektua hitzun arruntak bezala erabiltzea. Hala ere, kontakizun konplexuak ez direnean, aspektuak erraztasun eta “naturaltasunez” erabiltzea lortuko du atal honetan, denbora egoki adierazteko ezinbestekoa bait da eguneroko komunikazioan hain funtsezkoak diren hurrengo funtzio hauetan:
  - \* Iraganeko ohituren berri eskatu eta eman: *Txikitan egunero joaten ginen basora... Eta zer egiten zenuen han?*
  - \* Esperientzien berri eskatu eta eman: *Iaz Gabonetan Kanarietara joan ginen. Goizean hondartzara joaten ginen...*
  - \* Iraganeko egoeren berri eskatu eta eman: *...dena isilik zegoen... eta han lasai geundela, behi bat etorri zen...*
  - \* Entzun/esandakoaren berri eskatu eta eman: *Gazte batek dirua eskatu zidan. Dirurik ez neukala esan nion eta...*
  - \* Gertaera historikoen berri eskatu eta eman: *Erromatarrak Ampuriasera heldu zirenean, ...*

## Aditz lokutiboen berrikusketa

- *behar dut / behar izan dut, ezin dut / ezin izan dut* formak bakarrik landuko dira, gela barneko eguneroko dinamikan sekulako garrantzia dutelako. Ikasketariak ondo bereiztu behar ditu eta, baita ere, eguneroko egoera arruntetan erraztasunez erabili. Adibidez, berandu datorrenean *Barkatu, baina Mufacerra joan behar IZAN dut* edo *Barkatu, baina ezin IZAN naiz lehenago etorri* automatikoki esaten jakingo du. Era berean, lehenago irten behar denean *Es-kolara joan behar dut* edo *Bihar ezin naiz (naiteke) etorri* inolako oztoporik gabe esango du. Bi forma hauek ondo ulertu eta finkatuz gero, askoz errazago erabiliko dituzte gainerako aditz lokutibo guztiak. Eguneroko bizitzan hain arruntak diren bi funtzio hauek landuko dira forma hauekin:
  - \* Gertatutako zerbaiten azalpena eman: *Ezin izan dizut liburua ekarri... amaren etxera joan behar izan dut*
  - \* Aitzakia: *Idazlana? Ba... ezin izan dut egin... bankura joan behar izan dut eta ...*

- Aditz lokutiboen iraganeko aspektuak ez dira sistematikoki landuko atal honetan, nahiz eta ikasketaria, analogiaz, ulertu eta inoiz erabiltzeko gai izan.

## Agintera

- 1.000 Atalean ikasitako formak (*Zaitetz, Ezazu*) berrikusteaz gain, Z-Ni-Nk sistemari dagozkion beste batzuk landuko dira, hauek hain zuzen ere: *lezaiozu(e), lezaiezu(e), lezadazu(e), lezaguzu(e)*, ikasketariak honelako funtzioak bete ahal izateko:
  - \* Aginduak eman: *Ez lezadazu borragoma ken!!*
  - \* Mesedeak eskatu: *Utz lezadazu borragoma, mesedez*
  - \* Aholkuak eman: *Galde lezaiozu Koldori, berak jakingo du...*
  - \* Errekaduak eman: *Ikusten duzunean, esan lezaiozu berarekin hitz egin nahi dudala*
- Forma trinkorik erabilienak (*emadazu, esadazu*) ere landuko dira.
- Aginteraren esparrua osatzen joateko, 3. pertsonari dagozkion formarik sinpleenak (*dadila, dezala*) ere landuko dira erabilera mugatu batean, betiere -LA konpletiboa erantsita. Ikasketariak honelako funtzioak burutzeko erabiliko ditu forma hauek:
  - \* 3. pertsonentzako aholkuak eman: *Gaixorik badago, etxean gera dadila*
  - \* Nahiak, desioak adierazi: *Pikutara joan dadila!*
  - \* 3. pertsonentzako aginduak eman (entzulego handi baten aurrean batez ere): *Azkenak atea itxi dezala, mesedez. Ez dezala inork kopia! Komunera joan nahi duena orain joan dadila!*

## Ahalera

- 1.000 Atalean ikasitako formak (*naiteke... ; dezaket...*) berrikusteaz gain, Z-Ni-Nk sistemari dagozkion formarik erabilienak (*diezaiokezu, diezadakezu, ...*) landuko dira. Honen helburua, ikasketariaren adierazteko gaitasuna hedatzeaz gain, aginteran ikasitako formak (*iezadazu, lezaiozu*) ahaleran ere ikustea da, honela aditz-modu ezberdinen erabileraz apurka-apurka jabetzen joan dadin
  - \* Mesedeak eskatu: *Gatza pasa diezadakezu, mesedez?*
  - \* Aholkuak eman: *Koldori galde diezaiokezu...*
  - \* Proposamenak egin: *Opari bat egin diezaiokegu ...*
- Garrantzitsua da forma hauek ikastearekin batera ikasketaria Indikatibo, Agintera eta Ahalkeraren arteko ezberdintasunez jabe dadin, hots, (*du - - dezake - - dezala / diozu - - diezaiokezu - - diezaiola*) modu bakoitzak bere ezaugarriak dituela jakin eta ezaugarriok oinarritzko maila batean identifika eta beregana ditzan. Honen helburu zuzena ikasketaria euskal aditzaren funtzionamendua hasiera-hasieratik ulertzen eta bereganatzen joatea da.

## Baldintza Hipotetikoa

- Baldintza hipotetikoarekin ikasketariaren behar komunikatiboen arlo zabal eta garrantzitsu bat irekitzen da: etorkizunerako hipotesi eta konjeturena. Arlo honen eguneroko hizkuntzan daukan pisua eta garrantzia kontutan hartuta, ezinbestekoa da 2.000 Atal honetan baldintza hipotetikoa ikusten hastea. Forma guztiak, jakina, ez dira landuko, erabilienak baizik, baina komenigarria da, aurreko atalean aditz sistemari buruz esandakoaren ildotik, ikasketariak baldintza hipotetikoaren egitura ikastea. Beraz, N (banintz...; nintzateke...) eta Nk (banu...; nuke...) formak landuko dira.

- N-Ni eta Z-Ni-Nk formakoak ez dira hain sistematikoki landuko, 3.000 Atalean berriro ikusiko baitira, baina bai eguneroko komunikaziorako behar-beharrezkoak diren “formula” batzuk, adibidez “...-tea gustatuko litzaidake”, “*loteria tokatuko balitzait, eszedentzia eskatuko nuke*”, honelako funtzioak burutu ahal izateko:

- \* Ondorioak atera: *Horrela balitz, hamarretan etorriko ginateke...*
- \* Aholkuak eman: *Nik ez nuke ezer esango... Ondo etorriko litzaizuke ...-tea*
- \* Proposamenak egin: *...eta txango bat egingo bagenu...?*
- \* Nahiak / ametsak adierazi: *Hemeretzi urte izango banitu!*
- \* Asmo / planen berri eman: *Niri Italiara joatea gustatuko litzaidake, baina berak ez du nahi...*

## SINTAXIA

### Nominalizazioa

- -tzea forma 1.000 Atalean landu zen bezalaxe berrikusiko da honetan ere. Hortik aparte, subjuntiboaren ordeztu bezala lantzen hasiko da (*zuk egitea nahi du, hemen geratzea nahiago dut, Gabonetan familia osoa etxera etortzea gustatuko litzaidake*).
- -tzera forma mugimenduzko aditzekin erabiltzeaz gain, *animatu, zigortu, behartu* eta antzerako aditzekin landuko da.
- -tzeko forma, helburuzko esaldietatik aparte, zeharkako aginduekin batera ere landuko da, 1.000 Atalean ikasitakoaren berrikusketa gisa (*hemen geratzeko esan digu / zigun*).
- -tzearekin forma, batez ere, iritziak eta adostasuna adierazteko landuko da (*ados nago idazlanak egitearekin*). Denborazko esaldietan (...-tzearekin batera) ez da landuko, nahiz eta ikasketariak esaldiak ulertu eta, agian, erabili.

### Konparatiboak

- Berdintasun mailako konparaketak (*bezain, beste*) landuko dira eta, bide batez, 1.000 Atalean ikusitakoak berrikusi. Graduataileak (*hain, hainbeste*) ere landu beharko dira, eguneroko hizkuntza arruntean garrantzi handia baitaude.
- Superlatiboa ere landuko da, baina forma ez oso konplexuetan (“*munduko herririk politena*”).

### Erlatiboa

- 1.000 Atalean ikasitakoa sakondu egingo da hemen, egitura eta erabilera konplexuagoko ariketekin, ikasketaria hurrengoak bezalako funtzioak burutzeko gai izateko:
  - \* Definizioak egin: Neron: *Erroma osoa erre zuen enperadorea*; Zikoina: *Umeak Parisetik ekartzen dituen hegaztia*
  - \* Identifikazioa / deskribapena: *Teilatu beltza duen etxean bizi naiz*

### Kontzesiboak

- 1.000 Atalean “*Nahiz eta + partizipioa*” forma lantzen denez, aukerako balia-bideak eskaini eta landuko dira hemen, hain zuzen ere *ba-... + ere eta partizipioa + arren*.

## Denborazkoak

- 1.000 Atalean ikusitako formak (*eta gero, ondoren, baino lehen*) berrikustez gain, erlatiboa eskatzen duten formak landuko dira. Beraz, erlatiboa praktikatzeko aukera eskaintzen du honek. Bestalde, 1.000 Atalean denboraren sekuentziario lineala egiten zen, baina atal honetan landuko diren formekin (adib. *-n bitartean*) ikasketaria sekuentziario bikoitzak egin ahal izango ditu, maila apal batean, jakina. Adibidez:

- \* *Zuk harrikoa egiten duzun bitartean, nik txakurra aterako dut*
- \* *TB ikusten duzun bitartean ezin duzu beste ezer egin*

- Bestalde ohiturazko formak ere landuko dira hemen, adibidez, *zinemara joaten naizen guztietan negar egiten dut*, ohiturazko orainaldia eta lehenaldia erabili eta praktikatzeko aukera eskaintzen dutelarik.

## Baldintzaren ordezkioak

- *-z gero / ezean*. Forma hauek irakatsi eta lantzerakoan oso garrantzitsua da eguneroko hizkuntzan duten erabilera kontutan hartzea, zeren ez baitute baldintza ordezkatzeko beronen erabilera guztietan, kasu jakinetan izan ezik. Eta honen arabera irakatsi beharko dira ikasgelan, zein kasutan erabil daitezkeen oso ondo azpimarraturik. Beraz, *-z gero / ezean* formak bakar-bakarrik irakatsi eta landuko dira elkarrizketa-mailan eta forma inpersonal eta jakinetan, adibidez, *Nahi izanez gero, Ahal izanez gero, Eguraldi ona eginez gero, bai*.
- Gainerako erabilera ezberdin guztietan BA- formakoak landuko dira, adibidez,
  - \* Mehatxuak egin: *Honela segitzen baduzu, jo egingo zaitut.*
  - \* Aholkuak eman: *Arratsaldea libre badaukazu, joan zaitez hondartzara...*
- Eguneroko erabileraz gain, kontutan hartzekoa da, baita ere, 2.000 Atal honetan baldintza hipotetikoak lantzen hasten dela eta, beraz, baldintzaren ordezkio hauek gehiegi erabiltzea benetako formen lanketarako oztopo bihurtu litekeela.

## Moduzkoak

- *-n bezala* formari emango zaio lehentasuna atal honetan, beste formak baino erabilera zabalagoa baitu. *-nez* forma kasu jakinetan bakarrik landuko da, batez ere azalpenak ematerakoan (*ikusten duzue, zuk esan duzue...*), baina maila honetan *-n bezala* ondo bereganatu eta erabiltzea nahikoa litzateke.

## Zergatikakoak

- *bait eta zeren (eta)* formak 1.000 Atalean ikusitako ... *eta* formaren osagarri bezala landuko dira, hots, azalpeneko kausal bezala.
- *Zer dela eta* forma elkarrizketa mailan bakarrik landuko da eta, batez ere, galderak egiteko, adibidez, *zer dela eta zatoz hain berandu?*

## Modu-denborazkoak

- Denbora adierazteko baliabide bezala bakarrik landuko da, batez ere iraganeko trinkoekin batera, denbora-erreferentziak emateko (*etxera nindoala, han nengoela, irtetzera nindoala...*).

## Jerundiala

- *-Z* jerundiala erabilpen mugatu batean lantzen hasiko da, ikasketariak jerundial aktiboaren ideia adierazi ahal izateko. Maila honetan ideia hau adierazteko

ikasketariaren berezko joera *-ten* nominalizazioa erabiltzea izaten denez, *-Z* jerundiala eskainiko zaio hutsunea betetzeko.

### Subjuntiboaren ordezkoa

- *-tea* forma 1.000 Ataleko erabilera mugatua hedatu egingo da, batez ere subjuntiboaren ordezko bezala nahiak, desioak, etabar adierazteko (*Mendira joan nahi dut - - ZU mendira joatea nahi dut*).
- \* Nahiak adierazi: *Zu joatea nahiago dut / nuke*
- \* Konparaketak egin: *Errazagoa da zuk eskuz egitea nik makinaz egitea baino*
- \* Aholkuak eman: *Beraiek egitea komeni zaizu...*

### Forma inpertsonalak

- 1.000 Ataleko erabilera mugatua hedatu egingo da. Nk → N formez gain, Z-Ni-Nk → N-Ni forma batzuk ere landuko dira, adibidez:
  - \* *Ezin da erre hemen*
  - \* *Berotzen utzi behar da*
  - \* *Oso erraz lortzen da hori*
  - \* *Garrantzi handiagoa eman behar zaio ...-ari*
  - \* *Erabili baino lehen estalkia kendu behar zaio*
  - \* *Orri bat banatuko zaizue...*

### Zehar estiloa

- 2.000 Atal honetan, ikasketariak bereganatu dituen hizkuntz baliabide guztiekin landu beharko da, batez ere iraganean. Ulermen maila askoz altuagoa duenez, askoz gauza gehiago kontatzeko gai da. Beraz, ulermen maila hau aprobetxatuz, zehar estiloa komunikabideak, elkarrizketak etabarrekin landuko da, honelako funtzioetan:
  - \* Elkarrizketen berri eskatu / eman: *Zer moduz zegoen galdetu diot / nion, eta ondo zegoela erantzun dit / zidan*
  - \* Komunikabideetan (entrebistak, mahai inguruak) entzundakoaren berri eskatu / eman: *Hasieran bere iritzia emateko eskatu zion, baina berak esan zuen ...*
  - \* Egunkari / liburu / aldizkarietan irakurritakoaren berri eskatu / eman
  - \* Filme / TB / bideoan ikusitakoaren berri eskatu / eman.
- 1.000 Atalean zehar estiloa lantzearen helburua esaldi sinpleekin nolabaiteko automatismoa lortzea zen (*-la, -n, -teko* formak bereiztu eta maila apal batean erabili). Orain automatismo askoz handiagoa lortu behar du ikasketariak. Zehar estilo honen barruan edozein egitura ager daitekeenez, oso probetxugarria izango da ikasitako egiturak berrikusi eta finkatzeko, adibidez iraganeko aspektuak, etab.
- Iraganeko aspektuei dagokienez, aipatu beharrekoa da elkarrizketa iraganatuak lantzearekin batera sortu ohi den zalantza, hots, *5etan etorriko ZELA esan zidan* moduko esaldiak. Gazteleratik begiratuta baldintza hipotetikoarekin nahasteko joera handia dago maila honetan. Konponbidea ez da erreza, baina komenigarria litzateke bakoitzak bere esparru naturala har dezan, azalpen gramatikal gehiegirik eman gabe. Hala ere, interferentziak ezinbestekoak dira maila honetan. Ikasketariak interferentzia hau gainditzeko elkarrizketa labur idatziak erabiltzea gomendatzen da, iraganeko zehar estiloan berridazteko, eta alderantziz. Adibidez,

A: Badakizu norekin egon naizen?

B: Ez... esaten ez badidazu...

A: Mikelekin!

B: Eta zer kontaktzen du, ba?

A: Primeran dagoela eta arratsaldean etxera etorriko dela. Zu ere animatuko zara?

B: Bai, bai. Ikusteko gogoia daukat... 4etan han egongo naiz

- Honelako elkarrizketak laguntza handikoak dira zehar estiloaren mekanismoak finkatzeko, ez bakarrik 3. pertsonan; rolak aldatuz, 1 eta 2.ean ere lan daitezke. Kontutan hartzekoa da azken helburua zehar estiloa ahoz erabiltzea dela, ez dela mugatzen paper baten gainean behar diren transformazioak egitera. Beraz, ikasketariak praktika apur bat hartu ondoren, honelako ariketak ahoz egitea gomendatzen da, mekanismoak finkatzearen.
- *dadila* eta *dezala* formak aginteran ikusten badira ere, ez da gomendatzen zehar estiloarekin batera erabiltzea, subjuntiboaren erabilera 3.000 Atalean ikusiko baita. Beraz elkarrizketen berri ematerakoan, -TZEKO forma erabiliko da subjuntiboaren ordez, nahiz eta ikasketariak *joan dadila esan du* moduko formak ulertu.

### Zehar galdera

- Harridurazko esaldietan txertatuta landuko da, adierazkortasuna eta doinuera zainduz, adibidez:
  - \* *Ze(in) dotore etorri zaren gaur! Zenbat gauza sartzen duzun poltsan!*
- Hau lantzerakoan kontutan hartu beharrekoa da sarritan, analogiaz, honelako harridurazko esaldi okerrak sortzen direla: *Hain polita den!*

### Esaldiaren elementuen ordena

- 2.000 Atal osoan zehar zaindu beharreko aspektua da hau. Egitura gramatikal berriak ikusi ahala apurka-apurka lantzen joatea gomendatzen da eta, hala behar denean, aktibitate bereziak burutu, bai ahozkoak bai idatziak.

### DISKURTSO LOTURAK

- Ikasketariaren adierazkortasuna areagotzeko landuko dira lokailuak, bai hizkuntza mintzatuan bai idatzian. Garrantzitsua da entzutezko ariketak egitea ikasketariak doinuera eta erabilera ondo beregana ditzan.

## VI.2.2. NOZIOAK

### I. ENTITATE-NOZIOAK

#### 2 Izen arruntak

Zenbakarriak / zenbakaitzak (*liburu, telefono, artazi / olio, gari, su, gorroto*)

Bakunak: (*begi, esku, hitz, egun, erloju, ...*)

Erorriak: Atzizkiak

Ugaritasunezkoak: \* -kada: *platerkada, eskukada, ahokada, ...*

Ondoriozkoak: \* -era (-kera): *luzera, adiera, ibilera, ...*

Instrumentalak: \* -gailu (-kailu): *jostailu, igogailu, ...*  
 Denborazkoak: \* -aldi: *ekitaldi, estualdi, atsedenaldi, ...*  
 Lekuzkoak: \* -tegi (-degi): *biltegi, haurtzaindegi, ...*

Elkartuak: Izena + Izena

Koordinazio-elkartek: \* *seme-alabak, neba-arrebak*  
 Menpekotasunezkoak: \* *liburu azoka, zarama poltsa*

### 3 Izenordainak

Pertsona-izenordainak: \* indartuak: *bera; beraiek*

Izenordain zehaztugabeak: \* mugagabeak: *inor, ezer*

### 4 Determinatzaileak

Zenbatzaileak

Zenbatzaile orokorrak

- \* dena/ denak/ denok (izenik gabe): *dena daki, denak sartu ziren, denok dakigu*
- \* oso (zati daitezkeen izenekin): *tarta osoa jan du*

### 5 Nolakotzaileak

- \* *zein, zer, beste*
- \* *edozein, edozer*

## II.A. EXISTENTZIA

### 6 Posibilitatea / eza

Posibilitatea/ eza

- \* *agian, beharbada*
- *inolaz ere ez, inondik inora ere ez ..*

Ahalmena/ ezintasuna

- *...-tzeko aukera egon/ eduki*
- *...-tzeko aukera ez eman/ eskaini*

## II.B. ESPAZIOA

### 9 Kokalekua

- \* *hementxe, hortxe, hantxe (bertan)*
- *hemen behean, hor goian, han kanpoan ...*
- \* *ontzi txiki horretan, hango apal hartan, hustutako kaxa hauetan, bi tokitan...*
- *inguru horretan*
- *barrualdean = barruko aldean, kanpoaldean = kanpoko aldean*
- *bide-ertzean, orrialdearen ertzetan, teilatuaren ertz-ertzean*
- *erreka-bazterrean, bazter batean...*
- *botilaren oinean, mendi-tontorrean, zuhaitzaren puntan, gelaren erdian...*
- *goialdean = goiko aldean, behealdean = beheko aldean*
- \* *nonbait, hemen/hor/han nonbait, non edo non, leku ezkuturen batean...*
- \* *edonon, edozein tokitan...*

- *Gernika aldean, Tolosa inguruan ...*
- *iparraldean, hegoaldean, ekialdean, mendebaldean*

## 10 Besteekiko posizioa

Izen-sintagmak -(R)EN kasu-atzizkia hartzen duela:

*nire, arbelaren, aulki honen, bion, bata bestearen...*

- \* *alboan, inguruan, tartean*
- *ezkerretara, ezker aldean; eskuinetara, eskuin aldean; bi aldetara*
- \* *kontra*

Izena kasu-atzizkirik gabe: *etxe, mahai, itzal, harri...*

- \* *aldean, inguruan, artean, tartean*

-Z, -TIK kasu atzizkiekin: *herritik/uretatik/.../ kanpo(ra)*

## 11 Ordena

- *lehenengoa = lehendabizikoa = aurrenekoa, azkenekoa*
- *azkenaurrekoa*
- *hasierakoa, erdikoa, bukaerakoa*
- *lehenengoetakoa, azkenetakoa = azkenengoetakoa*
- *ezkerretik / eskuinetik / goitik / behetik / ... / hasita lehena, bigarrena ...*
- *lehen, ondoren, jarraian, azkenean*
- *hasieran, bukaeran*
- \* *aurreko aulkietan, atzeko ilaran, azken pasartean, erdiko zatian, bigarren lerroan*

## 12 Distantzia

- *itsasotik / hemendik / .../ hurbil, urrun, gertu, X kilometrotara*
- \* *hurbil-hurbil, nahikoa gertu, oso urruti, ez hain urrun, ...*
- *itsasotik / hemendik / zuregandik / .../ hurbil, urrun, gertu samar, X kilometrotra*
- *X metro/ kilometro daude ...-tik ...-ra*
- *asko falta da Gasteizerako, gutxi falta da iristeko ...*
- \* *X kilometroko bidea, X metroko tartea ...*
- \* *X baino hurbilago, urrunago, harantzago, honantzago, lehenago ...*
- \* *gertutxo = gertuegi, urrutitxo = urrunegi ...*

## 13 Mugimendua

Norabidea, abiapuntua

- \* *-lekuak (adb. merkatu, Grezia) + -rako tren, bidea hartu*
- *-aurrera, -rantz, -tik; atzera, atzerantz, atzetik*
- *goitik behera, behetik gora*
- *munduaren bazterreraino*

Garraio-bidea

- *-garraio-bidea + -z aldatu*
- *zaldi, asto, ...gainean joan, ibili*

Aditzak

- *jo, hegan egin, igeri egin, korrika egin ...*



## II.C. DENBORA

**14 Astea, eguna...**

- *astegun, lanegun, eskola-egun*
- *jaiegun, oporregun, asteburu*
- *bazkalondo (=bazkaloste), iluntze (=ilunabar)*
- *segundu, minutu, ordu laurden, ordu erdi, ordubete, ordu eta erdi, bi ordu, ...*
- *hamabostaldi, urtaro*
- *1993. urtea: mila bederatziehun eta laurogeita hamahirugarren urtea*
- *1993ko apirilaren 29a, apirilaren lehena = apiralaren bata, ekainak 6*
- *1993ko abendua*
- *Noiz? 1992ko ekainaren 14an, 1983ko abuztuan, 1955eko otsailean, 1492. urtean*
- *Eguberriak, Gabon-gaua, Eguberri (eguna), Gabon zahar = Urte zahar, Urte berri*
- *lhauteriak, Sanferminak, Sanblasak, Aste Nagusia, herriko festak = herriko jaiak*

**15 Bestelako lexikoa**

- *garai, sasoi, aldi, denboraldi, ...*
- *mende*
- *asti, astialdi*
- *oporraldi*

**16 Gertakariak denboran**

Erreferentzia unetzat oraina hartzen dugula: noiz?

Orain

- \* *oraintxe, oraintxe bertan*
- \* *garai honetan, sasoi honetan, gaur egun*

Iraganean

- \* *lehentxoago*
- *bart, lehengoan, lehengo batean*
- *atzo zortzi / hamabost, gaur zortzi / hamabost*
- *mende honen hasieran / erdian / bukaeran, XVII. mendean ...*
- *behin (batean), beste behin (\*aurrekoari lotua), egun batean*
- *lehen(ago), garai batean, sasoi batean, aspaldi, antzina*
- *txikitan, umetan, gaztetan*
- *orain dela (= dueja) gutxi / astebete / bi urte / mende bat...*
- *(aurreko = lehengo) astean / hilean / urtean*

Gero

- *lehenbailehen*
- *gaueko hamarretan*
- *gaur zortzi / hamabost, bihar zortzi / hamabost*
- *hil honen bukaeran*
- *datozen egunetan / urteetan*
- *egunen batean, halako(ren) batean, noizbait*

Erreferentziatzat iraganeko edo etorkizuneko une bat hartuta

Une jakin horren ondorengoak

- *biharamunean; hurrengo egunean / astean / ...*
- *X egun/ aste/ urte ... beranduago (= geroago) / pasa ondoren (=eta gero)*

Une jakin horren aurrekoak

- *aurreko egunean / astean / hilean / ...*

## 17 Iraupena

Hitz egiten dugun unea erreferentziazat hartuta

Iraganetik hona

- *txikitatik, umetatik, gaztetatik ...*

Hemendik aurrera

- \* *gaurtik (=gaurdanik), gaurtik aurrera*

Iraganeko une batetik bestera

- \* *goizeko zortzietatik hamarrak arte; joan den hilaren 4tik 11ra arte (=bitartean)*

Hemendik aurrera

- \* *gaurtik (=gaurdanik), gaurtik aurrera; hemendik aurrera, aurrerantzean...*

Iraganeko une batetik bestera

- \* *zortzietatik hamarrak arte; joan den hilaren 4tik 11ra arte (=bitartean); iaz arte*

Erreferentziazat iraganeko nahiz etorkizuneko une bat hartuta

Une horren ondoren

- \* *handik aurrera*

Erreferentzia jakinik gabekoak

Zenbat denbora? ( Aditz jakin batzuekin)

- *X ordu / X egun / / denbora luzea / goiz osoa / azken urteak / / pasa*
- *X ordu / X egun / / eraman; behar izan*

## 18 Maiztasuna

\* *Inoiz (ere) ez*

- *noizean behin, behin baino gehiagotan*
- *berriz, berriz*

Zenbat aldiz?

- *behin bakarrik*

Zenbat aldiz epe jakin batean

- *astean / hilean / egunean / hamabostean / / behin, bi aldiz,*

Zenbatetik zenbatera? Ohiko epe ezagunetan

- *segunduro, minuturo, orduro, egunero, goizero, gauero, hilero, urtero*

## 19 Sekuentzia

- *aurrena, lehenengo (eta behin)*
- *gero, ondoren*
- *geroago, beranduago*
- *azkenean, azkenik*

## II.D. DIMENTSIOAK, MAGNITUDEAK

## 20 Tamainua

- *erraldoi, ikaragarri*
- *handitu, puztu, hazi, gehitu, txikitu, gutxitu*
- \* *-txo (txikigarria)*
- \* *Nolako(a) (...-a) da? Zenbat neurtzen du? Zer neurritako zapatak?*
- \* *honetakoa*
- \* *... bezalako (ikus berdintasun-erlazioak)*

## 21 Luzera, altuera, zabalera...

Sakonera

- *sakon, azal*

## 22 Pisua

- *pisu, pisutsu*

## 23 Bolumena / edukiera

- *erdi beteta/ erdi hutsik*
- *gainez egin*
- *X unitate + gaia: hiru litro esne*
- *neurgailua + bete + gaia: baso bete ur, esku bete txanpon, ...*
- *neurgailua + kada + gaia: eskukada bat intxaur, kamioikada bat harri*
- *neurgailua + gaia: hiru kaxa esne, hiru poltsa intxaur*

## 24 Temperatura

- *irakin, izoztu*
- *hoztu, epeldu, freskatu du*
- *(esnea) irakiten, beroa, epela, hotza dago*
- *(oinak) hotzak, egosita dauzkat*
- *hotzak nago/ hotz naiz*
- *kalentura, sukar*

## 25 Adina

- *jaio berri, haur, ume*
- *agure, atso*
- \* *X urteko pertsona*
- \* *X-koa izan (63koa naiz)*

## 26 Abiadura

- *makina, kotxe, erritmo... azkar, arin, bizi,.../ motel, geldo, ...*
- \* *abiadura azkarreko trena*

## II.E. KUANTIFIKAZIOA

**27 Kopurua**

Kopuru zehaztua

Zenbaki kardinalak

- kolektiboak: *pare, dozena, ...*; zenb. + -kote: *bikote, hirukote, laukote, ...*
- distributiboak: zenb. + -naka: *banaka, binaka, ...*
- zatikiak: zenb. -ren: *erdi, heren, laurden, bosten, seiren, ...*; *erdia/ erdiak*

Kopuru zehaztugabea

Eza

- *bat ere ez*

Multzo txikia

- \* *baten bat, bat edo beste, norbait, nor edo nor, zenbait*

Multzo handia

- *makina bat, asko, pilo(a) (bat), hainbat, hamaika* (balio enfatikoa)

Multzo osoa

- \* *denak, guztiak, -ok*

Kontrastea, korrespondentzia

- \* *beste, zuk beste urte dauzkat*

**28 Kantitatea**

Zehaztua

- *3 litro esne* (eta antzekoak)

Zehaztugabea

Kantitate handia (ikus "kopuru zehaztugabea, multzo handia")

- *ugari; josita egon; gainezka*

Osotasuna

- \* *osoa: tarta osoa;* *guztia: esne guztia; dena: dena jan du*

**29 Kuantifikazioa zehaztasunik gabe**

- zenbakia + *gutxi gora behera*; zenb. + *inguru, edo*
- zenbakia + (-ren) bat: *hoge(ren) bat lagun*
- izena + -ren bat: *orriren bat falta zaio*
- gutxienez/ gehienez: *mila gutxienez*

**30 Gradua**

Superlatiboa

- adond. + -en: *azkarrena* (ikus "kopurua, multzotik aukera")

Goi-maila

- \* *oso, guztiz, izugarri, ikaragarri: liburu hori oso/ guztiz... interesgarria da*

- \* errepikapena: *azkar-azkarra*
- ezeztapena: *ez + batere: ez da batere ona*
- hain: *hain merkerik ez dago*

Nahikotasuna

- \* nahikoa: *nahikoa aberatsa*

Prozesua

- gero eta + ...-ago: *gero eta liburu dotoreagoak argitaratzen dituzte*

Gehiegizko maila

- \* ...-egi: *azkarregia, beranduegi*

Iritzi aditzondoak

- \* *agian, beharbada, noski, jakina*

Bestelakoak

- erdi + aditz part.: *erdi hilik dago*

## II.F. KUALITATEAK

### 31 Kualitatearen adierazpena

Izenondo eratorriak

- \* -garri: *aspergarri, barregarri, harrigarri, ...*
- \* -ti: *beldurti, gezurti, lotsati, ...*
- \* -tsu: *arriskutsu, garrantzitsu, haizetsu, ...*
- \* -dun: *bizardun, elebidun, ...*
- \* -gabe/ -bako: *lotsagabe, ganoragabe / lotsabako, ganorabako, ...*

Izenlagunak

Adberbioa + -KO

- \* partizipio adberbiala + -KO: *asko erabilitako jantziak, ikusi gabeko egiturak*
- \* moduzko aditzondoa + -KO: *honetako soinekoa, benetako gertaerak...*
- \* denborazko aditzondoak + -KO: *iazko oporrak*
- \* kasu - marka gramatikalak + -KO: *mendiko botak, etxerako lanak, honako bidea*

Izen multzoa + -KO

- \* izena + izenondoa + -KO: *hitz gutxiko mutikoa, itxura txarreko aurpegia*

### 32 Kualitate fisikoak

Forma

- *forma, itxura*
- *zorrotz, lau, kamuts, zapal, makur,*
- \* *arrautza-forma, bihotz-forma*

Zaporea

- *dastamena*
- *gozo, garratz, ozpin, mingots/ samin, gazi, geza, pikante/ min/ bizi (pipermina)*

- \* ...-gustua/ -zaporea: *laranja-, limoi-, menta-, erre-, ...gustua/ zaporea*
- ...-gustua/ -zaporea hartu: *erre-gustua hartzen diot*
- *gustu/ zapore ona/ txarra du/ dauka; gozo(a), garratz(a), ... dago / da*

#### Usaina

- *usaimena*
- *usain txarra botatzen du*
- *usain, kirats, hats*

#### Ukimena

- *ukimen*
- *latz, gogor, koipetsu, zimurtsu, pinportadun, likatsu, leun, bigun,*

#### Kolorea

- *kolorezko + izena: kolorezko jantziak*
- \* *koloretako telebista, hiru koloretako bandera, ...*
- \* *ura koloregabea da; lore koloretsuak; paper koloreduna;*

#### Materialak

- \* *mat. + -zko: metalezko aulkia, urrezko eraztuna, ...*

### 33 Pertsonarenak

#### Sexoa

##### Femeninoa/ maskulinoa

- *emakumezko, eme/ gizonezko, har*
- \* *andre-gizonak, senar-emazteak*
- *neskatila, neskata, neskato, poxpolin/ mutiko, morrosko*
- *atso / agure*

### 34 Balorazioak

#### Balioa / prezioa

- *zerbaiten prezioa (salneurri), errenta*
- *hau ez da saltzen, dohan ematen da*
- *balio (du, dio): zenbat balio du/ dute?*
- *kostatu (da, zaio): zenbat kostatu zaizu?*
- *ordaindu/ pagatu (du, dio): zenbat pagatu duzu? zenbat ordaindu dizute?*
- *garestitu, merketu, tasatu, alokatu, truk egin*

#### Dirua, diru-kantitatea

- *bueltak*
- *txanponak, bileteak: pezeta, libera, duro/ hogەرleko*
- *bost duroko moneda; ehunekoa; mila pezetako biletea; milakoa*
- *merkealdi (beherapen)*

#### Kalitatea

- \* *Izena + kalitate + adj.-koa + da: kalitate oneko, txarreko, handikoa da*

#### Onargarritasuna / eza

- *onargarria/ onartezina izan*
- \* *konforme, ados egon/ konforme, ados ez egon*

- balio izatea (du, dio)/ balio ez izatea: *azalpen horrek ez dit balio*
- *ideiak, argumentuak, arrazonamenduak, soluziobideak onartu*
- *zigorrek, nahigabeak, ... onartu* (protesta egin gabe)

Egokitasuna / desegokitasuna

Gauzak eta pertsonak

- *egoki, on, apropos, komenigarri, baliagarri, erabilgarri, eroso,*

Zertarako, norentzat

- *biziduna + -tzat(ko): liburu egokia umeentzat*
- \* *bizigabea + -rako: mahai egokia egongelarako*
- \* *aditza + -tzeko: bota egokiak neguan jazteko*

Desiragarritasuna / eza

- \* *gogo, asmo; .-tzeko gogo / asmoa*
- \* *subjuntiboa + -ela: suerte ona izan dezala! Ez daitezela galdu!*
- \* *aditza + -tzeko + desiatzen: eguraldi ona egiteko desiatzen nago*

### III. HARREMAN-NOZIOAK

## 35 Berdintasuna

Identitatea

- (ber)bera: *gauza bera esan, etxe berean bizi, aldi berean gertatu*

Entitateen arteko berdintasuna

- \* *...-ren antzeko: aitaren antzekoa da, hegazti baten antzeko tresna*
- \* *...(ren)a bezalako: jauregia bezalako etxea, zurea bezalako orrazkera*
- *ukapena: desberdinak ez izatea: hau eta bestea ez dira desberdinak*

Kualitateen arteko berdintasuna

- *bezain: zure gizona bezain zaharra da nirea*
- *baino ...-ago ez: hau ez da atzokoa baino txikiagoa*
- *ez ...-ren aldean: ez naiz txikia zure aldean*

Kantitatea

- \* *beste, adina: zuk beste idatzi dut; Carmenek Mariak adina urte ditu*

## 36 Desberdintasuna, kontrastea

Entitateak

- *aldea egon ...-ren artean: alde handia dago bien artean*
- *ukapena: ez dira berdinak; ez da gauza bera*
- \* *nirea ez da zurea bezalakoa, nirea ez da hangoa bezalakoa*
- \* *era, mota + guzti, asko: era desberdin/asko/guztietako kotxeak,*
- \* *edozein + era, mota, klase: edozein eratako ...*

Kualitateak

- \* *izena + desberdine(ta)ko: kolore, neurri... desberdine(ta)ko zapatak*
- *baino + adj.-ago: Iñaki setatiagoa da Jose Ignazio baino*
- \* *...-ra + ago: ezkerrerago, iparralderago, gorago, beherago, ...*
- \* *ukapena: ez bezain, hain: ez da zu bezain alferra; ez da hain beldurtia*

## VI.2.3. BUKAERAKO GAITASUNA

### AHOZKO ADIERAZPENA

Ikasketaria elkarrizketa sinpleak baino diskurtso konplexuagoak antolatzeko gai izango da, estimulo berezirik behar izan gabe.

Elkarrizketan parte hartzeko automatismoa eta autonomia lortzen hasia izango da, zehar estiloa ere maila apalean erabiltzeko gai delarik (elkarrizketen berri eman, iraganeko kontakizunak, komunikabideetatik jasotako mezuak ...).

Elkarrizketarako estrategiak ere (txanda aldaketak, autozuzenketa, solaskideari eragiteko gaitasuna ...) garatuagoak izango ditu.

Aipatutako baldintzetan gai izango da:

- narrazioak antolatzeko: esperientzia pertsonalak, gertaera historikoak, biografiak, ipuinak, iraganeko ohiturak, bidaiak...
- deskribapenak egiteko, definizioa barne: pertsonak, gauzak, prozesuak, egoerak, sentipenak, zaletasunak, egoera hipotetikoak...
- instrukzioak emateko: estilo zuzenean jasotako agindu, errekadu eta oharrak zehar estiloan adierazi, zehar estiloan jasotako agindu, errekadu eta oharrak estilo zuzenean adierazi...
- elkarrekintza burutzeko: planak, proposamenak, aginduak onartzeko eta errefusatzeko arrazoiak eman, iritziak, asmoak, preferentziak adierazi eta defendatu, aitzakiak jarri...

### ENTZUTEZKO ULERMENA

Ikasketaria diskurtsoa antolatzeko gaitasuna garatu duen neurrian ulertu ere 1.000 Atalean baino testu luzeago eta konplexuagoak ulertzeko gai izango da.

Ikasketariak ahoz ekoiz dezakeena hiztun arruntengandik jasotzen duenean, guztia ulertzeko gai izango da, inoiz hitz bat edo beste ez ulertu arren.

Ahozko Adierazpenean aipatu diren elkarrizketarako estrategiak Entzutezko Ulermenean ere garatuagoak izango ditu. Solaskidearen intentzioa, testuinguruarekiko egokitasuna eta diskurtsoaren beste zenbait ñabardura antzemateko gai izango da.

Komunikabideek igorritako mezuak oso konplexuak ez direnean (albistegiak, erreportaiak, lehiaketak...), ideia nagusiak ulertuko ditu; mezu sinpleak direnean (eguraldia, iragarkiak...) guztia ulertuko du.

### IDATZIZKO ADIERAZPENA

Trebetasun honek berezko garrantzia hartzen du 2.000 Atal honetan, aurrekoan ez bezala. Ikasketariak testu mota ezberdinen ezaugarriak bereiztu eta errespetatzen ditu eta, baita ere, batzuetan, formalitate maila. Ikasketariak testu labur eta ez oso konplexuak ekoiztuko ditu, baina, nahiz eta laburrak eta sinpleak izan, Idatzizko Adierazpenaren azpitrebetasun batzuk (ortografia, esaldiaren elementuan ordena...) nahiko garatuak izango ditu.

Baldintza hauetan honelako testuak ekoizteko gai izango da:

- Gutun pertsonalak (esperientziak, egoerak, bidaiak...)
- Ohar eta errekadu idatziak (pertsonalak nahiz iragarki taulan ipintzekoak)
- Instrukzioak (tresnen erabilera...)
- Aholku sinpleak (gurasoentzako aholkuak...)



- Eskabide orri ez oso konplexuak, datu pertsonalak baino gehiago eskatzen duten inprimakiak...
- Curriculum vitae
- Iragarki laburrak (egunkari eta aldizkarietarakoak...)

### IRAKURRIAREN ULERMENA

Ikasketaria 2.000 Atal honetan zehar testu mota ezberdinen ezaugarri lexiko, diskurtsibo eta estrukturaleraz jabetzen joango da. Sintaxian ere aurrerapen handia egin du, subordinazioaren oinarria bereganatuta baitauka. Beraz, aurreko atalean baino testu luzeago eta konplexuagoak ulertzeko gai izango da.

Lexikoaren aldetik oraindik ere arazoak izango ditu sarritan, baina testuinguru edota munduaren ezagupenetik inferentziak egiteko gaitasuna garatzen hasia izango du.

Baldintza hauetan honelako testuak ulertzeko gai izango da:

- Nobela errazak
- Umeentzako ipuinak
- Egunkarietako berriak: laburrak direnean, gehiena ulertuko du. Luzeak direnean ideia nagusiak ulertzeko gai izango da.
- Ikastetxean jasotzen diren gutun arrunt ez oso konplexuak, lexikoa oso espezialdua ez denean.
- Gutun pertsonalak
- Egunkarietako propaganda, eguraldia, deialdi sinpleak...
- Hasiera Zikloko testuliburuak (ikasleentzakoak).
- Hasiera Zikloko irakaslearentzako gidaliburuak: ideia nagusiak ateratzeko gai izango da.

## VI.3. 3.000 ATALA

## VI.3.1. HIZKUNTZ EGITURAK

## MORFOLOGIA

**Deklinabidea**

Izenen deklinabidea

- deklinabide osoa berrikusi
- prolatiboa -tzat
- kasu bikoitzak: -rako, -ranzko, -rainoko, -tiko, -rekiko, -zko, -rentzako, -renganako, -rengandiko
- plural hurbila -ok, eta deklinabide hurbi-laren kasurik errepresentatiboak (-otan, -otako, ...)
- testuinguru jakinetan mugagabea eskatzen dutenak: uretan, eguzkitan...; txikitatik, umetan,...
- -a artikuluz amaitutako leku izenak: Bizkaia
- -ko/ -ren genitiboak

**Bestelakoak**

- norbera, nor bere izenordainak deklinaturik
- bihurkari eta elkarkarien deklinabidea
- aditz izena + deklinabide kasuak

**Galdetzaileak**

- -ko-ren bidez egindakoak: norentzako, norainoko, norenganako, zenbateko, ...
- Galdera konplexuak: zeren aldeko, zeren kontrako, zeri buruzko, zein egunetako...

**Izenordainak**

Pertsona izenordainak

- forma indartuak: neu, zeu; geu, ...

Mugagabeak

- edonor, edozer
- norbera, nor bere
- nor edo nor, zer edo zer

Bihurkariak

- X-en burua (deklinaturik)

Elkarkariak

- elkar (deklinaturik), bata bestea (deklinaturik)

**Determinatzaileak**

Erakusle indartuak

- "ber-": bera; (berau, berori, berauek, ...)
- berrindartuak: berbera

Zenbatzaileak

- makina bat, ugari, hainbeste

**Adjetiboak**

- -ko, izenlagunak sortzeko baliabide gisa
- aditz partizipioa izenondo gisa: aditua, errea

**Gradu lokuzioak**

- ahalik eta ...-en
- are ...-ago; ezin ...-ago; zein baino zein ...-ago
- zenbat eta ...-ago, orduan eta ...-ago

**Adberbioak**

Mugagabeak

- edo+galdetzailea: edonon, edonoiz, edonola...
- galdetzailea+bait: nonbait, noizbait, nolabait...
- gald.+edo+gald.: non edo non, noiz edo noiz...

Maila aditzondoak

- erabat, zeharo, dexente, txit

Iritzi aditzondoak

- itxuraz, antza, dudarik gabe, bada ezpada, nonbait

Bestelakoak

- testuinguru jakinetan, izenondoa atzizkirik gabe: argi mintzatu, zorrotz jokatu

**Posposizioak**

- IS + -ø/ -ren/ -ri / -an / -z + posposizioa + -ø/ -a/ -an/ -ra/ -tik/ -z + arabera, barren, behe, bitarte, bizkar, eske, esker, esku, gisa, goi, jabe, kanpo, orde, parte, truk(e)

**Partikulak**

- omen, ote

**Aditz izena**

- -tzearen, -tzeari, tzekotan, tzerik, -tzen

**Aurrizki-atzizkiak**

- bir-
- -gai (aldagai), -bide, -di, -aro (gaztaro), -era (zabalera, ibilkera), -keta (aldaketa), -gintza (testugintza), -men/-pen (luzapen), -kin (emendaekin), -ki (esneki), -urren (urteurren), -te
- -kor

**Hitz elkartuak**

- izena+izena: koordinazio elkarteak (barre-argara); menpekotasunezkoak (belar usaina)
- aditzoina + izena (eserleku)
- izenkia + izena (ikaste prozesua)
- izena + izenkia (kale garbitzaile)
- izena + adjetiboa (esku-zabal)

MORFOLOGIA: ADITZA	SINTAXIA
<p><b>Iraganeko baldintza</b></p> <p>N, Nk, N-Ni, Z-Ni-Nk</p> <p><b>Suposizioak</b></p> <p>Joango zen</p> <p><b>Baldintza hipotetikoa</b></p> <p>Laguntzaileak: Z-Ni-Nk, N-Nk Trinkoak: Egon, Jakin</p> <p><b>Agintera</b></p> <p>dezagun, gaitezen N-Nk: nazazu(e), gaitzazu(e) (Ulermen mailan)</p> <p><b>Ahalezko hipotetikoa</b></p> <p>N: ninteke, liteke, ... Nk: nezake, lezake,...</p> <p><b>Ahalezko lehenaldia</b></p> <p>N: nintekeen, zitekeen, ... Nk: nezakeen, zezakeen, ... (Ulermen mailan)</p> <p><b>Aditz lokuzioen aspektua</b></p> <p>Behar nuen / behar izan nuen</p>	<p><b>Aditz trinkoak</b></p> <p>Iritzi, Egokitu, Jario</p> <p><b>Jerundialak:</b> -rik / -la</p> <p><b>Nominalizazioa</b></p> <p>-tzearen, -tzeari, tzekotan, -tzerik, -tzen</p> <p><b>Baldintza:</b> -tzekotan</p> <p><b>Zergatikakoak:</b> -nez gero / -la medio</p> <p><b>Zehar galdera</b> ...zer egin</p> <p><b>Denborazkoak</b></p> <p>-nerako / orduko, -tzerakoan, -takoan</p> <p><b>Ondoriozkoak</b></p> <p>Zenbat eta ...-ago, hainbat eta... Hain ..., non ... bait</p> <p><b>Moduzkoak:</b> Ahala / -n neurrian, -aren araber</p> <p><b>Helburuzkoak:</b> -tzearren</p> <p><b>Erlatiboa / Konparaketa:</b> Sakondu</p> <p><b>Zehar estiloa:</b> Sakondu</p> <p><b>Beharrean, ordez, -ren truke</b></p> <p><b>-lakoan (egon)</b></p>

### DISKURTSO LOTURAK

Bai, bai / Ez, ez / Alde batetik, bestetik/  
Antza denez/ dirudienez/ -ari dagokionez/  
Nire ustez Baina, oster, haatik, hala eta  
guztiz ere, ezezik ... ere, eskerrak ...-la.

## MORFOLOGIA

**Deklinabidea**

- Kasu guztiak berrikusiko dira, batez ere mugagabeen (Zein eta zenbat gal-detzaileak, asko, gutxi, edozein, hainbat). Mugagabearen erabilera bereziak ere landuko dira, adibidez, ureTAN, euriTAN eta antzerakoak.
- Plural hurbila (-OK) eta prolatiboa (-TZAT) landuko dira Atal honetan eta, baita ere, zenbait deklinabide-kasu bikoitz (norako, norekiko, zeri buruzko...).

**Erraziprokoak / Bihurkariak**

- ELKAR / -I / -EKIN / -EN ondoan kasuak landuko dira eta, baita ere, BERE BURUA / -RI.

**Hitz elkarketa**

- Oso maila sakonean ez bada ere, eguneroko adibide jakinekin lantzen hasiko da (laranja kolorea, larrosa usaina, ate hotsa, ardo botila...).

**-KO / -REN genitiboak**

- Bereizketa zail hau argitzen hasi behar da. Bereizketarako irizpide bakarra ez badago ere, ikasketariak erreferentzia batzuk behar ditu. Atal honen bukaeran ere nahastu egingo ditu zenbait kasutan, baina funtsean bereizten jakingo du. Nahikoa litzateke ikasketariak hurrengo bereizketa hauek egitea:
  - \* Erreferentzia espazial / denboraletan: *-REN aurrean, gainean, azpian, inguruan, ondoren, hasieran, bukaeran,...*
  - \* Izen abstraktoetan, gehienetan, *-REN: -REN kolorea, itxura, -tasuna, balioa,*
  - \* Kalifikatiboak sortzeko, gehienetan, *-KO: 3 metroko soka, ordubeteko saioa,*
  - ...

**Atzizkiak**

- Atzizkiak lantzearen helburu nagusiak bi dira: alde batetik, euskal lexikoaren funtzionamenduaren ikuspegi orokor bat hartzea eta, bestetik, hitz ezezagunak ulertzen edota ikasitakoak gogoratzen laguntzea.
- Kontutan hartzekoa da ikasketariak lexikoa testuinguruan finkatu behar duela eta ez inolako lotura semantikorik ez duten hitz zerrendetan. Beraz, ez da gomendatzen atzizki jakinik lantzea harik eta ikasketariak nahikoa adibide ezagutu arte.

## MORFOLOGIA: ADITZA

**Iraganeko Baldintza**

- Baldintzaren lehen parte (BA-) adibide jakin eta erabilietan landuko da, damua adierazteko, adibidez "*Ai ama, aurretik jakin banu!*", "*Etorri ez banintz, hobe!*". Honez gain, benetako baldintza bezala ere landuko da.
- Baldintzaren ondorioan Euskaltzaindiak onartutako *joango nintzen* moduko formak landuko dira. Benetako formak (*nintzatekeen, zatekeen...*) ulertu eta erraz identifikatzeko behar den heinean landuko dira, baina ahozko ekoizpenari dagokionez, bestelakoak ikasiko ditu ikasketariak, honelako funtzioak brurutu ahal izateko:

- \* Iraganean gerta zitekeenari buruzko konjeturak egin: *Hitler Polonian sartu ez balitz, ...*
- \* Zerbait gertatu (ez) balitz, berak egingo zukeenaren berri eman: *Ordurako heldu balitz, ez nion ezer esango*
- \* Zerbait gertatu (ez) balitz, solaskideak egingo zukeenaren berri eskatu: *Gai-xorik egon ez balitz, nota bera jarriko zenion?*
- \* Damua adierazi: *Lehenago konturatu banintz...!*
- \* Aitzakia adierazi: *Atzo jakin banu...! Orain ezin dut...*

## Suposizioak

- Suposizioak egiteko hain sarri erabiltzen den *etorriko zen* forma sartzeko une egokia litzateke hau, zeren, formaz berdinak izanik, bi adiera ezberdinak batera landu bailitezke. Suposizioak egiteko hainbeste erabiltzen ez diren gainerako formak (*bide*, *antza*, *-ke*) ez dira sistematikoki landuko. Gazteleratik begiratuta ere oso antzerakoak dira *etorriko zen* formaren bi adierak, hots, "*habría venido*" eta "*habrá venido*". Garrantzitsua da bigarren adiera hau oso kontestualizatua irakastea, ez baitagokio denbora-une jakin bati. Argi azaldu beharko zaio ikasketariari berak egiten dituen suposizio informalak adierazteko erabiltzen dela, oso egoera jakinetan eta aditz aspektu hauei erantzunez, adibidez:
  - A: *Nork ekarri du liburu pilo hau? (\*\* Orainaldi burutua)*
  - B: *Ideiarik ez... Koldok ekarriko zuen... beti ibiltzen da liburuekin gora eta behera...*
  - A: *Nork utzi zuen eskolako atea zabalik? (\*\* Iragan burutua)*
  - B: *Bedelak, ziur... ahaztu egingo zitzaion, beti bezala...*

## Baldintza Hipotetikoa

- 2.000 Atalean ikasitakoa berrikusi eta finkatuko da Atal honetan, bere erabilera testuinguru gehiagotara hedatuz. Ikasketariak automatismo handiagoa eskuratuko du eta, baita ere, baldintza hipotetikoa eta iraganekoa arazorik gabe bereiztu eta erabiliko ditu egoera arruntetan. Honez gain, maiztasun handiko zenbait forma trinko ere landuko dira, baina esamoldeak balira bezala, adibidez:
  - \* Desioa adieraztekoak: *Hala balitz! Ondo legoke!*
  - \* Harridura adieraztekoak: *Neuk (ere) baneki! Zure amak baleki!*
  - \* Etsipena / ametsak adieraztekoak: *Ganorarik balego hemen...! Mikel balego...!*
- Ikasketariak ondo bereiztu beharko ditu baldintza hipotetiko eta iraganekoaren balio semantiko ezberdinak, adibidez,
  - Ai ama, lehenago jakin banu! ↔ Neuk ere baneki!*
  - Ondo egongo zen! ↔ Ondo legoke!*

## Agintera

- 1.000 eta 2.000 Ataletan ikasitako formak berrikusteaz gain, *nazazu(e)*, *gaitzazu(e)* ulermen mailan landuko dira. Orain arte aginterarekin batera landu diren funtzioak aukerako formekin ere landuko dira, adibidez:
  - \* Mesedeak eskatu: *Etxera eramango nauzu, mesedez?*
  - \* Aholkuak eman: *Ez nauzu etxeraino eraman behar... hemen jaitsiko naiz*
  - \* Aginduak eman: *Utzi baketan!*

- *gaitezen* eta *dezagun* formak, berriz, ahozko ekoizpen mailan landu behar dira eta, baita ere, forma trinkorik erabilienak (*goazen*, *demagun...*), ikasketariak honelako funtzioak burutu ahal izateko:
  - \* Proposamenak egin: *Goazen tabernara*
  - \* Hipotesiak egin: *Pentsa dezagun basamortuan gaudela...*
  - \* Aginduak / instrukzioak eman: *Hasteko, ken dezagun plastikoa apurtu gabe...*

### Ahalezko Hipotetikoak

- Formarik erabilienak landuko dira, ikasketariak honelako funtzioak burutu ahal izateko:
  - \* Proposamenak egin: *Azterketa bihar egin liteke/genezake, ezta? Ezin liteke/genezake beste era batean planteatu?*
  - \* Planak / asmoak adierazi: *Honela eginda, bi egunetan buka liteke / genezake*
  - \* Mesedeak eskatu: *Biharko ekar zenezake? Liburudendatik pasa zintezke?*
  - \* Zerbaiten ondorioak adierazi: *Horrela balitz, ezin liteke / genezake ezer egin*
  - \* Posibilitate / gaitasuna adierazi: *Hala balitz, ezin gintezke oportetara joan!*

### Ahalezko lehenaldia

- Hipotetikoari baino garrantzi txikiagoa emango zaio. Ulermen mailan forma guztiak identifikatu eta ulertuko ditu ikasketariak, baina ekoizpen mailan arruntenak bakarrik erabiliko ditu kasu jakinetan, adibidez, *zitekeen* forma inper-sonala honelako esaldi eginetan:
  - \* *espero zitekeen bezala...; gehiago ezin zitekeen egin ...*
- Posibilitatea eta gaitasuna adierazteko aukerako baliabideak landuko dira, adibidez:
  - \* *Ezin zen museora sartu. Ez zegoen museora sartzerik*

### Aditz lokuzioen aspektua (Iragana)

- Hain konfliktibo suertatu ohi diren *behar nuen / behar izan nuen, ezin nuen / ezin izan nuen* formak landuko dira atal honetan, aurreko Atalean ikasitako orainaldiko formekin batera.

### Aditz trinkoak

- Hiru bakarrik landuko dira eta oso egoera jakinetan
  - \* Iritzi: *Zer deritzozu horri? Zuk proposatutakoari ondo deritzot*
  - \* Egokitu: *Zuri dagokizu oraingoan Honi dagokionez, ...*
  - \* Jario: *Odola dariola dago Olioia zeriola zegoen*

## SINTAXIA

### Jerundialak

- *-rik* forma aurreko atalean ikasitako *-Z* formaren ordezkotzat bezala landuko da. *-LA* forma, berriz, oso egoera jakinetan landuko da, maiztasun handikoetan hain zuzen ere, adibidez:
  - \* Telefonoan: *Mikel? Ba... nik dakidala bajan dago...*
  - \* Aditz errepikapenetan: *Dena dela Gertatzen dena gertatzen dela...*
  - \* Egon aditzarekin: *Odola dariola dago. Hemen nago... zer egin ez dakidala.*

## Nominalizazioa

- Hurrengo kasuak landuko dira:
  - tearen* (ondorioak, abantailak, aldekoa, kontrakoa, ...)
  - tekotan* + egon (asmoak, planak, ...)
  - teaz gain*
  - teari* (iritzi, ekin, utzi, ...)
  - ten* (saiatu, ahalegindu, hasi, aspertu, ...)
  - ten* (baimena eskatzeko: *pasatzen utziko didazu?*)
  - terik* + egon / eduki (ahaleraren ordezkoa)

## Baldintzaren ordezkoa

- -*tekotan* forma landuko da, testuinguru jakinetan, adibidez:
  - \* Aditz errepikapenetan: *Joatekotan, goizean joango nintzateke*
  - \* Nahi / beharraren ideia adierazteko: *Trena hartzekotan, arin ibili behar duzu*

## Denborazkoak

- Ikasketariak aurreko Ataletan ikasitako formekin nahiko egoki burutuko du denboraren antolamendua. Forma berri hauekin denbora adierazteko aukera gehienak ikasita izango ditu ikasketariak.

## Zergatikakoak

- Eguneroko hizkuntzan duen maiztasuna kontutan hartuta, -*nez gero* forma landuko da azalpenezko kausal bezala, orain arte ikasitako *bait* eta ...*eta* formaren pareko bezala.

## Zehar galdera

- “*Ez dakit zer egin*” forma landuko da. Ohiko zehar galdera berrikusteko aprobetxa daiteke forma berri hau, betiere bakoitzaren ezberdintasunak argi utzirik.

## Ondoriozkoak

- *Hain ..., non ... bait* forma, eguneroko hizkuntzan duen maiztasun urria kontutan harturik, idatzizko ekoizpenerako utziko da. Ahozko ekoizpenerako, bere ordeztan, *hain ..., ...-la* edota *hain ...-nez (gero), ...* forma alternatiboak landuko dira.

## Moduzkoak

- Forma berri hauen erabilerak ongi berieztu behar ditu ikasketariak, beraien arteko interferentziarik sor ez dadin. -*n neurrian* formarekin batera formula batzuk landuko dira, adibidez, *ahal den neurrian, ahal dugun neurrian*.

## Helburuzkoak

- -*tearren* forma irakasterakoan *arren* formarekiko interferentziak sor daitezkeen, ondo bereizten irakatsi behar zaio ikasketariari eta argi azaldu, baita ere, forma honek ez duela -*teko* forma testuinguru guztietan ordezkatzeko.

## Erlatiboa / Konparaketa

- Forma berririk ez da irakatsiko 3.000 Atalean, baina erlatibo eta konparaketaren erabilera sakondu eta hedatu egin behar da, berez daukaten zailtasunagatik. Erlatiboa esaldi konplexuagoekin landuko da eta, bide batez, ikasketariaren mekanismoak findu.
- Konparaketan ere berrikuseta bat egingo da baina oraingoan forma bereziak landuko dira, adibidez *ona* → *hobea* → *onena*, *ondo* → *hobeto* → *ondoan*. Superlatiboaren forma batzuk ere sakondu beharko dira, adibidez *inoiz ikusi dudan filmerik politena*.

## Zehar estiloa

- 3.000 Atal honetan ere landuko da zehar estiloa, ikasketariak aurreratu ahala, gero eta egoera konplexuagoetan. Ikasketariak ulermen maila altua du eta gai da elkarrizketak zehatz-mehatz kontatzeko, filmeen laburpenak egiteko, etabar. Ulermen maila hau aprobeztatu egin behar da zehar estiloa sistematikoki lantzeko.

## Esaldiaren elementuen ordena

- Esaldiaren elementuen ordena ahozko eta idatzizko ekoizpenean landu behar da oraindik ere. Maila honetan hain zaila suertatzen den ere partikularen erabilera landuko da, bai ahoz bai idatziz. Galdegaia aditza bera deneko kasuak ere landuko dira, ahozko ekoizpenean batez ere, adibidez *joan egingo naiz*, *konpondu egingo dut*, betiere esaldi laburrekin eta testuinguru jakinetan.

### DISKURTSO LOTURAK

- 1.000 eta 2.000 Ataletan bezala oso kontestualizaturik irakatsi eta landuko dira eta doinuera kontutan hartuta, adierazkortasuna areagotzarren. Maila honetan ikasketaria ahozko testu luze samarrak ekoizteko gai denez, oso lagungarriak izango zaizkio koordinazio elementu eta lokailu hauek diskurtsoa antolatzeke. Errekurtsu erretoriko bezala praktikatu dituzten azalpen luzeak egiten dituenean.

## VI.3.2. NOZIOAK

### I. ENTITATE-NOZIOAK

#### 2 Izen arruntak

Zenbakarriak / zenbakaitzak (*liburu, telefono, artazi / olio, gari, su, gorroto*)

Zenbakaitz neurgarriak / zenbakaitz neurgaitzak (*olio, gari / su, gorroto*)

Bizidunak / bizigabeak (*ume, gizon / harri, bide*)

Bakunak (*begi, esku, hitz, egun, erloju, ...*)

Eratorriak

- \* bir + izena: *birmoldaketa, birziklaia, ...*

Izen abstraktuak

- \* -bide: *adibide, eskabide, argibide, ...*
- \* -men: *baimen, ikusmen, irudimen, ...*
- \* -pen: *luzapen, gauzapen, ...*



## Ugaritasunezkoak

- \* -di (-ti): *pagadi, sagasti, ...*
- -tza: *dirutza, hondartza, ertzantza*

## Ondoriozkoak

- -ada (-kada): *purrustada, zurrutada, ...*
- -dura (-tura): *abiadura, hedadura, egitura, ohitura, ...*

## Instrumentalak

- \* -gai: *senargai, iruakurgai, ikasgai, ...*

## Materialak

- \* -ki: *txerriki, esneki, ...*
- \* -kin: *eranskin, etorkin, hegazkin, ...*

## Denborazkoak

- \* -aro: *gaztaro, ikastaro, ...*
- \* -te: *elurte, izurrite, lehorte, ...*

## Ihardunezkoak

- \* -era (-kera): *hasiera, hizkera, izaera, ...*
- \* -eta (-keta): *gogoeta, berbeta, lapurreta, ...*

## Elkartuak

## Koordinazio-elkarteak

- \* *seme-alabak, neba-arrebak, on-gaitzak, galde-erantzunak...*
- \* *afari-merienda, barre-algara, kafesnea, ...*

## Menpekotasunezkoak.

- \* *arruntak: behi-esne, ur-putzu, aditz-forma, ama-hizkuntza, ...*
- \* *mugakizun berezikoak: lore-sorta, galdera-sorta; liburu-mordo; ikasle-mul-tzo; futbol-talde; ogi-apur; gorputz-atal; azukre-koskor; bide-zati...*

## Aditzoina + izena

- \* *eserleku, idazlan, borragoma, helmuga, elikagai, adibide, biltegi*

## Izenkia + izena

- \* *ikaste prozesu, bilketa lan,*

## Izena + izenkia

- \* *odol-emale, kale-garbitzaile, harri-jasotzaile, pedagogi berrikuntza*

**3 Izenordainak**

## Zehaztugabeak

- \* *nor edo nor, zer edo zer*
- \* *edonor, edozer; nornahi, zernahi*
- \* *norbera, nor bere...*

## Bihurkariak eta elkarkariak

- \* *X-en burua*
- \* *elkar; \* bata bestea*

## 4 Determinatzaileak

Mugatuak

Artikulua: plur. \*: *-ak / -ok*

Erakusle indartuak

- \* “-xe-”: *hauxe, horixe, huraxe; hauexek, horiexek, haiexek*
- \* “ber-”: *berau, berori, bera; berauek, beroriek, beraiek*
- \* “bera”: *modu berean*
- \* forma berrindartuak: *berbera*

Zenbatzaileak

Zehaztugabeak

- \* *batzuk, zenbait, asko, gutxi, honebeste/ horrenbeste/ hainbeste, franko*
- \* *piska bat, apur bat, xorta bat, makina bat, dexente, ugari, nahikoa, ugari*

## II.A. EXISTENTZIA

### 6 Existentzia / inexistentzia

- \* *izan, existitu (da): umeak Olentzero badela sinistuta daude; Bazen behin*

### 8 Posibilitatea / eza

Posibilitatea/eza

- \* *ezinezkoa izan ...-tzea; posible izan ...-tzea*
- \* *ez egon ...-tzerik, ez eduki ...-tzerik*
- \* *gerta litezkeen arazoak, sor litezkeen kezka...*
- \* *... -tzeko modukoa izan*
- \* *baliteke / gerta liteke / litekeena da ...-tzea*

Ahalmena/ ezintasuna

- \* *... -tzeko / ...-rako gai / gauza / kapaz (ez) izan*
- \* *... -tzeko ahalmena (ez) eduki*
- \* *... -tzeko aukera, ahalbideak, bitartekoak egon / eduki*
- \* *... -tzeko eragozpenak egon / eduki / aurkitu*

## II.B. ESPAZIOA

### 9 Kokalekua

- \* *uretan, belarretan, elurretan, eguzkitan...*
- \* *edonon, nonahi, edozein tokitan...*
- *leku/bazter/toki/.../ guztietan; han eta hemen; han-hemenka...*
- *Gernika aldean, Tolosa inguruan...*

### 10 Besteekiko posizioa

Izen-sintagmak -(R)EN kasu-atzizkia hartzen duela:

- *bitartean; parean*

Izena kasu-atzizkirik gabe: etxe, mahai, itzal, harri...

- *aurrean = aitzinean, atzean = gibelean; -pean*

-Z, -TIK kasu atzizkiekin.

- \* *mendiaz/leihoaz/.../ bestalde = beste aldera*
- \* *lekuz/sistemaz/.../ kanpo*

## 11 Ordena

- *azkenurrekoa*
- *lehen = lehenik, ondoren, hurrena, atzetik, jarraian, segidan, azkenik*
- *hasieran, bukaeran*
- *hurrenez hurren*
- *alfabetoaren ordenaren (= hurrenkeraren) arabera*

## 12 Distantzia

- \* *hurbil-hurbil, nahikoa gertu, oso urruti, ez hain urrun, ...*
- \* *itsasotik / hemendik / zuregandik / elkarrengandik / bata bestea(ren) gandik / .../ hurbil, urrun, gertu samar, X kilometrora*
- *bertatik bertara*
- *lekutan! toki onean!*

## 13 Mugimendua

Norabidea, abiapuntua

- *aurrera, -rantz, -tik; atzera, atzerantz, atzetik*
- *aldapan, eskaileretan, ... gora, behera*
- \* *kalean, oihanean, munduan, ... barna, barrena, zehar*
- *kalez kale, eskuz esku*
- *etxerik etxe, kalerik kale, bazterrik bazter*
- *batetik bestera*

## II.C. DENBORA

## 15 Bestelako lexikoa

- *hamarkada, mende*
- *eurite, elurte, lehorte, gosete, izurrite, gerrate*
- \* *urteurren, mendeurren*

## 16 Gertakariak denboran

Erreferentzia unetzat oraina hartzen dugula: noiz?

Orain

- *orain, oraintxe, orain(txe) bertan*
- *gaur, egun, gaur egun, aurten, hile (=hilabete) honetan, garai honetan*
- *oraindik, oraingo, dagoeneko, honezkero (=honz gero)*

Iraganean

- *arestian, oraindik orain*
- *gaur bezalako egun batez, baina mila ...*
- *20ko /30eko / mende honetako lehen hamarkadan,*
- *mende honen hasieran / erdian / bukaeran, XVII. mendean*
- *joan den (aurreko = lehengo) astean / hilean / urtean*
- \* *astebete / hilabete / urtebete da ....-la, X aste / urte dira .....-la*

Gero

- *berandu gabe, berandu baino lehen, lehenbailehen*
- *etxidamu*

- *gaur zortzi / hamabost, bihar zortzi / hamabost*
- *hil honen bukaeran*
- *X egun / aste barru, hemendik X egun/ X urte/gutxi/lastererra*
- *ordubete / astebete / hilabete / urtebete baino lehen*
- *X ordu / egun / aste / ... baino lehen*
- *hurrengo egunean, astean, batean, ...*
- \* *egunen batean, halako(ren) batean, noizbait*

Erreferentziatzen iraganeko edo etorkizuneko une bat hartuta

Une jakin horren berraipamena

- *orduan, orduantxe, orduan bertan*
- *egun/ aste/ momentu/ ... hartan*
- \* *egun/ aste/ momentu/ ... berean*

Une jakin horren ondorengoak

- *handik gutxira / lasterrera / X egunetara / urtebeterra / ...*
- \* *(partizipioa) eta gutxira / X egunera / urte gutxira / ...*
- *X egunen / asteren / urteren / ... buruan*

Une jakin horren aurrekoak

- *bezperan*
- \* *X egun / aste / hilabete/ ... lehenago (=aurrerago = arinago)*
- \* *(..) baino X egun /aste / ... lehenago (=aurrerago = arinago)*

## 17 Iraupena

Hitz egiten dugun unea erreferentziatzen hartuta

Iraganetik hona

- *herenegundik, lehengo egunetik, asteazkenetik, hilaren 10etik*
- *iaztik, iazko negutik, iazko otsailetik, ...*
- *aurtengo negutik, aurtengo urte(aren) hasieratik, urte(aren) hasieratik*
- *aspalditik, lehendik, lehenagotik, antzinatik*
- *joan den (=pasa den = aurreko = lehengo) astetik / urtetik / ...*
- *orain dela (=duela) X egun / aste / ... / (-z geroz)tik*
- *azken X egunotan / urteotan / ...*
- \* *aspaldian, aspaldion, aspaldi honetan, azken boladan, azken aldian ...*

Iraganeko une batetik bestera

- *atzo goizetik gauera bitartean, herenegun goizetik atzo arratsaldera arte*
- *herenegundik atzo arte*
- *urte hasieratik apirilera arte (=bitartean)*
- \* *iaz arte, orain dela (=duela) hiru urtera arte*
- *joan den mendearren erditik mende honen hasiera arte*
- *oraintsu arte, orain dela gutxi(ra) arte*

Iraganeko une batetik etorkizunera

- *Atzotik / herenegundik bihar arte / etzi arte*
- *joan den astetik datorren astera arte, joan den hiletik urte bukaera arte*

Erreferentziatzen iraganeko une bat hartuta

Une horren ondoren

- *orduz gero(ztik), harez gero(ztik), geroztik*

Erreferentziatzat iraganeko nahiz etorkizuneko une bat hartuta

Une horren ondoren

- *aurrerantzean, handik aurrera*
- *handik gutxira arte*
- *hurrengo X egunetan / X hilabeteetan / X urteetan / ...*
- *handik aurrerako (=ondorengo) egunetan / hilabeteetan / ...*

Une horren aurretik

- *ordura arte*
- *une / egun / urte / / lehenagotik*

Erreferentzia jakinik gabekoak

- *aldi batean, bolada batean, luzaro (an)*
- *ordubetean, astebetean, hilabetean*
- \* *X ordutan, X egunetan, X astetan (zehar)*
- \* *X orduz, X hilabetez, X mendez*
- *goizetik gauera / astelehenetik larunbatera / otsailetik ekainera / X urtetik X'urtera / / arte (=bitartean)*

Zenbat denbora? ( Aditz jakin batzuekin)

- *X ordu / X egun / / eraman*
- *X minutu / X ordu / X egun / / iraun*

## 18 Maiztasuna

- \* *Inoiz (ere) ez, sekula (ere) ez, behin ere ez*
- *batzuetan, noizean behin, lantzean behin, behin edo behin, gutxitan,*
- *maiz, sarri, askotan, zenbaitetan, hainbat bider (=aldiz), hamaika bider*
- *behin eta berriz, behin eta berriro, behar baino gehiagotan, gehiegitan*
- *beti, jai eta aste, gau eta egun*
- *atzera, berriro, berriz, ostera*

Zenbat aldiz?

- \* *behin besterik ez, behin baino ez*

Zenbatetik zenbatera? Ez-ohizko epeetan

- *X ordutik / X egunetik / X urtetik / / behin*
- *X egunerik/ X hilerik / / behin*
- *X orduz / X astez / / behin*

## 19 Sekuentzia

- *aurrena, lehenik, lehendabizi, lehenengo (eta behin), ezer baino lehen*
- *ostean*
- *geroago, beranduago*
- *lehenago, aurretik, aurretiaz*
- *azkenean, azkenik, azkenez, amaitzeko, bukatzeko*

## II.D. DIMENTSIOAK, MAGNITUDEAK

**20 Tamainua**

- *mando, puska, gaitz, eskerga, galant, koskor, xume, zorri...*
- *handitu, harrotu, puztu, hazi, koskortu, gehitu, txikitu, gutxitu, murriztu...*
- *arropa: urak hartu/ eman*
- *-kote: liburukote, lodikote, ...*
- *-tzar: mamutzar, kotxetzar, ...*
- *-raino(koa): zeruraino(koa), ...*
- *-txo (txikigarria): txakurtxo...*
- \* *DIN A-4 tamainuko orria*
- \* *4,15/ 3,5 pulgadako disketea*
- \* *3 x (bider) 4 metroko gela*
- \* *200 pertsonarentzako aretoa*
- \* *honelakoa, honenbestekoa... (zerbait seinalatuz ala tamainua adieraziz)*
- \* *... bezalako, adinako, besteko, eta abar (ikus berdintasun-erlazioak)*

**21 Luzera, altuera...**

Luzera

- *luze, labur*
- \* *X unitate + luze: hiru metro luze, hiru metroko luzera, bi metroko pasiloa*
- \* *nolako/ zenbateko/ zenbat metroko pasiloa da?*

Altuera

- *X unitate + altu, garai, luze: hiru metro altu, 1.000 metroko mendia*

Zabalera

- \* *X unitate + zabal: hiru metro zabal, hiru metroko zabalera*

Sakonera

- \* *X unitate + sakon: hiru metro sakon*

**22 Pisua**

- *astun, asko pisatu, pisu handiko*
- \* *pisu gutxiko/ txikiko*
- *loditu (izan), galantu, guapatu, mejuatu/ argaldu (izan), flakatu, ...*
- \* *X unitate + gaia: 200 gramo gaztai*
- \* *X unitate + -ko: 320 kiloko harria*

**23 Bolumena / edukiera**

- *unitateak: litro (L), zentilitro (cl), mililitro, zentimetro kubiko (cm<sup>3</sup>), ...*
- *agortu (sukald.)*
- *gainez egin*
- \* *X unitate + gaia: hiru litro esne*
- \* *neurgailua + bete + gaia: baso bete ur, esku bete txanpon, gurdi bete...*
- \* *neurgailua + kada + gaia: eskukada bat intxaur, kamioikada bat harri*
- \* *neurgailua + gaia: hiru kaxa esne, hiru poltsa intxaur*

**24 Temperatura**

- \* *batezbesteko/ gehienezko/ gutxienezko temperatura*
- *irakin/ izoztu, hormatu*

- (esnea) irakiten, beroa, epela, hotza dago
- (oinak) hotzak, egosita dauzkat
- \* X unitate: 10 gradu, 10 graduko tenperatura
- zero gaisetik/ zero azpitik, zeropetik

## 25 Adina

- \* *haurtzaro, nerabezaro, gaztaro, helduaro, zahartzaro*
- *adin nagusitasun*
- *jaio berri*
- *mutiko, neskatila, nerabe (=gaztetxo), gazte*
- \* *(historiaurre, antzinario, ertaro, aro moderno, aro garaikide)*

## 26 Abiadura

- \* *batez besteko abiadura*
- \* *100 pultsazio minutuko (idazmakina); 90 taupada minutuko (bihotza)*
- \* *100 km. orduko, orduko 100 kilometro(ta)ko abiadura*

## II.E. KUANTIFIKAZIOA

## 27 Kopurua

Kopuru zehaztua

Zenbaki kardinalak

- zerotik milioira
- *zazpia (zazpi zenbakia) da gehien gustatzen zaidana; zazpiko urrea*
- kolektiboak: ... + -(da)ka: *ehundaka...* ; + -eko: *batekoak, hamarrekoak*
- distributiboak: ... + -na: *hana, bina, .../ mila, milioi hana / hiruna... mila*
- biderkatzaileak: ...+ -kun: *bakun, bikun...*;... + -koitz: *bakoitz, bikoitz...*
- -ki atzizkia : *biki, hiruki, .../ zazpiki/ lauki, hiruki*
- *zazpietako/ zazpietatik/ zazpietan hoberena*
- %10 (*ehuneko hamar*)
- *bakartasuna: bat, bakar, bakan*

Kopuru zehaztugabea

Eza

- \* *bat ere ez, bakar bat ere ez, ezta bat ere, inor (ere) ez*

Multzo txikia

- \* *ezer gutxi, gutxi batzuk, inor gutxi*
- \* *bakar batzuk, bakan batzuk, banaka batzuk*
- *zenbait, batzuk, gutxi, baten bat, bat edo beste, norbait, nor edo nor*

Multzo handia

- \* *hainbat (eta hainbat), hainbeste, nahi beste, hamaika (balio enfatiko)*
- \* *nornahi, edonor*
- *ehundaka, milaka, miloika, dozenaka ... bildu, kontatu, ...*

Multzo osoa

- \* *guztiak, -ok/ denak, -ok/ oro*
- *salbuespenik gabe, bat ere kendu gabe*

## Inklusioa

- barne: *neu ere barne*

**28 Kantitatea**

## Zehaztua

- \* *3 litro esne* (eta antzekoak)

## Zehaztugabea

## Kantitate txikia

- *izpi, punta, hondar, hondakin*

## Kantitate handia (ikus "kopuru zehaztugabea, multzo handia")

- *tamainan egon, eman, hartu; ugari; josita egon; leporaino egon; gainezka*
- \* *elkarren ganean, bata bestearen ganean pilatu, egon;*
- *-z, -tan aberats;*
- *izena + -tza: jendetza, eulitza, palutza, ...*
- *izena + -ka: zakuka*
- *aditza + ahala: txakolina edan ahala geneukan, erre ahala egur badu*

**29 Kuantifikazioa zehaztasunik gabe**

- Ikus "kopuru zehaztugabea" (27) eta "kantitate zehaztugabea" (28)
- *bizpahiru, hiruzpalau, ...*
- *zenbakia+(-ren) bat: hogei(ren) bat lagun*
- *izena + -ren bat: orriren bat falta zaio, besteren bat*
- \* *zenbakia + (izena)-tik gora/ behera: milatik gora, mila hitzetik gorako artikulua*
- *zenbakia + paseak: mila paseak*
- *ia/ kasik + zenbakia*
- *asko/ gutxi jota: mila lagun asko jota*
- *(ez) iritsi/ heldu: milara ere ez ziren iritsiko*

**30 Gradua**

## Superlatiboa

- \* *ezin + ...-ago: ezin azkarragoa, ezin hobeto*
- \* *baino + ...-agorik ez: zu baino azkarragorik ez dut ikusi*

## Goi-maila

- *izugarritzko, ikaragarritzko, itzelezko, ... koba, hondartza*
- *egundoko, erabateko, benetako, sekulako, ... leherketa, ziurtasuna*
- *harridura: zein ederra den!; nolako etxea!*
- \* *...+ baino + ...-ago: azkarra baino azkarragoa*
- \* *zein baino zein + ...-ago: zein baino zein azkarragoa*
- *ezeztapena: ez+batere/inondik inora/inola ere: ez da ona inondik inora*
- *aditz errepikatua + eginda: busti-busti / neka-neka / asper-asper eginda*

## Nahikotasuna

- *nahikoa, aski, dexente, samar: lan zail samarra, nahikoa/dexente ona*

## Prozesua

- \* *gero eta + ...-ago: gero eta liburu dotoreagoak argitaratzen dituzte*
- \* *zenbat eta ...-ago, orduan/ hainbat eta ...-ago*



Iritzi aditzondoak

- \* *ituraz, agian, nonbait, antza, beharbada, dudarik gabe, jakina*

## II.F. KUALITATEAK

### 31 Kualitatearen adierazpena

Aditz-partizipioak

- \* *pertsona aditua, ogi birrindua, gazte desordenatua, hitz elkartuak...*

Izenondo eratorriak

- *-gaitz: aldagaitz, izukaitz, moldakaitz, ...*
- \* *-kor: aldakor, baikor, egonkor, ...*

Izenondo elkartuak

- \* *begi-beltz, belarri-luze, bizar-gorri, buru-arin, esku-zabal...*
- \* *balioanitz, besamotz, betoker, kopetilun, tripaundi, zelulabakar, ...*

Izenlagunak

Adberbio konposatuak + KO

- \* *hitzez hitzeko itzulpena, banan banako azterketa, batetik besterako ...*

Posposizio sintagma + -KO

- \* *-ari buruzko liburua, ahalkolik gabeko garagardoa, gure arteko kontuak,*

Partizipio adberbiala + -KO

- \* *askotan bururatutako ideia, asko erabilitako jantzia*
- \* *inoiz ikusi gabeko egiturak, sekula entzun gabeko(a)*

Moduzko aditzondoa + -KO

- \* *honelako soinekoa, edonolako jolasak, nolabaiteko konponketa, ...*
- \* *bakarkako lana, isilkako tratua, epekako ordainketa, ...*
- \* *alderantzizko norabidea, oinezko pasabidea, ...*
- \* *benetako gertaerak, ezinbesteko betebeharrak, ustekabeko bisita,*

Denborazko aditzondoak + -KO

- \* *sekulako, egundoko, noizbaiteko, atzoko, iazko, ...*

Kasu-marka gramatikalak + -KO

- \* *goranzko joera, beheranzko eskailera automatikoa, ...*
- \* *eguzkitiko energia, kanpotiko eragina, ...*
- \* *betidaniko ohiturak, jaiotzatiko akatsa, ...*
- \* *umeenganako begirunea, ...*
- \* *gurekiko harremanak, ikasleekiko erantzukizuna, lurrarekiko lotura, ...*
- \* *hauentzako tokia, liburuentzako apalak, gazteentzako laguntza, ...*

Izen multzoa + -KO

- \* *nire adinekoak, horren antzeko gauzak, suaren koloreko argia...*
- \* *Hiromi izeneko neska, Flumocil izeneko botika, ...*

Zenbatzailea + izena + (izenondoa) + -KO

- \* *lau hankako mahaia, hiru eratako proposamenak, ehun item-eko testa, bi arpegiko mutila, mila bizilaguneko herria...*

Hitz elkarketa

- \* *zigarro paketea, poxpolo kaxa, txanpan kopa, ...*
- \* *ekonomi liburua, ariketa koanerdia, eskabide orria, ...*
- \* *bitxi saltzailea, balada kantaria, euritako konpontzailea, ...*
- \* *dantza ikastaroak, musika emanaldiak, etxe aldaketa, baimen eskaera...*

## 32 Kualitate fisikoak

Tamainua, neurria, pisua: ikus "Dimentsioak"

Zaporea

- *gozo, garratz, ozpin, mingots/ samin, gazi, geza; min/ bizi (pipermina)*
- \* *...-gustua/ -zaporea: laranja-, limoi-, menta-, erre-, ...gustua/ zaporea*
- *...-gustua/ -zaporea hartu: erre-gustua hartzen diot*

Usaina

- *usaimena*
- \* *...-usaina: alkanfor-, labanda-, tabako-, kafe-, erre-, ustel- ...-usaina*
- *usain ona/ txarra egon/ bota/ hartu/ eduki*
- *usain, kirats, suanda, hats*

Ukimena

- *ukimen*
- *ikutu*
- *ez egin ikuturik!*

Kolorea

- *kol.izena + -ska: gorriska, zuriska, beltzaska, ...*
- *nabar, nabarska*
- \* *zuri-gorri, zuri-urdin, hori-baltzak*
- \* *kolore + kol. izena-ko + izena: kolore urdin / beltzeko zapatak, ...*
- *kol. zena + -tu: urdindu, zuritu, horitu, hubeldu, belztu, zurbildu, ...*
- *koloregabetu, tindatu, makilatu*
- \* *izena- + kolorea: odol-kolorea, urre-kolorea, lur-kolorea, ...*
- *koloreztatu: irudiak koloreztatu*
- *zuringo, gorringo*

Materiala

- \* *mat. + -z eginda: metalez egindako aulkia, urrez eginda, ...*

## 33 Pertsonarenak

Sexoa

Neutroa: *gizaki, gizakume, gizabanako*

Izaera, itxura fisikoa (Ikus. lexikoa)

## 34 Balorazioak

Balioa / prezioa

Dirua, diru-kantitatea

- *atzerakoak/ bueltak, diru xehea*
- *zerbaiten truk(ean) eman, prezioa ezarri, merkealdi (beherapen)*

#### Kalitatea

- *Izena+adj.+da: zerbait on, txar/ eskas, hala holako, bikain, hobezin, sekulako, arrunt, hobe, txarrago/ eskasagoa da*
- \* *Izena+kalitate+adj.-koa + da: zerbait kalitate oneko, txarreko, eskaseko, handiko, gutxiko, handiagoko, hobeko, ederreko, berdinekoa da*

#### Onargarritasuna / eza

- *(...-rekin) bat etorri/ (...-rekin) bat ez etorri*
- *ontzat/ txartzat hartu, eman*
- *pertsonak + -tzat hartu: semetzat, emaztetzat, medikutzat, ... hartu*
- *ideiak, argumentuak, arrazonamenduak, soluziobideak onartu*
- *onetsi/ gaitzetsi*

#### Egokitasuna / desegokitasuna

##### Gauzak eta pertsonak

- *egoki, on, apropos, aukerako, komenigarri, baliagarri, erabilgarri, zuzen,*

##### Pertsonak

- \* *zerbaitetarako gai, gauza, nor, iaioa izan*
- *egokitu, moldatu, adaptatu*

#### Desiragarritasuna

- *gogo, asmo*
- \* *nahi izan, opa, ...-tzeko gogo, ...-aren atzetik ibili, begiz jota eduki, ...*

#### Desioaren adierazpena

- \* *subjuntiboa + -ela: suerte ona izan dezala! Ez daitezela galdu!*
- \* *ia + aditza + -n: ia dena ondo egiten duen!*
- *aditza + -ko + ahal: euria egingo ahal du!*
- \* *nahiago nuke + baldintza hip.: nahiago nuke jausiko balitz!*

#### Esanahi erretrospektiboa

- \* *baldintza hip.: gizona izan balitz!*

#### Era progresiboan

- \* *eguraldi ona egiteko desiatzen/irrikitzen nago*

#### Desioaren adierazpena NORI kasua aipatuz

- *opa (dio): etorkizunik onena opa diot, bizi luzea eta emankorra opa diot*

### III. HARREMAN-NOZIOAK

## 35 Berdintasuna

#### Entitateen arteko berdintasuna

- \* *...-ren antzeko: aitaren antzekoa da, hegazti baten antzeko tresna*
- \* *...(ren)a bezalako: jauregia bezalako etxea, zurea bezalako orrazkera*
- *nolako, halako: nolako gurasoak, halako umeak*
- *ukapena: ...-ren inbidiarik ez edukitzea: txitxarroak ez du bisiguaren inbidiarik*

Kualitateen arteko berdintasuna

- \* adinako: *zuk adinako suerterik ez dugu izan*
- \* besteko: *tamainaz Espainia Frantzia bestekoa da*

Modu-berdintasuna

- \* bezala: *beste inon bezala, hemen ere gertatzen dira horrelakoak*
- \* moduan: *zure moduan/zuk esan duzun moduan egingo dut*

Kantitatea

- \* beste, adina, bezainbat: *zuk beste idatzi dut; Jonek zuk adina urte ditu*
- \* ...-na: *erdi bana egin, eman; hiruna, launa, ... eman, hartu, eraman, ...*

### **36 Desberdintasuna, kontrastea**

Entitateak

- \* klase, gisa, era, mota... + desberdin, guzti, asko: *era askotako kotxeak*
- \* edozein + era, mota, klase: *edozein eratako ...*

Kualitateak

- \* *kolore, neurri, material, ... desberdine(ta)ko zapatak*
- \* aditz partizipioa: *aipatuagoak dira idazle batzuk besteak baino*
- \* kualitate bi erlazionatzea: *zabala baino altuagoa da*
- \* ...-ra + ago: *ezkerrerago, iparralderago, gorago, beherago, ...*
- \* ...-rantz + ago: *harantzago, Bilborantzago, ...*
- ...-ren aldean: *nirea handia da zurearen aldean*
- gradua: *ikus gradua*

**VI.3.3. BUKAERAKO GAITASUNA. HE1eko PORTAERAZKO HELBURU XEHEAK****AHOZKO ADIERAZPENA**

Ikasketaria hurrengo egoera hauetan normalean burutzen diren hinkuntz ekintzak (ikus 2. eta 3. Eraskinak) burutzeko gai izango da, behean zehazten diren parametroen arabera eta 1.000, 2.000 eta 3.000 Atalei dagozkien hizkuntz baliabideak erabiliz.

- I.** Ikasleekiko eguneroko harremanetan (klase emankizunetan izan ezik)
- II.1.** Gainerako irakasleekiko eguneroko harreman informaletan
- II.2.** Gainerako irakasleekin ikastetxeko lan bileretan ( Mintegia / Departamentua, Zikloko Bilera, Klaustroa )
- III.** Gurasoekiko tratuan (telefonoan, Eskola Kontseiluan, tutoretzan, katean)
- IV.1.** Hezkuntza Administrazioarekiko harremanetan, aurrez aurre zein telefonoz
- IV.2.** Eskolazaintzarekiko tratuan
- V.1.** Udala edo bestelako erakundeekiko harremanetan, aurrez aurre zein telefonoz
- V.2.** Liburutegi, argitaletxe eta material banatzaileekiko harremanetan, aurrez aurre zein telefonoz

**Doinuera.** Ebakera, azentua eta doinueraren oinarrizko arauak errespetatuko ditu. 1Hren eragina nabaria izan daitezkeen arren, ez ditu mezua eta intensioa oztopatuko.

**Jariotasuna.** Orohar, elkarrizketak erraztasunez jarraitzeko bestekoa izango da. Inoiz osatu gabeko esaldiak eta etenak gerta daitezkeen arren, komunikazioa aurrera ateratzeko estrategiak izango ditu. Lan bileretan edota bestelako komunikazio egoera formaletan bere interbentzioak luzera edo konplexutasun (lexiko, gramatikal edota diskurtsibo) handikoak direnean, arazo larriak izan ditzake adierazi nahi duena adierazteko.

**Zuzentasuna.** Orokorrean, arau morfosintaktikoak errespetatuko ditu. Inoiz hutsegiteak eta gaitzulertzeak gerta daitezkeen arren, bere burua zuzentzeko adina ezagutuko du gramatika.

**Egokitasuna.** Formalitate maila eta erregistro ezberdinak bereiztu arren,erregistro neutroa erabiliko du. Zenbait kasutan (ad. Eskolaurrea) ikasleen adinari dagokion hizkerara moldatzeko zailtasunak izan ditzake.

**Zehaztasuna.** Ikastetxearen dinamikari dagokion lexikoa eta lexiko orokorra aski garatuak izango ditu. Inoiz esan nahi duen hitza gogoratzen ez badu ere, komunikazioa aurrera ateratzeko estrategiak (parafrasia, definizioa, betegarriak...) izango ditu.

## ENTZUTEZKO ULERMENA

Ikasketaria hurrengo komunikazio-egoera hauetan solaskideek esaten duten / dioten guztia (ikus 2. eta 3. Eraskinak) ulertzeko gai izango da, beheko zehaztapenen arabera:

- I.** Ikasle, irakasle edota eskolazainarekiko elkarrizketetan
- II.** Lan bileretan
- III.** Gurasoekiko tratuan
- IV.** Hezkuntza Administrazioarekiko harremanetan
- V.** Liburudenda, argitaletxe, material banatzaile eta Udal zerbitzuekiko harremanetan
- VI.** Komunikabide, hitzaldi, ikastaro eta bisitetan

- a** Zailtasun handiko testuak ez direnean, inoiz lexiko-item bat edo beste ulertzen ez badu ere, esanahia testuingurutik inferituz edo komunikazioa apurtzen ez duen galdera baten bidez argitzeko gai izango da.

Zailtasun (lexiko, diskurtsibo, topiko) handiko testuak direnean, orohar ideia nagusiak ulertu eta diskurtsoaren haria segitzeko gai izango da

- b** Solaskidearen hizkera hizkera estandarretik hurbil badago, guztia ulertzeko gai izango da. Inoiz lexiko-item edo esamolde bat ulertzen ez badu ere, gehienetan esanahia testuingurutik inferituz edo komunikazioa apurtzen ez duen galdera baten bidez argitzeko gai izango da.

Solaskidearen hizkera (dialektal, kolokial edota sinkopatua) bere hizkera estandarretik urrun samar badago, gehienetan ideia nagusiak ulertu eta diskurtsoaren haria segitzeko gai izango da.

Solaskidearen hizkera (dialektal, kolokial edota sinkopatua) bere hizkera estandarretik oso urrun badago, arazo larriak izan ditzake elkarrizketa/diskurtsoa segitzeko.

- c** Partaide kopurua handia bada edota hitz egiteko txanda oso arin aldatzen bada irratian bereziki, zailtasunak izan ditzake. Hala ere, gehienetan ideia nagusiak ulertzeko gai izango da.

## IDATZIZKO ADIERAZPENA

Ikasketaria ikastetxeko eguneroko komunikazio idatzian hurrengoak bezalako testuak euskaraz idazteko gai izango da behean zehazten diren parametroen arabera:

- II. Komunikabideekiko harremanetan:
  - iragarki laburrak
  - zuzendariari gutuna
  - harpidetza
- III. Instituzioekiko harremanetan:
  - curriculum vitae
  - inprimakia
  - eskabidea
  - gutuna
- IV. Harreman pertsonaletan:
  - gutuna
  - postala
  - abisua
  - oharra
- V. Ikastetxeko harremanetan:
  - oharra
  - abisua
  - deialdia
  - zirkularra
  - txosten laburra
  - eskema
  - hormirudiak
  - koadro sinoptikoa
  - azterketa (instrukzioak, galderak)
  - eskola-ariketa

**Zuzentasuna.** Arau ortografiko eta morfosintaktikoak errespetatuko ditu, nahiz eta inoiz hiztegia edo bestelako laguntza behar izan.

**Egokitasuna.** Egoera komunikatibo, hartzailearekiko harreman mota eta gaira erraztasunez egokituko du testua.

**Zehaztasuna.** Lexiko orokorra eta ikastetxearen funtzionamenduari dagokiona aski garatuak izango ditu. Inoiz gaiari dagokion lexiko espezifikoarekin arazoak izan baditzake ere, hiztegi edo beste baliabide baten laguntzaz konponduko ditu.

**Koherentzia eta kohesioa.** Testu mota bakoitzari dagozkion formula diskurtsibo eta estiloa errespetatuko ditu.

## IRAKURRIAREN ULERMENA

Ikasketaria hurrengo mota hauetako testuak ulertzeko gai izango da, beheko zehaztapenen arabera:

- |   |  |  |
|---|--|--|
| <b>I.</b> Literatur testuak:              | <ul style="list-style-type: none"> <li>● nobela</li> <li>● biografia</li> <li>● entsaioa</li> </ul>  | <ul style="list-style-type: none"> <li>● poema</li> <li>● teatroa</li> <li>● ipuina</li> </ul>   |
| <b>II.</b> Komunikabideetako testuak:     | <ul style="list-style-type: none"> <li>● grafikoa</li> <li>● argazki-oina</li> <li>● iragarki laburra</li> <li>● iragarki ofiziala</li> <li>● berria</li> <li>● erreportaia</li> <li>● iritzi-artikulua</li> <li>● elkarrizketa</li> </ul>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>● mapa</li> <li>● agenda informatiboa</li> <li>● publizitatea</li> <li>● aipamenak (liburuak...)</li> <li>● kronika</li> <li>● editoriala</li> <li>● zuzendariari gutuna</li> </ul> |
| <b>III.</b> Instituzioekiko harremanetan: | <ul style="list-style-type: none"> <li>● inprimakia</li> <li>● iragarki ofiziala</li> <li>● deialdia</li> <li>● araudia</li> </ul>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>● eskabidea</li> <li>● EHAA</li> <li>● zirkularra</li> <li>● araubidea</li> </ul>   |
| <b>IV.</b> Harreman pertsonaletan:        | <ul style="list-style-type: none"> <li>● gutuna</li> <li>● abisua</li> </ul>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>● postala</li> <li>● oharra</li> </ul>  |
| <b>V.</b> Ikastetxeko harremanetan:       | <ul style="list-style-type: none"> <li>● testuliburua</li> <li>● entziklopedia/hiztegia</li> <li>● katalogoa</li> <li>● eskola ariketa</li> <li>● deialdia/abisua/oharra</li> <li>● didaktikari buruzko artikulua</li> <li>● azterketa (galderak eta erantzunak)</li> <li>● curriculum egokitzapena</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>● programazioa</li> <li>● zabalkunde testua</li> <li>● txostena</li> <li>● akta/agiria</li> </ul>   |

- a** Gaia, lexikoa edota sintaxiaren aldetik zailtasun ertaineko testuak direnean, gehienetan guztia ulertuko du. Inoiz xehetasunen bat gal dezakeen arren, gehienetan hitz ezezagunen esanahia testuingurutik inferituko du.
- b** Gaia, lexikoa edota sintaxiaren aldetik zailtasun handiko testuak direnean (adib. didaktikari buruzko artikulua), ideia nagusiak ulertuko ditu, zenbaitetan berriro irakurri edota hiztegia erabili beharra izan dezakeen arren.
- c** Sintaxia edota egitura diskurtsiboaren aldetik testu korapilatsuak direnean (adib. curriculum egokitzapenak), arazo larriak izan ditzake ulertzeko.
- d** Testuaren zailtasun maila edozein delarik ere, gehienetan ohizkoa baino erritmo apalagoan irakurri behar izango du.



## VII. ORIENTABIDE METODOLOGIKOAK

### ENTZUTEZKO ULERMENA

HE1en definizioaren arabera, ikasketariak, maila honetara heltzen denean, komunikaziorako estrategiak garatu samar izan behar ditu, ikastetxean ematen diren eguneroko elkarrizketei aise aurre egiteko gai izan behar baita. Eta hau lortu nahi bada, ulertzeko gaitasuna handia izan behar du, mintzatzeko gaitasuna baino handiagoa agian.

Baina, nahikoa ote da irakasleen abotsa edota noizbehinka komunikabideak entzutea ikasketariak elkarrizketa erreal eta biziak ulertzeko estrategiak eskura ditzan? Iritziak iritzi eta erantzuna baietz delarik ere, ukaezina da ikasketariak estrategia hauek askoz errazago eskuratuko dituela horretarako prestakuntza berezia jasotzen baldin badu. Prestakuntza hau Entzutezko Ulermenaren bidez eskain dakioke, berau baita, 2Hn (\*) murgildu ezean, hizkuntza bizia ikasgelara eramateko bide bakarra.

Berriro aipatu beharrekoa da benetako elkarrizketak ulertzeko estrategiak —monologo luze eta linealak ulertzeko estrategiak baino dexente konplexuagoak— landu behar direla, zeren aurrez aurreko giza komunikazioak, hizkuntzaz gain, hainbat osagai ezberdin ditu, hala nola solaskidearen hitz egiteko abiadura eta modua, aldartea, izaera, intentzioa..., eta, "ulertzeak" sinplea irudi dezakeen arren, hau guztia 2Hn gaingitzea ez da batere erraza.

Elkarrizketarako estrategiak menderatzea erraza ez bada, estrategia hauek ikasgelan landu eta garatzea ez da errazagoa. Honegatik eskaintzen dira hemen Entzutezko Ulermenaren trataerarako ideia batzuk, irakasleen lana bideratu eta erraztuko dutelakoan.

- Hurrek "isilune" bat izaten dute hitz egiten ikasi baino lehen; bitartean gurasoek ez dute beraiengandik inolako ahozko ekoizpenik espero, "ulertzen" ikasten ari direla badakitelako. Geroago, hitz egiten ikasi dutenean ere, beren ulermen-maila askoz altuagoa da ekoizpen-maila baino. Hizkuntza eskuratzeko estrategia hau, hein batean behintzat, helduek ere erabiltzen dutela pentsa liteke.

---

\* 2H: bigarren hizkuntza. 1H: lehen hizkuntza.

- Aipatu beharrekoa da azken urteotan hain sona handia hartu duen Krashen-en Input Hipotesia:

*... ulermena, agian, hizkuntz eskuratze-prozesuaren muinean dago: gure unean uneko gaitasun mailatik harantzaxeago dagoen hizkuntza ulertuz eskuratzen dugu. Testuinguru estralinguistikoaren eta munduarekiko gure ezagupenaren laguntzaz lortzen dugu hau.*

- Beste ikertzaile batzuen ustez, aurreko hipotesia goi-mailako ikasprozesuan eraginkorra izan dadin, ezinbestekoa da ikasketariak ulermen-arazoak “*sufritzea*”. Honela, ikasketaria, 2Hko input-ak sortzen dizkion ulermen arazoak gainditzen saiatzen denean, bere 2Hko barne sisteman dauzkan hutsuneez konturatzen da. Hutsuneok bete ahala, ikasi egiten du.
- Baina zein da ikasketariak, jaiotzeko hitzunak ez bezala, izaten dituen ulermen-arazoen jatorria? Erantzunik zuzenena, jakina, hizkuntza da. Baina oso azaleko erantzuna da, zeren bi gauza suposatzen ditu:
  - a) Ikasketaria hizkuntza bakarrik ikasten ari dela
  - b) Jaiotzeko hitzunik ez dutela ulermen-arazorik izaten

Hizkuntza giza komunitateak ekintzak, ideiak, sinesmenak, arauak ... —kultura— adierazteko erabiltzen duen tresna da. Beraz, elementu hauek guztiak ez ezagutzeak ulermena oztopa dezake eta ikasketariaren kasuan, sarritan, ondare kulturalak sortutako ulermen-arazoak “hizkuntzari” leporatu ohi zaizkio. 2Hren hainbat elementu kultural propio ezagutzea ezinbestekoa da ulermenerako eta hizkuntzarekin batera jaso beharko lituzke ikasketariak.

Jaiotzeko hitzunik ulermen-arazoak izaten dituzte sarritan, baina normalean, ikasketarien kasuan ez bezala, komunikazioa ez da eteten, aurrera ateratzen dute, honelako komunikazio-hutsuneez gainditzeko estrategiak garatuta dauzkatelako. Hizkuntza formalarekin zerikusirik handia ez duten estrategia hauek ere eskuratu behar ditu ikasketariak, elkarrizketetan sor daitezkeen komunikazio-hutsuneez jaiotzeko hitzunaren antzera gainditu ahal izateko.

- Entzutezko aktibitateetan, gehienetan, oso hizkuntza “akademikoa” erabiltzen da, diskurtso-unitate luzeetan antolatua, jaiotzeko hitzunen arteko elkarrizketa azkarretako hizkuntz motatik urrun samar geratzen dena. Honela, ikasketaria ikasgelako “aterpea” utzi eta 2Hko mundu errealean murgiltzen denean, askotan, eta oso gaitasun altua izan arren, ulermen-arazoak izaten ditu. Beraz, orokorrean “hizkuntz arazotzat” hartzen direnak noraino ez ote dira hizkuntz motari dagozkionak?
- 1H eta 2Hko ulermenari buruzko ikerketak, gehienetan, ulermen-arazoetan baino gehiago hizkuntz arazoetan zentratu izan dira. Baina azken urteotan Diskurtsoaren Analiaren ikerketetan 2Hko ikasketarien ulermen-arazoak sakonkiago aztertu dira eta ikerketa hauen arabera, ikasketariak ulermen-maila altua lortzeko 3 trebetasun hauek garatu behar ditu:
  - 1 solaskidearen hasierako hitzetatik elkarrizketaren gaia asmatzeko trebetasuna
  - 2 geroago erantzun beharko dion elkarrizketaren norabide posibleei buruzko auresuposizioak egiteko trebetasuna, hau da, erantzun ezberdinak aldeztetik prestatzekoa
  - 3 zerbait ulertzen ez duenean, solaskidearengandik errepikapena erdiesteko “zeinu” esplizituak ezagutu eta adierazteko trebetasuna.

- Zerk egiten du entzutea zaila ala erraza? Eguneroko esperientzak adierazten du entzutea batzuetan zaila dela eta beste batzuetan erraza. Gehienok onartuko genuke irratiko eztabaida edo mahainguru sakon bat entzutea nahikoa zaila dela eta haur bat ipuin bat irakurtzen entzutea, berriz, erraza. Uste intuitibo honen azpian era askotako faktoreak daude, hiru kategoria hauetan bil litezkeenak:

- 1 entzuten den hizkuntz mota
- 2 zein helbururekin edo zertarako entzuten den
- 3 entzutea gertatzen deneko testingurua

Eztabaida sakona 1 eta 3 faktoreei dagokienez zaila da: gaia eta hizkuntz mota konplexuak izan daitezke, esaten dena oso abstraktua eta auresaten zaila izan daiteke; oso ahots eta hizkera ezberdineko pertsonak har dezakete parte. Testuinguruaren aldetik, inguruko zarata ere handia izan daiteke eta irratia, jakina, ez du ikustezko laguntzarik eskaintzen.

Zailtasun hauek guztiak entzutearen helburuarekin lotu-loturik doaz: entzule bat, agian, eztabaida entzuten egon daiteke, baina noiz bukatuko zain, hurrengo saioa entzun nahi duelako; beste batek, berriz, adi-adi entzungo du eztabaida osoa, bere lanbiderako interes handikoa baita. Era ezberdinean bada ere, biak ari dira gauza bera entzuten, baina helburu ezberdinekin. Bigarrenari askoz gehiago kostako zaio entzutea, guztia entzun, gogoratu eta interpretatu egin nahi duelako. Lehenak, arreta handirik jarri gabe, entzun nahi zuen guztia entzun du, baina ezin izango du esandakoa hitzez hitz gogoratu, ezta ere zein hizkuntz mota erabili den. Beraz, eguneroko bizitzan badira helburu ezberdinetako entzute-motak eta ikasgelako entzute-aktibitateak burutzerakoan kontutan hartu beharko lirатеke.

- Badira, baita ere, entzutezko materialak sortzerakoan kontutan hartu behar diren faktore batzuk, materialen zailtasunean eragin zuzena dutenak. Nagusienak hauexek dira:

**1 Informazioaren antolamendua:** testu narratiboetan ikasketariak askoz errazago ulertu ahal izango du narrazioak ordena kronologikoa segitzen duenean segitzen ez duenean baino.

**2 Gaiarekiko hurbiltasuna:** gai ezezagun baten aurrean jaiotzeko hitzunek ere ulermen arazoak sarritan izaten badituzte, zer esanik ez 2Hko ikasketariak. Oso kontutan hartzekoa da faktora hau ikasgelako aktibitateetan.

**3 Informazioaren esplizitutasuna:** ikasketariak jasotzen duen informazio-kopuruak eragin zuzena du ulermenaren zailtasunean, baina testuaren esplizitutasunaren aldetik, ez kopuru fisikoarenetik.

**4 Input-mota:** ikerketa enpiriko batzuen arabera, ahozko testuak hiru multzo handitan sailka litezke: estatikoak, dinamikoak eta abstraktuak. Banaketa hau gauza, pertsona, gertaera eta ideien arteko harreman posibleen konplexutasunean oinarritzen da. Grafikoan ikusten den bezala, zailtasuna handitu egiten da ezkerretik eskuinerantz, input-mota ezberdinen arabera.

<i>Estatikoa</i>		<i>Dinamikoa</i>	<i>Abstraktua</i>
Deskribapena	Deskribapena/ Instrukzioa	Istorio kontaketa	Iritzia

– Zailtasuna +

- 5 Prozesatze-karga.** Ez da ahaztu behar gizakia “prozesagailu mugatua” dela eta, beraz, ezin dakiokete eska informazio luze eta pisutsua konputagailu batek bezala prozesatzea. Entzutezko Ulermenak ulertzea du helburu, ez entzundakoa sakonki aztertu, prozesatu edo buruz ikastea. Bestela, entzutezko ariketarik laburrena ere benetan zaila gerta liteke.
- 6 Ikustezko oinarria.** Entzuten ari dena argiago ulertu ahal izateko oso lagungarri suertatzen zaio ikasketariari nolabaiteko ikustezko oinarria (diagramak, argazkiak, grafikoak, TB...) izatea, batez ere hasierako mailetan.
- 7 Taldeka / bakarka.** Gainerako hainbat aktibitateetan bezala, talde-lana oso onuragarria da entzutezkoetan ere, zeren kooperazioa eta elkarreragina areagotu egiten baitira eta, baita ere, zerbait ez ulertzeagatik hain maiz sortzen den frustrazioa murriztu.
- 8 Zubi kognitiboak.** Entzuleak ez du hizkuntza “kasete batek” bezala jasotzen; entzuten duena interpretatu egiten du, bere entzuteko helburuaren arabera eta bere ezagupen-ondarera etengabe egokituz. Etengabeko egokitzapen hau oso kontutan hartzea da klaseko aktibitateetan, batez ere grabaketak erabiltzen direnean, grabaketen berezko deskontestualizazioa oztopoa izan baitaiteke ikasketariarentzat zubi kognitiboak eraikitzerakoan. Hau saihesteko, komenigarria litzateke ikasketariari egoera errealeko testuinguruak eskainiko lukeen informazioa (egoera, partaideak...) aldezturik eskaintzea.
- Ez da ahaztu behar Ulermena landu egin behar dela eta ez, sarritan egiten den bezala, ebaluatu. Atal honen hasieran aipatzen zen bezala, 2H ulertzea ez da inolaz ere erraza eta honegatik praktika luzea behar du. Entzutezko aktibitateei “azterketa” itxura gehiegitan ematen bazaie, ikasketaria, agian, beldurtu eta frustratzeko arriskua sor daiteke, era honetako aktibitateetan agerriago geratzen baita ulertzen ez dena ulertzen dena baino, ikasprozesuaren kaltetan.
  - Lehen aipatu bezala entzute-motak era askotakoak izan daitezke, komunikazio-egoera, solaskidea eta beste hainbat faktoreren arabera. Richards-ek bi entzute-mota orokor bereizten ditu: **elkarrizketakoa** (hizketa arrunta) eta **akademikoa** (hitzaldiak...). Elkarrizketako entzuketak trebetasun hauek eskatzen ditu:
    - \* luzera ezberdinetako hizkuntz zatiak tartelaburretan gogoratu
    - \* xede-hizkuntzaren soinu bereizgarriak diskriminatu
    - \* hitz-azentuaren eredu ezberdinak antzeman
    - \* xede-hizkuntzaren egitura erritmikoa antzeman
    - \* azentua eta doinuaren funtzioak antzeman, esaldien informazio-egitura markatzeko
    - \* hitzak kokagune indartu eta indartugabeetan identifikatu
    - \* hitzen forma laburtuak identifikatu
    - \* hitzen arteko mugak identifikatu
    - \* hitz-ordenaren eredu tipikoak antzeman
    - \* elkarrizketa arruntetan erabiltzen den lexikoa antzeman
    - \* gaia identifikatzen duten hitz klabeak antzeman
    - \* hitzen esanahia testuingurutik inferitu

- \* kategoria gramatikalak bereiztu (berbaldiaren parteak)
- \* sintaxi-ereduak eta tresnak antzeman
- \* kohesio-tresnak diskurtso mintzatuan antzeman
- \* elementu gramatikalen eta esaldien forma eliptikoak antzeman
- \* esaldien osagaiak bereiztu

Entzuketa akademikoak trebetasun hauek eskatzen ditu:

- \* hitzaldiaren helburu eta xedea identifikatu
- \* hitzaldiaren gaia identifikatu eta beronen garapena jarraitu
- \* diskurtso barneko unitateen arteko harremanak identifikatu (ad. ideia nagusia, generalizazioak, hipotesiak, ideia osagarriak, adibideak)
- \* hitzaldiaren egitura adierazten duten diskurtso-markatzaileen papera identifikatu (ad. adberbioak, hasierak, errutinak)
- \* harremanak (ad. zergatia, ondorioa) inferitu
- \* gaiari buruzko lexiko-item klabeak antzeman
- \* hitzen esanahia testuingurutik inferitu
- \* kohesio-markatzaileak antzeman
- \* informazioaren egitura markatzen duten entonazio-elementuen papera antzeman (tonua, bolumena, abiadura)
- \* hizlariaren gaiarekiko jarrera antzeman

Elkarrizketa/entzuketa akademikoa bereizketa kontutan hartu gabe, lehen zerrendak “mikrotrebetasunak” izango lituzke eta bigarrenak trebetasun “diskurtsibo edo erretorikoak”. Biak dira behar-beharrezkoak bai elkarrizketetan parte hartu ahal izateko baita hitzaldi akademikoak jarraitu ahal izateko ere. Entzuketa-mota bi hauen ezaugarri hauek gida bezala erabil daitezke klaseko aktibitateak diseinatzeko, beti ere ikasketariaren maila eta beharrak kontutan harturik.

## AHOZKO ADIERAZPENA

HE1en definizioaren arabera, ikasketariak maila honetara heltzen denean elkarrizketarako gaitasuna altu samarra izan behar du, ikastetxearen eguneroko bizitzan euskaraz parte hartzeko gai izango bada. Elkarrizketarako gaitasun honek ahozko adierazpen maila altua eskatzen duenez, honen lanketak trataera intentsibo eta esentsiboa behar izango du 1.000, 2.000 eta 3.000 Ataletan. Honetarako orientabide batzuk eskaintzen dira, irakasleen lana argitu eta aberasteko asmotan.

- Hasierako moduluan bada ere eta ikasketariaren hizkuntz gaitasuna kontutan harturik, elkarrizketa indartu behar da bakarriketa baino gehiago. Honek ez du esan nahi 0 mailatik elkarrizketak bakarrik landu behar direnik, baizik eta ahozko ekoizpena, ahal den heinean, elkarreraginera eta elkarrizketara zuzendu behar direla .
- Elkarrizketa azpimarratu nahi bada, aktibitateen kontestualizazioa ezinbestekoa izango da. Honetarako eguneroko bizitza maiz antzeztu beharko da ikasgelan eta, baita ere, jokoak eta antzerako aktibitate “informalak” erabili.
- Honen helburua ikasketariak hizkuntza errealia ezagutu eta ikastea eta, honekin batera, eguneroko egoera arruntetan hizkuntza hori segurtasunez erabiltzea.

Honetarako noizean behin egituren berrikusketa ziklikoak egitea gomendatzen da, ikasketariak hizkuntza arrunt hori "oroimen aktiboan" ondo finkaturik izan dezan.

- Ikasketari askoren ingurunea guztiz erdalduna izaten denez, ikasgelan ikasten duena praktikan jartzeko arazo handiak izan ditzake, bere euskararekiko harreman ia bakarra komunikabideak izaten baitira. Hutsune hau nolabait betetzeko IRALEko zentruak eskain ditzaketen baliabide guztiak (pertsonala, zerbitzuak, kanpo-harremanak, materialak...) erabili beharko lirateke, ikasketariaren eguneroko bizitza ikasgelara bakarrik muga ez dadin.
- Ikasketariak elkarrizketetan naturaltasunez parte hartu ahal izateko estrategiak garatu behar ditu. Estrategia hauek ez dira mugatzen galde-erantzunak era zuzen eta egokian egitera; esaldi eginak, betegarriak, etenak, formulak etabar luze bat sartzen da estrategia hauen barruan, baita entonazioa eta doinuera ere. Entzutezko Ulermeneko aktibitateek hauek guztiak eskuratzen ikaragarri lagunduko badute ere, erruz praktikatu beharko ditu ikasketariak. Honetarako elkarrizketa labur-laburrak behin eta berriro antzeztea gomendatzen da bai gela barnean baita kanpoan ere.
- Egitura gramatikalen erabilera aurreko puntuarekin lotu-loturik doa: prozedura bera jarraitzea gomendatzen da honekin ere, hots, elkarrizketa edota mintzariketeta labur asko egitea ikasketariak, alde batetik, hizkuntza eguneroko egoera arruntetan finka dezan eta, bestetik, hizkuntza erabiliz bere aurrerapenaz eta gaitasunaz kontura dadin.
- Zehar estiloari ere, eguneroko hizkuntzan duen pisua kontutan harturik, hasiera-hasieratik garrantzi handia eman behar zaio. Aurreko puntuetan aipatutako prozedura jarraituz, ikasketariak zehar estiloaren mekanismoak automatizatu behar ditu eta, beraz, hau lortzeko sarritan "dosi" txikitik praktikatzea gomendatzen da. Ikusteko oinarriak (grafikoak, diagramak, istorio mutuak...) eta idatzizkoak (komikiak, ipuinak, egunkarietako iragarki laburrak ...) ezinbestekoak izango dira eguneroko praktika hau bizia izan dadin.
- Ez da ahaztu behar HE1ean, zuzentasuna baztertu gabe, komunikazioa dela helburu eta, beraz, bai ahozko bai idatzizko ekoizpenean oinarria testua dela, eta ez esaldi "gramatikala". Ikasketariak testu idatziak eta ahozkoak ekoizten ikasi behar du, ez loturarik gabeko esaldi-segidak. Honek, jakina, kontestualizazioa eskatzen du eta baita, agian, errakuntza gramatikalen trataera berria ere, zeren testuak zuzentasun gramatikala baino gehiago suposatzen baitu.
- Hizkuntza mintzatua eta idatzia ez dira inolaz ere berdinak eta, beraz, ez luke zentzu handirik izango hizkuntza mintzatua lantzeko hizkuntza idatziaren ereduak eskaintzeak. Hizkuntza mintzatuaren ezaugarri propioak diren bapatekotasuna eta txanda aldaketaz gain, hizkuntza mota bien artean badira beste bereizgarri batzuk, Brown & Yule-k honela bildu zituztenak:

Hizkuntza idatzia	Hizkuntza mintzatua
<ul style="list-style-type: none"> <li>● esaldi borobilduak</li> <li>● pasarte egituratuak</li> <li>● kontzeptu-dentsitate handia</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● esaldi laburrak, batzuetan bukatu gabeak</li> <li>● ahoskera eta doinuera ezberdinak</li> <li>● errepikapen ugari</li> <li>● solapamenduak</li> <li>● erreferentzia ez-espezifikoak (gauza, hori...)</li> <li>● betegarriak (ba..., zera...)</li> <li>● kontzeptu-dentsitate txikiagoa</li> </ul>

Autore hauen ustez, irakasleak, hizkuntza mintzatua irakasteko, honelako galderei erantzun bat eman beharko die:

- \* zein da irakatsi behar den ahozko hizkuntza egokia?
  - \* ahoskeraren (doinueraren) ikuspuntutik, zein litzateke eredu onargarria?
  - \* nolako garrantzia dauka ahoskerak (doinuerak)?
  - \* ahozko hizkuntza idatzia baino garrantzitsuagoa da? Zergatik?
  - \* gramatika-egituren aldetik, egokia litzateke ahozko hizkuntza idatzia balitz bezala irakastea, baina "ahozko espresio" batzuk txertaturik?
  - \* egokia da ikasle guztiei gramatika-egitura berberak irakastea, adina, interesak eta asmoak kontutan hartu gabe?
  - \* ikasleak 2Hn hitz egiteko beharko dituen egiturak eta ikasmaterial edo programazioetan agertzen direnak berberak ote dira?
  - \* nola eskaini diezaiekegu ikasleei praktika esanguratsua 2Hn hitz egin dezaten?
- Ahozko hizkuntza oso aldakorra izan daiteke komunikazio-egoeraren arabera. Ikasgelako aktibitateak diseinatzerakoan, ikasketariak ikastetxeko komunikazio-egoera ezberdinetan behar izango duen ahozko hizkuntzaren ezaugarriak kontutan hartu behar dira. Honetarako ahozko hizkuntzaren barruan egin diren bereizketak, adib. Funtzio Transakzionala // Funtzio Interpertsonala (informazioa ematea // gizarte-harremanak mantentzea) edota Bakarrizketa // Elkarrizketa (hitzaldiak // solaskide bat edo gehiago), lagungarriak izan daitezke.
  - Ikasgela barneko testuingurua eta bizitza errealekoa ezberdinak diren arren, ikasgelako mintzapraktikak, ahal den neurrian, bizitza errealeko komunikazioa imitatu beharko luke ikasketariak benetako ahozko komunikazioan trebatu ahal izateko. Hurrengo orrialdeko taulan ikasgela barneko mintzapraktika "tradizionalaren" ezaugarriak eta gelaz kanpoko ahozko komunikazioarenak biltzen dira, irakasleentzat ahozko aktibitateak diseinatzeko argigarriak izango direlakoan.

<b>Gela barneko ahozko praktika</b>	<b>Gelaz kanpoko ahozko komunikazioa</b>
<b>Komunikazioaren edukina</b>	
<p>Gaia irakasleak edo testuliburuak aukeratzten du. Esaten denaren esanahia batzuetan ez da oso argia hiztunentzat. Edukina/gaia aise asma daiteke aurretiaz.</p>	<p>Hiztunek beren ideia, nahi, iritzi, jarrera propioak adierazten dituzte. Ondo dakite transmititu nahi duten esanahia. Mezuaren edukina aurretiaz asmatzea zaila da.</p>
<b>Komunikazioaren arrazoa</b>	
<p>Ikasleek praktikatzeko hutsagatik hitz egiten dute; edota irakasleak hala esan dielako; nota ona ateratzeko, etab.</p>	<p>Hiztunek badaukate hitz egiteko arrazoren bat, pertsonal edo soziala. Informazio-hutsune bat dago betetzeko, edo ziurgabetasun-gune bat argitzeko. Esaten dena printzipioz interesgarria edo erabilgarria da partaideentzat.</p>
<b>Komunikazioaren emaitza</b>	
<p>2Hn hitz egiten da; irakasleak esaten dena onartu/zuzentzen du; nota ona jartzen die (kanpoko motibazioa).</p>	<p>Hiztunek beren helburuak betetzen dituzte; nahi zutena lortzen dute: informazio-hutsunea bete, erabaki bat hartu, gizarte-harreman bat sortu... Emaitza interes edo balio handikoa da partaideentzat.</p>
<b>Komunikazioaren partaideak</b>	
<p>Talde handia: batzuk ez daude aurrez aurre hiztunekin edota esaten denaz interesaturik, irakaslea salbu. Honek garrantzi handiagoa ematen dio zuzentasunari esaten denari baino.</p>	<p>Bi pertsona edo gehiago, gehienetan aurrez aurre; garrantzi handiagoa ematen diote esaten denari zuzentasunari baino.</p>
<b>Komunikazio moduak</b>	
<p>Irakaslearen hizkera (edo kasetekoa) ikasleentzako mailara zehazki egokitua da. Hizketa guztia oso zehatza da eta normalean esaldi osatuetan antolatua. Komunikazio-arazoak itzulpenen bidez konpon daitezke. Ikasleentzako ekoizpena estandarretik desbideratzen bada, zuzendu egiten zaie, mezua ondo adierazita dagoen kontutan hartu gabe. Irakasleak zuzentasun handiagoaz adierazten laguntzen die.</p>	<p>Jatorrizko hiztunaren ekoizpena gehienetan egokitu gabea da. Mezua hiztunak eskura dituen baliabide guztiekin (linguistiko edo paralinguistikoak) transmititzen da. Komunikazio-arazoak partaideen ondare kultural amankomuna transmititu/trukatuz konpontzen dira. Itzulpena ez da beti posible. Komunikazioari eragiten ez dioten akatsak alde batera uzten dira.</p>

*Pattison-en Developing Communication Skills liburutik moldatua*

## IRAKURRIAREN ULERMENA

- HE1ean ahozko hizkuntzari emango zaio garrantzia bereziki, baina honek ez dio lekuri kentzen ez irakurketari ez idazketari. Ahozko adierazpena gainera, sarritan, irakurritakoaren transmisioa izaten da, testu idatzietatik jasotako informazio-trukea. Honek berekin dakar ikasten den hizkuntzaren kode ezberdinez jabetzea.



- HE1eko ikasketariak ez ditu bere eskola-saioak euskaraz emango eta horrenbestez, ez ditu testu-liburu konplexuak erabili beharko. Hala ere, ikastetxeko eguneroko dinamikan testu-liburuak ez diren hainbat idatzirekin topo egingo du. Bestalde, HE2ra bideratuko diren ikasketariek oinarri sendoa lortu beharko dute aurrera jarraitzeko.
- Hizkuntzaren ikasprozesuan, gainera, irakurketa baliabide garrantzitsua gertatzen da ikasitako hainbat hizkuntz forma finkatzeko, horien erabilera eta funtzio ezberdinez jabetzeko, eredu estilistikoak aurkitzeko, etab.
- Irakurketaren helburuak, beraz, bat baino gehiago izango dira eta irakurtzeko erak ere, haien arabera, ezberdinak :
  - \* Gai jakin bati buruzko informazioa jasotzeko egiten den irakurketa zehatza. Astiro egiten da eta berrirakurketak, atzera bueltatzeak, etab. eska ditzake. Lortutako informazioa ahoz zein idatziz eman behar baldin bada, eskemak egitea, laburbiltzea, kodez aldatzea edota berridaztea ere eskatuko du.
  - \* Informazio jakin bat aurkitzeko egiten den irakurketa (ordutegiak, karteldegia, izenburuak ...). Arin egiten da eta arreta testu-zati jakin batean jartzen da.
  - \* Irakurketa bera beste helbururik ez duena, "plazerrerako" irakurketa. Edozein eratako testuak izan daitezke eta nork bere erara irakurriko ditu.
  - \* Testua bera aztertzeko irakurketa, hau da, bere egitura diskurtsiboan eta horretarako erabilitako baliabideetan arreta jartzen duena. Hizkuntza ikastea du helburu.
- Irakurtzearen helburu eta irakurtzeko era ezberdin horiek ikasgelako ihardueran bere islada izango badute, testu-mota ezberdinak erabili eta bakoitzaren arabera aktibitateak proposatu beharko dira. Ezin ondoriozta daiteke hemendik, ordea, ikasketariek testu-tipologiari buruzko teoriak ikasi behar dituztenik eta are gutxiago irakurtzen irakatsi behar zaienik. IRALEko ikasketariak ezagutzen ditu testu ezberdinen ezaugarriak, garatuta ditu irakurtzeko estrategiak (testuingurutik esanahia inferitzea, informazio mailak bereiztea ...) eta askotan gaia bera ere ondo ezagutuko du. Beraz, Irakurriaren Ulermenerako izugarritzko garrantzia du benetako testuak edota egiantzekoak erabiltzeak. Testuinguruaren elementuak (nork idatzia, norentzat, noiz, non, elementu tipografikoak...) zenbat eta gehiago eskaini, orduan eta errazago testuaren ulermena. Horrez gain, jakina, ezinbestekoa da testua ikasketariaren hizkuntz mailarako egokia izatea.

## IDATZIZKO ADIERAZPENA

- Hizkuntza idatzia, ahozkoa bezalaxe, egoera komunikatibo ezberdinetan erabiltzen da. Testu idatzi bakoitza baldintza jakin batzuetan eta helburu jakin batekin sortzen da. Testu idatziaren gauzapenean eragina izango duten faktoreak bat baino gehiago izango dira:
  - \* igorlea-hartzailea: nork nori idazten dion eta beraien arteko harreman-mota
  - \* xedea: idatziarekin lortu nahi dena (gertaera baten berri eman, eskaera bat egin...)
  - \* gaia: zientifikoa, arrunta, orokorra, espezifikoa...
  - \* euskarria: kartela, gutuna, arbela, egunkaria...
- Testuingurua osatzen duten faktore horiek kontutan hartuta, testu idatziak ondorengo ezaugarriak izango ditu:
  - \* egokitasuna: egoera komunikatiboak eskatzen duen hizkuntz erregistroa

- \* koherentzia: beharrezkoa den informazioaren aukeraketa eta egituraketa
  - \* kohesioa: testuaren zatien arteko lotura, lokailu, puntuazio-marka eta gainerako baliabideen erabilera
  - \* zuzentasuna: arau ortografiko eta morfosintaktikoen erabilera zuzena
- Hizkuntzaren irakaskuntzan idazlanak (“gai baten garapena”) tradizio handia izan du eta oraindik ere, askotan, idazketan egiten den ariketa ia bakarra da, testu-mota (iritzi-artikulua? erreportaia? azalpen-testua?..), norentzat eta zein helbururekin idazten den ia inoiz zehazten ez direlarik. Honela, idazlanaren helburu bakarra “zuzentasunez idaztea” da (zuzentasun gramatikala gehienetan) eta denborarekin “aberastasuna lortzea” (sintaxi konplexua, lexiko zabalala..) izan ohi da. Honen arabera egindako balorazioak alde batera uzten ditu gorago aipatutako puntuak. Izan ere, ezinezkoa litzateke, adibidez, hizkuntz erregistroa, egoera komunikatiboa zehaztu gabe, hartzaileari egokitzen zaion neurtzea. Ikasketariari izenburu bat besterik ematen ez bazaio, horretaz dakien guztia adierazten saiatuko da eta kosta egingo zaio informazio aukeraketa egitea; ezer gutxi baldin badaki, berriz blokeatu egingo da edo idazteagatik idatziko du, ezer komunikatu gabe.

Planteiamendu honek dakarren iritzia hau da: ikasketariak goi-mailara iritsi arte, “hizkuntza” menderatu arte, ezin izango du “ondo idatzi”; beraz, idazten ikastea prozesu luze eta neketsua da.

- Ikuspegi funtzionalago batetik, idazteak beste zerbait esan nahi du, alegia, benetan erabiltzen diren testuak ekoiztea, ikasketariaren beharretara egokitzea eta honek zer, zertaz, norentzat, zertarako eta non idatzi beharko duen kontutan hartzea. Testu-tipologiak orientabide gisa lagungarri gertatzen dira horri erantzuteko. Batetik, testu-mota ezberdinak identifikatu, zerrendatu, eta sailkatzen laguntzen digutelako; bestetik, batzuen eta besteen ezaugarrien arteko aldeak ikusarazten dizkigutelako eta azkenik, simple eta errazenetatik zailago eta konplexuagoetarako progresio posibleak antzeman daitezkeelako. Idazketa era honetara antolatuz gero, ikasketariek hasiera-hasieratik idatz dezakete “ondo”.
- HE1eko ikasketariaren idatzizko komunikazioa oso egoera jakinetan gertatuko da eta sortu beharko dituen testu-tipoak erraz zehaz daitezke (ikus Behar Komunikatiboen Azterketa eta Portaerazko Helburu Xehesak). Ez dira testu konplexuak izango eta, neurri handi batean, formula estereotipatuekin osatuko ditu. Gainera, ikasketariak idatzi-mota horien “ezaugarri unibertsalak” dei litezkeenak ezagutzen ditu; honek lagundu egingo dio, irakurketaren bidez bereziki, euskarazko ordainak aurkitzen. Hortik dator ereduak eskaintzearen garrantzia. Bestela, ereduak eskaini ezean hitzez hitzezko itzulpenak egiteko arriskua dago, euskaraz onargarriak ez liratekeen kalkoak, lexiko desegokia eta abar erabiliz.
- Ez litzateke ahaztu behar, bestalde, trebetasun honen helbururik behinena ikasketariak egunero ekoizten diren tetu arruntak erraztasun, egokitasun eta zuzentasunez idaztea dela. Hau honela izanik, irakasleek ikasgelarako aktibitateak diseinatzerakoan komunikazio errealeko idazketa-prozesuaren hiru faseak izan beharko lituzkete gogoan:
  - a planifikazioa (testuaren kontestualizazioa eta egituraketa)
  - b testualizazioa (testuaren sorketa)
  - c berrikusketa
- Orain arte esandakoagatik pentsa liteke idazketaren esparrua gehiegi murriztea dela, testu funtzional batzuetara mugatuz. Idazketak, ordea, leku zabalagoa hartzen du hizkuntzaren ikas-irakaskuntzan, hizkuntzari buruzko gogoeta egiten

laguntzen duen heinean. Ahozko adierazpena eta idatzizkoa gertatzen direneko egoerak erkatuz gero, bistakoa da, besteak beste, zein alde dagoen baterako eta besterako hartzen dugun denborari dagokionez. Elkarriketan, pentsatzeko asti handirik gabe, bapatean hitz egitera behartuta gaude. Idaztean, berriz, pentsatzeko denbora hartzeak hizkuntzarekin esperimintatzeko aukera ematen digu (egitura berriekin jolastu, zalantzak argitzeko kontsulta-liburuetara jo, ideia berbera era batera baino gehiagotara adierazten saiatu...). Idazte-prozesuak, hartara, hizkuntza finkatzen laguntzen du eta, askotan, hitz egiteko entrenamendua ere izan daiteke (gai bat azaldu behar denean, debate batean parte hartu...). Horrela bada, hemen ez da proposatzen testu-zerrenda mugatu bat antolatzen ia buruz ikasi arte jardutea. Hori mutur batetik (idazlan "libre"tik) bestera (errezeta-multzo bat ikastera) joatea litzateke. Tartean hainbat ariketa daude ikas-prozesua azkartzeko beharrezkoak. Ezin dugu ahaztu pertsona heldua, edozer ikasteko, idazketaz zenbaiteraino baliatzen den.

## IKASGELARAKO AKTIBITATEAK

- Bukatzeko, eta inolako asmo agortzailerik gabe, ikasgelako aktibitateetarako teknika batzuk proposatzen dira, irakasleen lanerako lagungarriak izan daitezkeelakoan.

### ENTZUTEZKO ULERMENA

- \* Ahozko testu laburretan lexiko-item jakinak identifikatu.
- \* Partaide-kopurua identifikatu.
- \* Instrukzio-segidak ulertu eta burutu.
- \* Datu pertsonalen eskaerak ulertu.
- \* Pertsonak eta gauzak identifikatzeko eskaerak ulertu.
- \* Objektuen deskribapenak entzun eta ez-ahozko zein ahozko erantzunaz identifikatu.
- \* Zenbakiak identifikatu.
- \* Orduak entzun eta identifikatu.
- \* Familia eta lagunei buruzko informazio zehatzaren eskeak ulertu.
- \* Egoera eta ekintzen deskribapenak entzun eta ez-ahozko zein ahozko erantzunaz identifikatu.
- \* Testuinguru/ikustezko euskarria emanda, deskribapen sinpleak ulertu.
- \* Zenbaki ordinalak ulertu.
- \* Egunak, hilabeteak eta datak entzun eta identifikatu.
- \* Ahozko testuen inguruko "Egia/Gezurra" esaldiak identifikatuz, gertaeren diskriminaziorako trebetasuna garatu.
- \* Gai arruntei buruzko informazio eskaerak ulertu.
- \* Ahozko testuak entzun eta bertako informazioa itxuraldatu eta beste forma batean aurkeztu (diagramak, laukiak...).
- \* Inferitzeko trebetasunak garatu, ahozko testuak entzunez eta beroni buruzko E/G inferentziak identifikatuz..
- \* Gai arruntei buruzko gertaera eta jarrerazko informazio eskaerak ulertu.

- \* Testu narratibo labur baten funtsa bereganatu.
- \* Hizlariaren egoera emozionala doinu eta entonaziotik identifikatu.
- \* Inferitzeko trebetasunak garatu, ahozko testuei bukaera egokia eman.
- \* Ahozko narrazio-testuak ulertu, gertaerak sekuentziaturik daudenean.
- \* Ahozko narrazio-testuak ulertu, gertaerak sekuentziaturik ez daudenean.
- \* Ahozko testu batetik informazio zehatza atera.
- \* Testu luze baten funtsa bereganatu.
- \* Instrukzio-kate luzeak burutu.
- \* Ekintzak eta iritziak bereiztu.
- \* Ahozko testu baten genero eta erregistroa identifikatu.
- \* Entonazio ezberdintasunak bereiztu.
- \* Elkarrizketaren partaideen arteko harremanak identifikatu.
- \* Esaldi / espresio baten jarrera emozionala identifikatu.
- \* Gai ezezagunei buruzko elkarrizketa laburren xehetasunak ulertu.

#### AHOZKO ADIERAZPENA

- \* Gauza arruntak izendatu.
- \* Informazio pertsonala eman (izena, adina, helbidea).
- \* Kantak eta errimak buruz ikasi eta taldean esan.
- \* Elkarrizketa labur eta kontestualizatueta parte hartu.
- \* Gauza arrunten deskripzioak egin.
- \* Gauzak eskatu.
- \* Familia eta lagunak deskribatu (adina, harremanak, altuera, pisua, ilea, begiak).
- \* Norbera eta besteen gustuez galdetu eta erantzun.
- \* Ahozko aurkezpen baten ondoren, galderak egin / xehetasunak eman.
- \* Besteen familia eta lagunei buruzko xehetasunak eskatu hitz jakinak erabiliz.
- \* Gai ezagunei buruzko adierazpen laburrak egin hitz jakinak erabiliz.
- \* Eguneroko aktibitateei buruz hitzegin.
- \* Ordu osoak eta erdiak adierazi.
- \* Kopuru mugatuak adierazi (prezioak...).
- \* Gai arruntei buruzko adierazpen laburrak egin.
- \* Argazki, mapa edo diagrama bati buruzko adierazpen kateatuak egin eredu bat jarraituz.
- \* Binaka edo talde txikitan lan egin, informazioa trukatzuz eta arazoak konponduz.
- \* Ordua adierazi, ordu laurdenak eta minutuak barne.
- \* Iraganeko gertaera-sekuentzia labur bat deskribatu, perpausa jakinak erabiliz.

- \* Testuinguru egokia emanda, adierazpen osoak egin eredu jakin bat jarraituz.
- \* Gauza / entitateen arteko konparazioak egin.
- \* Agurtzeko eta despeditzeko formulak erabili.
- \* Eguneroko gai espezifikoei buruzko argazkiak deskribatu.
- \* Argazki / komiki batean agertzen den iraganeko gertaera-kate bat deskribatu.
- \* Taldeka, inferentziak egitea eta kausalitatea argitzea eskatzen duten arazoak konpondu.
- \* Gai / topiko espezifikoei buruzko iritziak eman.
- \* Elkarrizketa eta diskurtso-estrategiak erabili (adib. gaia aldatu, informazio osagarria eman, norbaiti hitzegiteko eskatu...).
- \* Norabide sekuentzia bat eman.
- \* Eskariak eta eskaintzak egin.
- \* Etorkizuneko gertaerei buruz hitzegin.
- \* Ahozko aurkezpen baten puntu nagusien laburpena egin.
- \* Egoera hurbil baten argazkiaren deskribapen zehatza egin.
- \* Prozesu sinpleak deskribatu.
- \* Ekintza-sorta kateatu bat deskribatu.
- \* Ahozko zein idatzizko iturrietako informazioa integratzea eskatzen duten arazoak konpondu, taldeka.
- \* Elkarrizketa eta diskurtso estrategiak erabili (desadostasuna adierazi, esaten dena baloratu....).
- \* Ahozko aurkezpen baten puntu nagusien eta ideia osagarrien laburpena egin.
- \* Gai ezagun bati buruzko ahozko azalpena eman (aurretiaz prestatua).
- \* Informazio ez-idatziari buruzko (mapak, diagramak...) ahozko azalpen laburra eman.
- \* Prozesu konplexuak diagrama baten laguntzaz deskribatu.
- \* Gertaera-sekuentzia bat deskribatu, aspektu / denbora ezberdinak erabiliz.
- \* Informazio konfliktiboa argitzea eskatzen duten arazoak taldeka konpondu.
- \* Telefonozko mezuak ulertu eta adierazi.
- \* Norberaren iritzia argitu modalizazioa erabiliz.
- \* Gai ezagun bati buruzko ahozko aurkezpena eman (prestatu gabea).
- \* Elkarrizketa-estilo ezberdinak erabili, formaletik informalera.
- \* Gai abstraktoei buruzko hipotesiak egitea eskatzen duten arazoak konpondu, taldeka.
- \* Gai abstraktoei buruzko galderak egin / erantzun.
- \* Elkarrizketa eta diskurtso estrategia zenbait erabili.

## IRAKURRIAREN ULERMENA

- \* Hitz jakinen zerrenda identifikatu kontestuan agertzen denean.
- \* Zenbakien hitzezko formak ulertu.
- \* Zerrenda kontestualizatu laburrak irakurri (adib. erosketak).
- \* Gauza ezagunen deskribapen laburrak ulertu.
- \* Hitz jakinen zerrenda identifikatu kontestuan eta kontestutik kanpo agertzen denean.
- \* Gai ezagunen inguruko pasarte laburrak irakurri eta xehetasun faktualei buruzko galderak erantzun (Bai/Ez; Egia/Gezurra).
- \* Prezioak eta kopuruak irakurri.
- \* Ahoz menperatutako esaldiak irakurri.
- \* Pasarte laburrak irakurri eta xehetasun faktualei buruzko galderak erantzun (Bai/Ez; Zer, Non, Noiz...).
- \* Pasarte laburrak irakurri eta pasarteari buruzko inferentziazko esaldi zuzenak identifikatu.
- \* Lauki edota ordutegi batean aurkeztutako informazioa irakurri eta interpretatu.
- \* Irakasleari istorio bat diktatu eta gero irakurri.
- \* Gai ezagun bati buruzko istorioa irakurri eta aukera ezberdinetatik ideia nagusia hautatu.
- \* Nahasian aurkeztutako esaldiak eta pasarteak ordena egokian jarri.
- \* Hiztegia erabiltzeko trebetasuna garatu (aurkibidea...).
- \* Instrukzio idatzien kate bat burutu.
- \* Pasarte labur bat irakurrita, gero zer gertatuko den aurrikusi (aukera ezberdinetatik hautatu).
- \* Testu laburrak azaletik irakurri eta hitz jakin batzuk aurkitu.
- \* Erreferente anaforikoen jatorrizko hitzak identifikatu.
- \* Testu bat irakurri eta ideia nagusia adierazi.
- \* Gai ezagunei buruzko testuetan konektore logikoak (juntagailuak) identifikatu.
- \* Testu luzeak (hiztegia, telefono aurkitegia) azaletik irakurri informazio espezifikoa aurkitzeko.
- \* Gai ezagunari buruzko istorio labur bat irakurri eta ahozko laburpen bat egin.
- \* Testu bat irakurri eta oinarritzko informazioa ez-hitzezko kodean adierazi (grafikoak edo taulak bete).
- \* Gai ezezagunei buruzko testuetan konektore logikoak identifikatu.
- \* Narrazio edo deskribapen bat jarraitu gertaerak sekuentziaturik daudenean.
- \* Gertaerak eta iritziak bereiztu.
- \* Testu batean ideia nagusiak eta informazio osagarria adierazi.
- \* Gai ezezagunei buruzko testuetan lotura logiko izkutuak identifikatu.

- \* Narrazio edo deskribapen bat jarraitu, gertaerak sekuentziaturik ez daudenean.
- \* Testu idatzi batean egilearen aurreritziaren seinaleak identifikatu.
- \* Testu baten azpiko helburua antzeman.
- \* Informazio garrantzitsua garrantzi gabekotik bereiztu.

#### IDATZIZKO ADIERAZPENA

- \* Zenbakiak letraz adierazi.
- \* Mezu laburrak eta zerrendak (erosketak...) idatzi.
- \* Gauza edo pertsonen deskribapen laburra eta kontestualizatuak idatzi.
- \* Lexiko aukeratuaren zerrendak idatzi.
- \* Diktatu ahala, esaldi ezagun laburrak idatzi.
- \* Gauza edo pertsonen deskribapen labur eta kontestualizatuak osatu.
- \* Nahasian aurkeztutako esaldiak pasarte koherenteetan berridatzi.
- \* Lagun bati gai ezagun bati buruzko ohar pertsonal laburra idatzi.
- \* Ulermen galdera bati erantzunez, esaldi labur bat idatzi.
- \* Gai ezagun bati buruzko diktatua idatzi.
- \* Esaldi solteetatik pasarte bat antolatu kohesiorako baliabideak erabiliz.
- \* Gauza edo egoera / gertaera arrunt baten deskribapena idatzi.
- \* Ulermen galderei erantzun idatzia eman.
- \* Narrazio-testu bati bukaera idatzia eman.
- \* Gai ezezagun bati buruzko testu diktatua idatzi.
- \* Gai libreko aktibitateen bidez jariakortasuna garatu.
- \* Ahozko edo idatzizko testu baten laburpen eskematikoa idatzi.
- \* Ez-hitzezko informaziotik (grafiko, diagrama...) testu idatziak sortu.
- \* Argudiozko testu bati hasiera/B'ukaerako pasarteak erantsi.
- \* Entsaio labur bat idatzi, pasarteak informazio ezberdinaren arabera antolatuz.
- \* Idazketa-prozesuaren parte bezala, arin idatzi, etenik egin, ezabatu edo zuzendu gabe.
- \* Idazten hasi baino lehenago prestaketa-estrategiak erabili.
- \* Berrikusketa-estrategiak erabili idatzitakoa txukuntzeko.





**ERASKINAK**



## 1. ERASKINA: LEXIKOA

Osagai lexikoaren zehazpen honetarako abiapuntu eta funtsezko oinarria Euskara Zerbitzuaren babespean argitaratutako "Maiztasun Hiztegia" liburua izan da. Atal honetan bi hitz-zerrenda eskaintzen dira: **Oinarrizko lexikoa** eta **Gaikako zerrendak**.

**1 Oinarrizko lexikoa.** HE1ean aurrikusi diren behar komunikatiboetara aurre egin ahal izateko oinarrizko lexiko baten jabe izan behar du IRALeko ikasketariak. Zerrenda hau oinarrizko ondare lexiko hori zehazteko saio bat da. Honetarako bi irizpide hartu dira kontutan:

**a** Lehenengo irizpidea, garrantzitsuena, maiztasunarena izan da, hau da, euskaraz maiz erabiltzen diren hitzak zeintzuk diren zehaztea. Hitz horiek letra arruntez eman dira zerrendan, adibidez: abandonatu, abarka, abokatu, abendu...

**b** Aldez aurretik zehaztutako 14 gai zabali buruz hizketan aritzeko beharrezkotzat jotako hitzak. Bigarren irizpide honekin, lehenengoaren bidez zehaztutako lexikoa osatu nahian, gai jakin bati buruz hitz egiten denean, agian maiztasun handikoak izan gabe, beharrezkoak, arruntak eta ohikoak diren hitzei eman zaie sarrera. Izan ere, "dutxa", "lanpara" edo "pertsiana" gai orokorreari buruzko ihardunetan ez dira maiztasun handiko hitzak, baina bai beharrezkoak, agian, etxeari buruz hitz egiten denean. Zer esanik ez "eskola-kontseilua", "akta", "etengabeko ebaluazioa" edo "koordinazioa" bezalako hitzen kasuan irakaslanari buruz aritzean. Hitz hauek guztiak Oinarrizko Lexikoa izeneko zerrendan kurtsibaz agertzen dira, adibidez: *abrelata, administratibo, aginte-organo, akademia...*

**2 Gaikako hitz zerrendak.** Zerrenda hauek gorago aipatu den bigarren irizpidearen aplikazioaren ondorio dira. Hamalau gai zehaztu dira eta gai bakoitzarako beharrezkoen jotako terminoak aukeratu dira. Gaiak ondoko hauek dira:

- |                                 |   |
|---------------------------------|---|
| 1 Gorputzaren atalak            | 8 Jokoak, kirolak, dibertsioak            |
| 2 Jantziak                      | 9 Eguneroko ekintzak                      |
| 3 Etxea eta etxeko gauzak       | 10 Familia                                |
| 4 Janariak eta edariak          | 11 Landareak eta animaliak                |
| 5 Sukaldea eta sukaldeko gauzak | 12 Ogibideak eta lanak                    |
| 6 Eskola eta eskolako gauzak    | 13 Pertsonen izaera eta itxura fisikoa    |
| 7 Herria eta herriko gauzak     | 14 Hezkuntza eta hezkuntza administrazioa |

Bukatzeko, ohar garrantzitsu bat egin beharra dago: ikasketari batek eskuratu behar dituen baliabide lexikoak mugatzea zaila da, berau hizkuntzaz baliatuko deneko egoerak era guztietakoak eta aurrikustezinak baitira, eta unean uneko beharrianak oso desberdinak izan baitaitezke. Honako hau, beraz, gai honetarako hurbilpentzat hartu behar da eta 3.600 hitz inguru jasotzen dituzten zerrendok orientabide gisa erabili.

**OINARRIZKO LEXIKOA**

<b>A</b>	<i>adoregabe</i>	aire	alde	andre
	<i>adoretsu</i>	<i>aireportu</i>	alde egin	andregai
abade	<i>ados</i>	aise	<i>alderatu</i>	<i>andrezale</i>
abandonatu	<i>ados egon</i>	aita	alderdi	andrezko
abarka	adostasun	aitabitxi	<i>aldez aurretik</i>	anekdota
abarketa	adreilu	aitaginarreba	aldi	angula
abendu	afaldu	aitajaun	<i>aldi baterako</i>	animatu
aberastasan	afari	<i>aitaorde</i>	aldizkari	animo
aberastu	<i>afiliatu</i>	<i>aitaponteko</i>	aldrebes	<i>aniztasun</i>
aberats	ageri	<i>aitasantu</i>	<i>ale</i>	<i>anker</i>
aberia	agertu	<i>aitazulo</i>	alegia	<i>anorak</i>
aberiatsu	agian	aitita	alegre	antioju
abeslari	agindu	aitona	<i>alfabetatu</i>	<i>antolamendu</i>
abesti	agintari	<i>aitorpen</i>	<i>alfabetatze</i>	antolatu
abestu	agintaritza	aitortu	alfer	antxoia
abiatu	<i>agintaritza</i>	aitzakia	alferrik	<i>antxume</i>
abilidade	<i>akademiko</i>	aitzur	<i>alfonbra</i>	antz
abioi	aginte	aizkolari	<i>alkantarila</i>	<i>antzar</i>
abisatu	<i>aginte-organo</i>	aizkora	alkate	antzeman
abisu	<i>agiri</i>	<i>aizto</i>	<i>alkatxofa</i>	antzerki
<i>abizen</i>	<i>agortu</i>	akabatu	alkondara	<i>antzinatasun</i>
abokatu	<i>agregatu</i>	akabo	<i>almendra</i>	antzoki
abots	<i>agregatutza</i>	<i>akademia</i>	almoada	antzutu
<i>abrelata</i>	agudo	<i>akademiko</i>	alor	<i>anulazio</i>
abrigo	agurtu	<i>akaparatzaile</i>	<i>alta</i>	anuntzio
abuztu	<i>ahaidetasun</i>	akaso	<i>alta hartu</i>	<i>apain</i>
adar	ahal	akats	<i>alta-egun</i>	apaindu
<i>adarra jo</i>	ahalegin	akordatu	altu	apaiz
adibide	ahalegindu	<i>akordio</i>	<i>alturita(ka)</i>	<i>apal (iz.)</i>
adierazi	ahalmen	akordu	altxatu	<i>apal (adj.)</i>
<i>adierazpen</i>	<i>ahari</i>	<i>akta</i>	alu	aparatu
<i>adierazpen-maila</i>	ahate	<i>akta jaso</i>	ama	<i>aparkaleku</i>
<i>adimen</i>	ahaztu	<i>aktibo</i>	<i>ama-hizkuntza</i>	apartatu
<i>adimen urriko</i>	ahitu	<i>aktore</i>	amabirjina	aparte
<i>adimen-urritasun</i>	ahizpa	<i>aktriz</i>	amabitxi	apenas
<i>adimentsu</i>	aho	al	<i>amaginarreba</i>	<i>apezpiku/obispo</i>
adin	<i>ahosabai</i>	ala	<i>amaiera</i>	apiril
<i>adin nagusi</i>	<i>aholku</i>	alaba	amaitu	<i>aplikatu</i>
<i>adin txiki</i>	<i>aholku-batzorde</i>	alai	amama	<i>aplikazio</i>
<i>adinkako</i>	<i>aholkulari</i>	alaitu	<i>amankomun</i>	<i>aplikazio-arauak</i>
<i>banaketa</i>	<i>aholkulari</i>	alanbre	amantal	<i>aprobatu</i>
adiskide	<i>tekniko</i>	alargun	<i>amaorde</i>	<i>aprobetxamendu</i>
<i>adiskidetsu</i>	<i>aholkularitza</i>	alargundu	<i>amaponteko</i>	<i>aprobetxamendu-</i>
aditu	<i>ahoz</i>	<i>albaitero</i>	<i>amazulo</i>	<i>or ri</i>
<i>aditu (aditza)</i>	<i>ahozikin</i>	<i>albarikoke</i>	<i>ametitu</i>	aprobetxatu
<i>aditz</i>	<i>ahozko</i>	albo	amets	apropos
<i>aditzera eman</i>	<i>ahozko ariketa</i>	<i>alboratu</i>	<i>amets egin</i>	apuntatu
<i>administrari</i>	<i>ahozko azterketa</i>	aldaba	amodio	apur
<i>(izen)</i>	<i>ahozko proba</i>	<i>aldagela</i>	amona	apurtu
<i>administratibo</i>	ahul	<i>aldakaitz</i>	amu	apustu
<i>(adj.)</i>	ahuntz	aldaketa	amuarrain	<i>aran</i>
<i>administratzaile</i>	ailegatu	<i>aldakor</i>	anaia	<i>arasa</i>
<i>administrazio</i>	aingeru	<i>aldakuntza</i>	<i>anaia-arrebak</i>	<i>arau</i>
<i>administrazio eta</i>	<i>aingira</i>	aldamen	<i>anbulantzia</i>	<i>araubide</i>
<i>zerbitzuetako</i>	aintzin	aldapa	<i>anbulatorio</i>	<i>araudi/arautegi</i>
<i>pertsonal</i>	aipamen	aldare	<i>andere(ka)</i>	<i>arautu</i>
<i>(AZP)</i>	aipatu	aldatu	andereo	<i>arbel</i>

arbi	arrasto	astun	azalore	bakarrik
<i>arbitro</i>	arrastrero	asuntu	<i>azalpen</i>	<i>bakarti</i>
arbola	<i>arratoi</i>	atal	azaro	<i>bakarzale</i>
ardi	arratsalde	<i>atalburu</i>	<i>azkazal</i>	bakazio
ardo	<i>arratsaldeko</i>	atari	<i>azeituna (oliba)</i>	bake
ardura	<i>ordutegi</i>	ate	azelga	baketsu
<i>ardura hartu</i>	arraultze	atenditu	azenario	<i>bakezale</i>
<i>ardurabako</i>	arraun	atentzio	azeri	bakoitz
arduradun	arraza	atera	azertatu	bala
<i>arduratsu</i>	arrazoi	<i>aterki</i>	azkar	<i>baldar</i>
arduratu	<i>arrazoitze</i>	<i>atezain</i>	azken	balde
are	arre	<i>atezaintza</i>	<i>azken(ka)</i>	<i>baldintza</i>
area	arriba	<i>atlas</i>	<i>azkonar</i>	<i>baldintzatu</i>
arerio	arren	atrapatu	azoka	<i>baldosa</i>
<i>areto</i>	arrimatu	atseden	azpi	<i>balea</i>
<i>argal</i>	arriku	<i>atsedenaldi</i>	<i>azpikogona</i>	<i>baliabide</i>
argazki	arropa	atsegin	<i>azpimarratu</i>	baliatu
argi	arroz	<i>atseginez</i>	azterketa	balio
<i>argibide</i>	<i>arrozesnea</i>	atun	<i>azterketa</i>	balkoi
<i>argibide-orri</i>	<i>arrunt</i>	<i>atzamar</i>	<i>gainditu</i>	<i>baloi</i>
<i>argitalpen-data</i>	artalde	<i>atzapar</i>	<i>azterketa-egun</i>	<i>baloratu</i>
<i>argitara eman</i>	<i>artazi (guraize)</i>	<i>atzazal</i>	aztertu	<i>balorazio</i>
argitaratu	<i>arte (zuhaitza)</i>	<i>atzoskol</i>	aztura	balore
argitu	arte	atze	azukre	banaka
marisorgin	umoretsu	pertsonal	alfabetatu	artxibo orokor
marizikin	uzkur	(AZP)	alfabetatze	asignatura
marmarkari	xelebre	ados	alta	asistentzia
mehe	xuhur	ados egon	alta-egun	asmo
mesprezugarri	zabal	ados egonez	ama-hizkuntza	atal
mihiluze	zahar	ados ez egon	amaiera	atalburu
mihizorrotz	zaintsu	adostasun	amankomun	atezain
misteriotsu	zakar	afiliatu	ametitu	atezaintza
moldakaitz	zantar	agertu	andereo	atsedenaldi
moldakor	zaratatsu	agindu	aniztasun	atseginez
motel	zarpail	aginduak	antolamendu	atzerapen
motz	zehatz	agintari	antolatu	atzeratu
musikazale	zeken	agintaritzea	antzeko	aukera
mutu	zentzudun	akademi-ko	antzinatasun	aukeratu
nabarmen	zentzugabe	aginte	anulazio	aurkezpen
nazkagarri	zikin	aginte-organo	aplikatu	aurkeztu
negarti	zintzo	agiri	aplikazio	aurrekontu
		agortu		

auzi	behean sinatzen	eredu	idazkaritza	jagole
auzitegi	duena(k)	erreforma	ikara	jarleku
azaldu	behin-behineko	erregu	ikas-prozesu	jarrera
azalpen	behin-betiko	errekuperazio	ikasgai	jolastoki
azpimarratu	beka	errekurtso	ikasketaburu	kaleratu
azterketa	bekadun	errendimendu	ikaskide	kalifikazio liburu
azterketa	beldur	eskabide	ikaskuntza	kargu
gainditu	berri eman	eskabide-orri	ikaslego	kide
azterketa-egun	berrikusi	eskakizun	ikastaro	klarion/kreda
aztura	betebehar	eskatzaile	ikasturte	klaustro
babes	bidezko	eskola-kontseilu	ikur	klaustrokide
baiezko	bigarren	eskolatu	ikusari	koaderno
baimen	hizkuntza (BH)	eskubide	ikuskaritza	koordinatzaile
baimena eman	bigarren mailako	esparru	ikuskatzaile	koordinazio
baimena kendu	hezkuntza	espediente	ilara	laborategi
baimendu	(BMH)	eszedentzia	indartu	laburtu
baja	bikain	etekin	inprimagailu	laguntzaile
baja eman	bilera	eten	inprimaki	lan-egoera
baja hartu	biltzar	etengabeko	irakasere	lanbide heziketa
baja-egun	bozketa	ebaluazio	irakasgai	(LH)
bakante	buru	etxerako lan/	irakasgai	landu
baldintza	buruzagi/lider	behar	tekniko-	lanegun
baldintzatu	data	etxezain	praktiko	langile
baliabide	datu	Euskal Herriko	irakaskuntza	langileria
balio	debekatu	Unibertsitatea	irakaskuntza	lankidetz
baloratu	deialdi	(EHU)	arautu	lanpostu
balorazio	deitura	euskaltegi	irakaskuntza	lapitz
banaketa	derrigorrezko	ezaugarri	elebiduna	lege
banan-banako	bigarren	froga-agiria	irakaskuntza	legeria
banatu	hezkuntza	frogatu	ertainak (IE)	legezko
baremazio	(DBH)	gainditu	irakaskuntza	lehen mailako
barne	desadostasun	gaitasun	ertainaren	hezkuntza
barne araudi	diskete	gaixoaldi	erreforma (IEE)	(LMH)
bat etorri	ebazpen	gatazka	irakaskuntza ez-	lehentasun
bat ez etorri	eduki	gatx/zail	arautu	lehiaketa
bateratu	egiaztagiri	gehigarri	irakaskuntza	letra larri
batezbesteko	eginkizun	geldo	formal	letra xehe
batxilergo	egoera	gestio	irakaskuntza	liburu
bateratu	egoera	giza-baliabideak	homologatuak	liburutegi
balioanitz	administratibo	gomendatu	irakaskuntza	lizentzia
(BBB)	egonkortasun	greba	libre	luma
batxilergo	eguneratu	greba-egun	irakasle	luzapen
instituto	egutegi	guraso-elkarte	irakasle	maila
batxilergo	elbarri	gutxi	(matematika(ko)	margo
tekniko-	elebidun	gutxiegi	irakasle)	merezimendu
administratibo	elebitasun	haur	irakasle-gela	mezu
batxilergo	emaitza	haur-eskola	irakaslego	moldakaitz
tekniko-	epai	haur-hezkuntza	irakasmila	moldatu
industrial	epaiketa	hautzaindegi	irakasplan	nagusi
batzar	epaimahai	heldu	irakastordu	nahiko
batzartu	epaitegi	helduen	irakatsi	NAN zenbaki
batzorde	epaitu	irakaskuntza	irakurgai	nerabe
batzordeburu	epe	iraunkorra (HII)	irakurri	nerabezaro
baztertu	eragozpen	herabe	iraupen	nortasun
baztertu	erakunde	heziketa	irizpide	nortasun agiri
behar den	eramaleari	hezkuntza	istilu	nazional
lekuan	erantsi	hezkuntza	izakera	(NAN)
aurkezteko	erantzule	berezia (HB)	izena eman	nota
behartu	eraskin	hirurteko	izendapen	

oinarrizko curriculum diseinu (OCD)	ordezko ordezkotza	prestakuntza proba	testu totel/hiztotel	ikasturtea (UBI)
oinarrizko hezkuntza orokor (OHO)	ordutegi orri	programazio sail	trebetasun	xede
onarpen onartu	orrialde oso ondo/ongi	sailkapen saio	tutore tutoretza	xede operatibo
ondo/ongi opor	paper pedagogi	sakondu saritu	txanda txarto/gaizki irten	xehetasun zaintzaile
ordena alfabetiko	aholkutegi (PAT)	sasi-eskola sinadura	ukapen ukatu	zalantza zeregin
ordenadore ordenagailu	pertsonal ez-irakasle (PEI)	sinatu solairu	uko uko egin	zigor zigortu
ordezkapen ordezkari	pipert egin porrot	soldata suspentso	ume unibertsitate	zuzendari zuzendariorde
ordezkatu	prestaketa	talde multiprofesional	unibertsitatara bideratzeko	zuzendaritza zuzenketa





## 2. ERASKINA: HIZTUN ARRUNTAREN PROFILA

Eraskin honetan irakasle arruntak ikastetxearen eguneroko dinamikan Behar Komunikati-  
boen Azterketa azpiatalean zehaztutako komunikazio-egoeretan normalean burutzen dituen hiz-  
kuntz funtzioak eta honetarako erabiltzen dituen hizkuntz formak jasotzen dira. Honelako ze-  
rrenda batean ezin dira bildu irakasle arruntak bere lanean burutzen dituen hizkuntz funtzio  
guztiak ezta ere erabiltzen dituen hizkuntz forma guztiak. Eraskin honen helburua, beraz, HE1eko  
ikasketariaren hizkuntz eta komunikazio-beharren ikuspegi zabal bat eskaintzea da eta bere  
asmoa erabat orientagarria.

### I. Ikasketaria ↔ Ikasleak

1. Pasilua

## HIZKUNTZ FUNTZIOAK

### 1. Agurrak

Egun on/ Arratsalde on...

### 2. Kortesiako harreman laburrak

Zer moduz atzo...?

A ze jertse polita...! Bai... !

Hori da jertse polita!

Nora zoaz horrekin?

Sendatu zara?/ Hobeto zaude? (pelikula bat) Gustatu zitzaizun?

### 3. Aginduak

Gera zaitetz hor/ ez egin zaratarik!

Ez dadila inor sartu!

Ixilik!/ ixo!

Nor bere gelara sar dadila!

### 4. Sugerentziak

Zergatik ez...?

Hori kanpoan uzten baduzu, zer?

**5. Mehatxuak**

Ez ezazue zaratarik egin, bestela.../ osterantzean...  
Ikusiko duzu harrapatzen bazaitut!  
Bihar korrika sartzen dena klasean geratuko da atsedendian

**6. Baimena**

Utziko didazue pasatzen?  
(Komunera joan naiteke?) Bai, (joan zaitez) / Bai, baina arin bueltatu / Ez, orain ez,  
klasea bukatutakoan

**7. Ohartaraztea, gogoraraztea**

Gogoratzen duzue gero ... egiteko geratuta gaudela?  
Badakizue zer daukagun gaur, ezta?  
Zer esan dizuet lehen?  
Ez ahaztu ...-tzea  
Gogoan izan ...-tea  
Badakizue hemen ezin dela erre

**8. Informazioa eskatu**

Zer gertatu da lehen ...-(e)an/ -rekin, zarata handia entzun dut eta?  
Non daude besteak?  
Zer moduz dago Mikel?  
Zer esan zizun zuzendariak/ medikuak/ gimnasiakoak ...?  
Zein kurtsoak zarete zuek?  
Ikusi duzue ...?

**9. Informazioa eman**

Ziurtasunez: ikasgelan dago  
Bigarren eskuko informazioa: gaixořik omen dago  
Zalantza: ez dut uste etorriko denik // etorri dela uste dut  
Ez jakitea: ideiarik ez daukat // ez dakit // galdetu ...-ri

<p><b>1. Ikasketaria ↔ Ikasleak</b> 2. Patioa</p>
---

**HIZKUNTZ FUNTZIOAK**

**1. Aginduak**

Esaiozu horri hesira ez igotzeko, erori egingo da eta!  
Ez zaitez hor gainean ibili!

**2. Sugerentziak**

Zergatik ez zara elkartzen ...-rekin?  
Elkartu ...-rekin

**3. Aholkuak**

Hobe duzu/ zenuke jertsea ez kentzea

**4. Mehatxuak**

Zera esan dizuet lehen, hemen ez jolasteko, bestela kendu egingo dizuet baloia  
Horrela segitzen baduzue, aitari esango diot/ zuzendariarengana bidaliko zaituztet

**5. Debekuak**

Ezin da horrela ibili  
Badakizue hori debekatuta dagoela

**6. Informazioa eskatu eta eman**

Non hartu duzu mina?  
Zer gertatu da/ zaizu?

Zer egin diozu ...-ri?  
 Nondik jausi zara?  
 Zertan zabiltzate?  
 Zenbana zoazte/ nola doa partidua?

**7. Azalpenak eskatu eta eman**  
 (tipologia)

**8. Kontsolatu**  
 Ez da ezer  
 Laster pasako zaizu.  
 Sustoa besterik ez da izan

**9. Errukia adierazi**  
 Gixajoa, koittadua

**NOZIOAK**

Jokoak: izenak, arauak, emaitzak  
 Istripuak  
 Mina  
 Gorputzaren atalak  
 Haserrea/ liskarra  
 Arropak  
 Espazio-harremanak

<p><b>1. Ikasketaria ↔ Ikasleak</b>          3. Liburutegia</p>
---

**HIZKUNTZ FUNTZIOAK**

**1. Azalpenak eman**  
 (tipologia)

**2. Aholkuak**  
 Begiratu hor, nik uste dut zerbait aurkituko duzula.  
 Hau gustatuko zaizu, oso erraz irakurtzen da.  
 Irakurrita daukazu?/ Irakurri gabe daukazu?  
 Zergatik ez duzu irakurtzen?

**3. Laburpenak egin**  
 (tipologia)

**4. Iritziak eman eta eskatu**  
 Asko gustatu zait/ zitzaidan  
 Oso interesgarria da

**5. Norbait espazioan zuzendu/ bideratu**  
 Nobelak eta, ezkerreko apalategian daude  
 Hor, goitik hasita, bigarrean.

**NOZIOAK**

Liburutegiaren arautegiaren azalpena egin  
 Gai baten inguruko bibliografiaren berri eman

Liburu baten laburpena egin  
Irakurritako zerbaitez iritzia eman  
Liburu jakin bat non dagoen kokatuta adierazi  
Liburuaren munduarekin zerikusirik duen lexikoa  
Liburutegiko tresnak, parteak,  
Espazio-erreferentziak  
Testu idatzi baten zatiak

**I. Ikasketaria ↔ Ikasleak**  
4. Jantokia

## HIZKUNTZ FUNTZIOAK

### 1. Aginduak

Ez bota ezer lurrera!  
Ez bota inori ogi mamirik!  
Hau ez da olgetan ibiltzeko modua!  
Jan egin behar duzu, bestela txikia geratuko zara...  
Hartu ondo / behar bezala goilarea

### 2. Aholkuak

Zergatik ez dituzu zati txikiagoak egiten?  
Bultza iezaiozu ogiarekin

### 3. Norbaiti zer duen atsegin eta zer gustatzen zaion galdetu

Zer, ez zaizu gustatzen, ala?

### 4. Deskripzioa

(tipologia)

### 5. Zerbait egin daitekeen ala ez galdetu

Ezin da mahaitik altxatu  
Ezin da ezer utzi platerean

### 6. Laguntza eskaini

Nahi duzu nik zatitzea?  
Botako dizut nik ura?

## NOZIOAK

Jakiak  
Jantokiko tresnak  
Jatearen inguruko operazioak

**I. Ikasketaria ↔ Ikasleak**  
6. Tutoretza

## HIZKUNTZ FUNTZIOAK

### 1. Azalpenak eman

(tipologia)

### 2. Deskribapenak egin

(tipologia)

**3. Ohartaraztea**

Badakizu hobeto portatu behar duzula  
 Zer esan nizun atzo?  
 Ez ahaztu ...-tzea  
 Badakizu honela jarraitzen baduzu zer gertatuko den

**4. Bestek esandakoaren berri eman**

...-k esan dit ...-ela  
 ...-k esan didanez ...  
 Ez omen duzu gogorik erakusten  
 ...-ren iritziz, ...

**5. Batzar batean esandakoaren laburpena egin**  
(tipologia)**6. Informazioa eskatu**

Zer moduz matematikan?  
 Non zabilta txartoen?  
 Zer kostatzen zaizu gehien?

**7. Aholkuak/ orientabideak eman**

Etxean gehiago egingo bazenu?  
 Hobe zenuke ...-tu  
 Komeniko litzaizuke ...-tzea

**8. Zerbaiten garrantzia azpimarratu**

Oso garrantzitsua da ...  
 Ez pentsatu huskeria/ tontakeria denik ...

**9. Iritzia eman eta eskatu**

Zer deritzozu ...-tzeari?  
 Zer iruditzen/ irizten zaizu/ diozu?

**10. Plan bat azaldu**

(tipologia)

**NOZIOAK**

Ikastetxea  
 Ordutegiak/ egutegiak  
 Irakasgaien izenak  
 Programazioa, ebaluazioa eta jarraipenari dagokion lexikoa  
 Ikasprozesuari dagokion lexikoa

**II. Ikasketaria ↔ Irakasleak**

1. Mintegia / Departamentua

**HIZKUNTZ FUNTZIOAK****1. Proposamen / planen berri eman**

Zuek hirurok UBI bana har dezakezue  
 Proposamen bat daukat; 2.eko EATP bat hartzen duenak segi dezala 3.ean ere.

**2. Informazioa eskatu eta eman**

Erabakita daukazu gaiaren banaketa?  
 3.ekoek ikusita daukate hau?  
 Noiz emango duzu ...?

**3. Espekulazioak egin**

Agian, aurretik ... ikasi gabe, hau ez dute ulertuko  
Honekin nahastu egin litezke  
Kaltegarria izan liteke horrenbeste ematea  
Ez ote da gehiegi?

**4. Zalantza adierazi**

Baliteke hau hurrengo ebaluaketarako uztea  
Ez ote da goizegi hori emateko?  
Honetarako gai direla? Ez dut uste

**5. Obligazioa adierazi**

Liburu honekin segitzea beste biderik ez daukagu  
Derrigorrez prestatu behar dugu biharko

**6. Ezintasuna adierazi**

Batek bakarrik egiteko gehiegi da. Nik, behintzat ezin dut

**7. Iritzia eskatu eta eman**

Zer iruditzen zaizu azkenerako uztea?  
Ez litzateke hobe liburuz aldatzea?  
Nik hobeto ikusten dut ...-tea  
Eta ezin dugu ...?

**8. Adostasuna / eza adierazi**

Ez dakit zuek nola ikusten duzuen  
Ez dakit bat zatozten esan dudanarekin  
Orokorrean, ados nago, baina bi edo hiru gauza argitu nahi ditut  
Beraz, honetan geratzen gara  
Orduan, horrela egingo dugu  
Azken finean, gauza bera esaten ari gara denok

**9. Konparazioak egin**

Hau hori adina kostako zaie  
Hobe da bigarren hiruhilabetean egitea bukaeran baino  
Hilabete lehenago // Hilabete baino lehen  
Ez da hain beharrezkoa  
Hau ez dugu inoiz behar bezala lantzen  
Horretarako nahi beste material daukagu

**NOZIOAK**

Denboraren antolamendua:(datak, tarteak, maiztasuna...)  
Irakasgaiari dagokion lexikoa  
Mintegia / departamenduari dagokion lexikoa

<p><b>II. Ikasketaria ↔ Irakasleak</b> 2. Zikloko bilera</p>
--

**HIZKUNTZ FUNTZIOAK**

**1. Koordinazioari dagokion informazioa eskatu eta eman**

Zeren inguruan ibili zara hamabostaldi honetan?  
Zer moduz dabil Mikel zure klasean?  
Nire arloan asko aurreratu du /atzeratuta dabil  
Besteak baino askoz langileagoa da

**2. Koordinazio arazoei buruzko iritzia eskatu eta eman**

Zer deritzozue ... egiteari / egiten badut?  
 Nire ustez, den-dena ulertzen du  
 Nik uste dut oso nekatuta daudela  
 Ez dut uste egokia litzatekeenik  
 Nire iritziz, gehiago saiatu beharko luke

**3. Proposamen / sugerentziak egin**

Eta astero bilduko bagina?  
 Zer iruditzen zaizue ..-tea?  
 Zergatik ez dugu beste modu batean egiten?  
 Eta ezin dezakegu plana aldatu?  
 Egin ezazu zuk! Antola dezatela beraiek!

**4. Proposamenekiko adostasun/ eza adierazi**

Ados nago/ ez nago ados horrekin.  
 Bat nator / ez nator bat horrela egitearekin  
 Nik ere horrela egingo nuke / ez nuke egingo  
 Hori proposatzea arriskutsua da  
 Ezin dezakegu holakorik egin!

**5. Zerbaiti buruzko zalantza/ ziurtasuna adierazi**

Seguru nago aurreratuko duela  
 Ez dakit, ba... // Bai, bai, seguru nago  
 Agian bai // Beharbada... ez dakit  
 Nik baietz esango nuke, baina...  
 Asko saiaturiko balitz... agian lortuko luke  
 Ideia ona da; hala ere...

**6. Etorkizunerako plan / asmoen berri eskatu eta eman**

Pentsatuta daukazu aste honetan zer egin?  
 Ez daukazu ...-teko asmorik?  
 Aste honetarako pentsatuta neukan ...-tea.  
 Uste dut hobe litzatekeela ...-tea  
 Hori bukatzen dudanean, ...-arekin hasiko naiz  
 Datorren astean hastekotan nago  
 Laster bukatzeko asmoa daukat

**7. Aurretiaz emandako informazioari buruzko argibideak eskatu / eman**

Argi geratu da zer egin nahi dudan?  
 Errepikatzea nahi duzue?  
 Argi geratu da guztia?  
 Barkatu... zer esan duzu lehen?  
 Noiz esan duzu egingo duzula hori?  
 Berririo azal dezakezu azken hau, mesedez?

**NOZIOAK**

Denboraren antolamendua: maiztasuna...  
 Irakasgai ezberdinei dagokien lexikoa: ad. gaiak, atalak (erroketa, Erdi Aroa,...)  
 Ebaluaketari dagokion lexikoa: ad. aurreratu, bereganatu, atzeratu,...  
 Ikasleen izaera / portaerari dagokion lexikoa

**II. Ikasketaria ↔ Irakasleak****3. Klaustroa****HIZKUNTZ FUNTZIOAK****1. Ikastetxearen funtzionamenduari dagokion informazioa eskatu eta eman**

Badakigu ezer horretaz?; ...-aren berririk badaukagu?  
 Zer gertatu da azkenean ...-arekin?

Hori dela eta, zer egin dezakegu? Ba, begira, azken berria hau da...  
Ez dakit zer gertatu den  
Nik dakidan bakarra zera da, ...-la  
Zikloko bileran ...-tea erabaki / pentsatu dugu

## 2. Ikastetxearen funtzionamenduari dagozkion proposamenak egin

Komenigarria litzateke ...-tea  
Nik ...-tea proposatzen dut Ezin daiteke / liteke hori egin?  
Zergatik ez dugu ... egiten?; Egin dezagun hori eta kito!  
Tokatzen zaionak egin dezala  
Aktan ager dadila, mesedez!  
Eta 8.ekoek egiten badute, zer?  
Astiroago aztertu beharko genuke hori

## 3. Egindako proposamenekiko adostasuna / eza adierazi

Ez nago ados zuk proposatutakoarekin  
Bat nator hemen ez erretzearekin!  
Ez litzateke hobe ...-tea?  
Niri ez zait batere egoki iruditzen  
Nik uste konponbide hobeak badaudela  
Nik ez nuke hori egingo; Hori onartezina da  
Ez digute hori egiten utziko  
...-aren alde / kontra(koa) nago (naiz)

## 4. Zerbaiten arrazoiak eman

...-tzat jotzen dut ...-tea  
Gauden egoera kontutan hartuta... auzak horrela izanik, ...  
Hori egingo bagenu... ; Beraz, ...Horren ondorioz / eraginez, ...  
(\* Esaldi kausal esplikatiboak)  
Hori lortzeko beste erremediorik ez dago

## 5. Zerbaiti buruzko iritzia eskatu/eman

Zer iruditzen zaizue ...-tea / egiten badugu?  
Zer deritzozue ...-teari? Zer pentsatzen duzue horretaz?  
Nire ustez, hobe litzateke ...-tea  
Kontutan hartu behar da, baita ere, ....  
Egokiagoa iruditzen zait ...-tea  
Barkatu, baina hobe genuke ...-tea  
Nik nahiago nuke ...-tea

## 6. Zerbait egiteko posibilitatea/ ezintasuna

Ezin dugu holakorik egin. Hori onartezina da  
Nik uste egin daitekeela /litekeela /genezakeela  
Ez zegoen debekatuta ...-tea?  
Horrek arazoak ekarriko lituzke  
Ikuskaritzak ez digu/liguke hori egiten utziko  
Enteratzen ez diren bitartean egin liteke

## 7. Aurretiaz esandako zerbaiti buruzko argibideak eskatu/eman

Ez dut ondo ulertu zer proposatu duzun  
Zer esan duzu azkenean bilerei buruz?  
Errepika dezakezu lehen esan duzuna?  
Irakur/errepika dezakezu aktak zer esaten zuen?  
Horrekin zera esan nahi nuen, ...-la  
Ez didazu ondo ulertu; nik ...-la esan dut  
Nire asmoa ez zen hori, baizik eta ...

## NOZIOAK

Ikastetxearen funtzionamenduari dagozkionak:  
— aktak, bilerak



- arazo pedagogikoak
- ordutegiak
- erreforma, curriculum diseinua
- ikasketa bidaiak
- jantokia, liburutegia

## II. Ikasketaria ↔ Irakasleak

### 4. Irakasleen gela

## HIZKUNTZ FUNTZIOAK

### 1. Gertaera arrunten berri eskatu / eman

Badakizue zer geratu den? Ba, ...

Zer esan du irriak horretaz? Zer gertatu zitzaizun atzo?

Ba, haurren zain nengoela, Mikel ikusi nuen...ezetz asmatu norekin!

... eta han geratu nintzen, zer egin ez nekiela.

Handik hamar minutura lortu nuen aparkatzea, ez dakit nola baina ... eta barruan geratu behar izan nuen ...

(\* denborazko esaldiak) (\* aditz aspektuak, orain eta iraganean) (\* izanezko aditzak)

### 2. Deskribapenak egin eta berauei buruzko xehetasunak eskatu

Filmea nolakoa den? Interesgarria / jasanezina / hiru ordukoa/ tentsio handikoa/ berriro ikusteko modukoa / musika ederra duten horietakoa

Horren antzekoa / Hori bezalakoa / Hori baino handiagoa ...

(\* Konparazioa, superlatiboa)

Nortaz ari garen? Ba, gogoratzen duzu iaz hemen egon zen ordezkoa? Bai, beti erretzen ibiltzen zena... Opel Corsa bat zeukana... (\* Eralatiboa)

### 3. Gai arruntei buruzko iritzia eskatu / eman

Ona dela? Bai zera! Ez dago txarto

Hori baino itsusiagorik ez dut sekulan ikusi

Zer deritzozu ...-ari? Ondo deritzot / Zer iruditzen zaizue ...-tea?

Asko gustatu zitzaidan, bai. Berriro irakurriko nuke

Horrela egingo balute guztiek...!

Bere gauza onak ere baditu.

Hobe litzateke hain luzea ez balitz!

### 4. Gustu / nahi / desioak adierazi eta berauetaz galdetu

Asko / ikaragarri gustatzen zait

Ez zait batere gustatzen / Ez da nire gustukoa

Nahiago dut / nuke ... -tea/ -ø

Honen alperra ez banintz ...!

Gorrotatu egiten dut ... -tea! A zer nolako gorrotoa diodan ... -teari!

Ahal banu! Merkeagoa balitz! Hala balitz!

Daukadan guztia emango nuke hara joatearren!

Senarra ere etortzea nahi nuke, baina ...

Urduri jartzen naiz ikustearekin batera

Aberatsak bagina bezala ibiltzen gara han

### 5. Errekaduak jaso / eman

Javik esan dit hemen geratuko dela eta joan zaitezela bakarrik.

Esaiozu Anari, mesedez, bihar ez natorrela eta kotxea ekar dezala.

Ba... esan zidan oso gustura zegoela eta ahal duenean deituko dizula

### 6. Barkamena / baimena eskatu / eman

Barkatu...ez naiz konturatu Lasai, ez didazu minik egin

Inporta zaizu zure ondoan erretzea? Ez; nigatik nahi beste erre dezakezu

Leioa irekiko dut? Ito egingo gara bestela...

**7. Proposamenak egin / onartu / ez onartu**

Eta egun batean hondartzara bagoaz, zer?  
Orain, udaberrian? Izoztu egingo gara  
Bale. Bihar bertan. Zu ere animatzen zara?  
Ahal baduzu, eskertuko nizuke.  
Ez dago arazorik; egin nahi duzun bezala

**8. Mesedeak eskatu**

Hautsontzia pasako didazu mesedez?  
Pasatzen utziko didazu?  
Bilbora eramaterik baduzu / eramango nauzu? Kotxea apurtuta daukat eta.  
Inporta zaizu bihar zurekin etortzea?  
1000 pzta. uzterik baduzu / utziko didazu? Utzidazu 1000ko bat mesedez!

**9. Elkarrizketak hasi / jarraitu baliabide informalak erabiliz**

Zer moduz? Zer bizimodu daramazu aspaldion?  
Zer moduz klasean? Ondo esan behar  
Zer egin zenuen azkenean ...-arekin?

**10. Plan / asmoen berri eskatu eta eman**

Zer egin behar duzu oporretan? Erabaki duzue oporretan zer egin?  
Erretzeari uztekotan nago  
Hemen geratzeko asmoa daukagu  
Ni Sevillara joango nintzateke  
Gustatuko litzaidake, ba, kanpora joatea  
Ostiralean joatekotan, bai, kotxean joango nintzateke; bestela, autobusean

**11. Esan / entzundakoaren berri eskatu eta eman**

Ba, esan zidan hobeto zegoela, gogorik ez zeukala... ez zekiela noiz etorriko den.  
Galdetu nion ...-n // Erantzun zidan ...-la  
(\* Zehar estiloa, orain eta iraganean) (\* Aditz aspektuak, trinkoak)  
Eta badakizu zer esan zidan? Baietz, egia zela  
Entzun duzue zer esan duen irratiak?  
Eta egunkariak dakarrena? Ba, sekulako iskanbila sortu omen zen Parlamentuan

**12. Zerbaitekiko adostasuna / eza adierazi**

Ni ez nago prest hori egiteko. Hobe da ... -tea.  
Nire aldetik ez dago inolako oztoporik  
Konforme / ados nago horrekin  
Ni horra joan? Bai zera! Nirekin ez kontatu  
Oraintxe esan duzu egia!

**NOZIOAK**

Gauza, pertsona eta prozesuen deskribapenak:

- neurriak
- itxurak
- formak
- koloreak
- ezaugarriak
- jarrerak...

Ikastetxea eta beronen funtzionamenduari dagokien lexikoa  
Eguneroko bizitzari dagokion lexikoa

- etxea
- familia
- osasuna
- oporrak...

<b>II. Ikasketaria ↔ Irakasleak</b> 5. Zuzendaritza
--

**HIZKUNTZ FUNTZIOAK****1. Gertatutakoaren berri eskatu / eman**

Eta zer gertatu da azkenean horrekin?  
 Zer, berririk badago?  
 Beste horren berri baduzu?  
 Heldu da dirua?

**2. Baimena eskatu**

Aizu, datorren astean ikasleak ...-ra eraman nahi nituzke. Posible da?  
 ... erabil dezaket?

**3. Aholkua eskatu**

Zer egiten da holakoetan?  
 Zuk zer egingo zenuke?  
 Nola egin dezaket?  
 Norekin hitz egin beharko nuke?  
 Zer da hobe, neuk deitzea ala ...?

**4. Egin behar denaz galdetu**

Noizko bete behar dira fitxak?  
 Gaur bertan entregatu behar dut?  
 Gaur entregatu beharrik ez daukagu, ezta?  
 Derrigorrezkoa da ... -tzea?  
 Nahitaez egin behar da?  
 Beste aukerarik ez daukagu?  
 Niri dagokit hori?

**5. Mesedeak eskatu**

Esan diezaiokezu ...?  
 ...eska(tu) dezakezu?  
 Folioak behar ditut. Biharko ekartzerik baduzu?  
 Utziko didazu telefonoz deitzen?

**6. Zerbaiten arrazoiak eskatu / eman**

Ez dugu beste aukerarik izan  
 Horrela egin dut, bestela...  
 Interesgarria zela uste nuen  
 Beste batzuetan ere horrela egin izan dugu...

**7. Iritziak eskatu / eman**

Zer deritzozu ... egiteari?  
 Eta horrela egiten badut, zer?  
 Ondo legoke  
 Ez zait oso komenigarria iruditzen  
 Egin liteke, bai  
 Eta zer pentsatzen duzu horretaz?  
 Hobe litzateke ... -tzea

**8. Plan / asmoen berri eman**

Pentsatuta geneukan ...  
 Laster hasiko naiz horretan  
 Datorren astean hastekotan nago  
 ... bukatu arte ez naiz hasiko.

Oraingoz ez gara hasiko  
Hori bukatzen dudanean hasiko naiz

### 9. Abisuak eman

Esaiozu, mesedez, itxaron diezadala  
Nire gelara etortzeko esango diozu?  
Gogoratu / gogorarazi besteei bilera daukagula  
Ez omen da etorriko. Zuri abisatzeko esan dit

### 10. Telefonoz ustekabeen berri eman

Aizu, begira zer gertatu zaidan ...  
Ez daukat 9etarako heltzerik.  
Ez dakit zer ordutan heldu ahal izango naizen.

## NOZIOAK

Ikastetxearen funtzionamenduari dagozkionak.

<b>I. Ikasketaria ↔ Gurasoak</b>
----------------------------------

1. Telefonoa

## HIZKUNTZ FUNTZIOAK

### 1. Elkarrizketa telefoniko bat hasi

IKASKETARIAK BERAK DEITZEN DUENEAN

Egun on, (...) naiz. (...) dago?  
Egun on, (...) ikaslearen ama/ aita zara?  
Kaixo, institututik/ eskolatik deitzen dut (...)  
...-rekin hitz egin nezake? ...-rekin hitz egin nahi nuke  
(...) Jauna/ Andrea? (...) libre dago/ etxean dago/ jarri liteke?  
Lehen deitu duen bera naiz; barkatu berriz deitzeagatik...  
...-ren partez  
Beranduago/ bazkalorduan/ ...-etan deituko dut  
Eskolara deitzeko esango diozu, mesedez?  
Errekadu bat ematerik baduzu?  
Non topa nezake? Zein da bere lantegiko zenbakia?  
Nik (...) zenbakia markatu dut. Zein da zurea?

GURASOREN BATEK DEITZEN DUENEAN

Bai?! Nor da?! Esan...  
Gasteizko Koldo Mitxelena institutua. Egun on.  
Bai, neu naiz.// Bai, egunon. Nor zara zu?  
Bai, ni (...) naiz, eta zu? Noren partez?  
Momentu bat, mesedez, berehalaxe jarriko da. Ez eskegi  
Beranduxeago deitzerik baduzu?  
Nahi duzu berari zer edo zer esatea? Eman zure telefonoa eta berak deituko dizu.

### 2. Komunikazio telefonikoa mantentzen dela egiaztatzea

Bai..., bai..., ez... // hum..., hum..., hum...  
Ondo entzuten duzu?! Entzuten didazu?  
Txarto entzuten da. // Ez dut ondo entzuten. Altutxoago hitz egin, mesedez?  
Errepika zenezake esan duzun azkena?  
Bai? Hor zaude?! Segitzen duzu?  
Komunikazioa eten egin dela uste dut.

### 3. Elkarrizketa telefonikoa amaitu

Agur/ adio / hurrengora arte/ beste bat/ gero/ ikusi arte  
Gura/ nahi duzun(era)/ zatozen(era) arte.

Batzarraren egunera arte, beraz  
Mila esker deitu izanagatik. Goraintziak ...-ri nire partez

#### 4. Norbaitekin hitz egiteko zita bat kontzertatu

Zer ordutan (...)? Noiz/ Zer ordutan etor zintezke?  
Noiz/ zer ordutan datorkizu ondoen?  
Noiz ikus genezake elkar?  
Bai, edozein ostegunetan, 4etatik 5etara.  
Ostegunerako geratuko gara?  
Orduan horretan geratzen gara, astelehenean, 5etan.  
Ezin duzu bihar, tutoretza-orduan, 10'30etan? Eta 12etan egingo bagenu?

#### 5. Zita bat onartu edo eman

Bai/ Bale/ Ondo/ Ederto/ Konforme  
Gustu handiz. 12etan, beraz. Edozein egunetan, 2etatik 3etara. / Betiko/ ohiko orduan.  
Neska/ mutila hartzera zatozen edozein egunetan. Zain egongo naiz

#### 6. Zita bat atzeratu edo aurreratu

Ez, sentitzen dut, ordubete beranduago izan behar du  
Beranduago bai, ordu horretan eskola daukat eta  
Ostiralean izan beharrean, zer moduz datorkizu ostegunetan?

#### 7. Zerbaiten zergatiak azaldu

(...), ze (...) ...-lako/ (...) eta/ zeren (...)

### III. Ikasketaria ↔ Gurasoak

#### 2. Eskola Kontseilua

## HIZKUNTZ FUNTZIOAK

### 1. Informazio eta komunikazio-funtzioak

(Ik. 3. Eraskina)

### 2. Norbait agurtzea

Egun on/ arratsalde on/ gabon  
Arratsalde on denoi/ etorri zareten guztioi  
Jaun-andreak, gabon.

### 3. Nork bere burua eta besteak aurkeztea

Ni (...) naiz Ni (...) naiz, hau (...) da.  
Hemen (...), hor (...), harantzago (...)  
Hor ...-ena (...) da.  
Aurkeztu beharrik ez dago, baina baten batek ezagutuko ez balu...

### 4. Sugerentziak egitea

Zergatik ez (...)?  
Hobe litzateke ...-tea  
Eta ...t(z)en baduzu/ ...ko bazenu?  
Zer iruditzen zaizu ... -ten baduzu?  
Inoiz ez zaizu bururatu ...-tzea?  
Horretaz gure sugerentziak ondoko hauek dira: ...  
... zenezakete?  
Hona hemen ideia batzuk: ...

### 5. Pertsuasioa

Saia zaitetz!  
Proba ezazu eta konbentzitu zara.

Hori horrela da, dudarik ez egin.  
Egin behar zenuke.  
Beste biderik ez dago.  
Horixe da modu bakarra.

#### 6. Nork bere burua zerbaitetarako eskaintzea

Lagunduko dizut?  
Prest nago edozertan laguntzeko.  
Zeure esanetara (nago)  
Hori nire kontura  
Utzi hori nire eskuetan  
Nahi izan ezkerro, nik (...) nezake.

#### 7. Informazioa eskatzea

Zer/ Norekin/ zelan/ ... egiten du?  
Esango didazu, mesedez, ...-n?  
... jakitea gustatuko litzaidake  
Esan zeniezadake ...-n?  
... jakin nahi nuke  
Esango zenidake, inporta ez bazaizu, ...?  
Barkatu zuzenegia banaiz, baina...

#### 8. Iritzia ematea/ galdetzea

Nire iritzi/ iritzirako ...  
Nire ustez/ ustetan // Nik ... uste dut  
Baietzean/ Ezetzean nago  
Nik ... pentsatzen dut  
Beldur naiz ez ote ...  
Konbentzituta nago...  
Inork galdetuko balit, ... esango nioke.

### IV. Ikasketaria ↔ Hezkuntza Administrazioa

#### 1. Pertsonala, Nominak...

## HIZKUNTZ FUNTZIOAK

### 1. Atal bakoitzari dagokion informazioa eskatu

Mesedez, esan diezadakezu noiz bukatzen den ... -teko epea?  
Esango didazu, mesedez, zer ... ?  
Norekin hitz egin beharko nuke orduan?  
Oraindik ez dira irten zerrendak? Eta noiz aterako dira?  
Jakin nahi nuke ea aurkez naitekeen ...-ra

### 2. Arazo pertsonalak azaldu

Begira, hilabete honetan ez didazue gehigarriak ordaindu . Zer gertatu da?  
Besteetan baino gehiago deskontatu didazue  
Nominetan zuekin hitz egiteko esan didate ...

### 3. Arazoen konponbideetaz galdetu

Orduan zer egin dezaket / nezake?  
Norekin hitz egin behar dut / nuke ...-teko?  
Eta nork konpon dezake / lezake hau?  
Nahikoa da instantzia hau betetzea?  
Instantzia betetzearekin konpontzen da guztia?

### 4. Telefonoz Atal jakin batekin kontaktuan jartzeko eskatu

Egun on, Pertsonalarekin hitz egin nahi nuke  
Nominekin jar nazakezu, mesedez?

Nominekin, mesedez?  
Ikuskaritzarekin jarriko nauzu, mesedez?

## NOZIOAK

Denboraren antolamendua: datak...  
Hezkuntza Administrazioaren Atal ezberdinei dagokien lexikoa:  
— Nominak: igoera, jaitsiera, kenketa...  
— Pertsonala: behin behinekoa, ordezkoa...

<p><b>IV. Ikasketaria</b> ↔ <b>Hezkuntza Administrazioak</b> 2. Eskolazaintza</p>
---

## HIZKUNTZ FUNTZIOAK

### 1. Informazioa / materiala eskatu

Non gordetzen dituzu karpetak?  
Badauzkazu laborategiko giltzak?  
Folio handirik geratzen zaigu oraindik?  
Badakizu non dagoen .....?  
... ikusi duzu gaur?

### 2. Mesedeak eskatu

3.ekoei 10 minutuz itxaroteko esango diezu?  
Maria ikusten baduzu, esaiozu mesedez bere bila nabilela.  
Gorde diezadakezu hau ordu erdiz?  
Egin ditzakezu fotokopia hauek biharko?

### 3. Instrukzioak eman

Azterketarako folio pakete bat behar dut. Eraman dezakezu eta mahaietan banatu, hiruna? Hamaiketan puntuan hasi behar dugu. Enbalatzeko papera behar dugu txartelak egiteko. Moztuta ekar dezakezu? zimurtu egingo da bestela metro bateko zatiak gutxi gora behera...  
Fotokopia hauek egiten dituzunean, beheko parte hau estal ezazu, mesedez, idazteko lekua izan dezaten.

## NOZIOAK

Gauzen deskribapena: neurria, kolorea, parteak...  
Eskolako materialari dagozkionak

<p><b>V. Ikasketaria</b> ↔ <b>Eskolaz kanpoko solaskidea</b> 1. Udala</p>
---

## HIZKUNTZ FUNTZIOAK

### 1. Udal zerbitzuei buruzko informazioa eskatu, bertan zein telefonoz

Jakin nahi nuke noiz bukatzen den erakusketa  
Jakin nahi nuke noiz arte irauten duen ...-ak.  
Esan diezadakezu, mesedez, zein ordutan ...?  
Esango didazu zer egin behar den horretarako?  
Ostiraletan ere joan gaitzke / gintezke?  
Edozein ordutan joan gaitzke ala txanda eskatu behar da?

## **2. Bisitak kontzertatu / aldatu / baieztatu Udaletxean bertan zein telefonoz**

Ba, begira, astelehenean joan nahi genuke, goizeko hamaika eta erdietan.  
Museoa ikusteko txanda hartu nahi nuke, martxoaren 2rako 28 hurrekin.  
Hobe etorriko litzaiguke asteartean lehen orduan, zeren ...  
Ezin liteke bisita bi egunez atzeratu?  
Barkatu, baina arazo txiki bat sortu zaigu eta ezin izango dugu egun horretan joan ...

## **NOZIOAK**

Denboraren antolamendua: datak, orduak...  
Udalaren kultur / kirol zerbitzuei dagozkienak

<p><b>V. Ikasketaria ↔ Eskolaz kanpoko solaskidea</b> 2. Liburutegiak, argitaletxeak...</p>
---

## **HIZKUNTZ FUNTZIOAK**

### **1. Informazioa eskatu, bertan zein telefonoz**

Badaukazue ezer ...-ari buruz / -rako?  
Eta zer dago 3. kurtsorako?  
Badaukazue iaz atera zen liburu hori?  
Zer argitaratu da aurten Eskolaurreako?  
Zenbat balio du bilduma osoak?  
Epeka ere ordain daiteke / liteke?  
Postaz bidal diezadakezue?

### **2. Material-eskariak egin, bertan zein telefonoz**

Bidaliezadazue, mesedez, ...  
Noizko bidaliko diguzue?  
Katalogoa ere bidaliko didazu?  
Natur Zientziak 2.erako, 28 ale. Apuntatu duzu?  
Banatzaileari ordainduko diot orduan, ezta?

### **3. Erreklamazioak egin, bertan zein telefonoz**

Begira, ... eskatu genuen eta oraindik ez da heldu. Hiru aste dira eskatu genuela.  
Badakizu ezer horretaz?  
Aste honetan heltzen ez bada, bueltatu egingo dizuegu guztia  
20 ale eskatu genituen eta 15 baino ez zaizkigu heldu. Beraz, 5 falta dira eta ordainduta daude  
Ale batzuei orriak falta zaizkie...

## **NOZIOAK**

Denboraren antolamendua (datak, denbora tarteak, maiztasuna,...)  
Zenbakiak  
Eskolako materialari dagozkionak.



### **3. ERASKINA: KOMUNIKAZIO ETA INFORMAZIO FUNTZIOAK**

#### **1. Hizketan hasi**

Aspaldiko!

Kaixo, zer moduz?

Hau hotza!/ Hau beroa!/ A ze eguraldia!

Esan liteke euria dakarrela, ezta?

Ba.../ Bada.../ Zera...

Badakizu ...?/ Bazenekien ...?

Ikusi duzu ...?/ Irakurri zenuen ...

Aizu!

Zer dakizu ...-z

Zer da ... edo kontu hori?

Gaurko gaia ... da

Gaurko gaia honako/ondoko hau da, ...

... gaitzat harturik zerbait/zenbait ideia/pare bat gauza esan nahi nuke.

Gustatuko litzaidake ...-z hitz egitea.

Gai-ordenaren arabera lehenengo puntua ... da.

#### **2. Hizketan amaitu**

Kitto.

Listo.

Besterik?/ Besterik ez.

Nahikoa, ezta?

Gaurkoagatik nahikoa egin dugu.

Mundua konpondu dugu.

Amaitzeko...

Laburbilduz, ...

Eskerrik asko zuen arretagatik.

Ondo esanak gogoan hartu eta gaizki esanak barkatu.

Eta hau hala bazan sar dadila kalabazan eta ager dadila Derioko plazan.

#### **3. Pentsatzeko tartea hartu**

Zera..., ba...

Ba.../ Bada...

Nola esaten da?..

Egon pixka batean...

Utzi pentsatzen...

Ia..., nola esan.../ nola adierazi...

la ondo esaten/ azaltzen dudan...  
Nola esango nizuke..., alegia.../ zera...  
Egon, pixka bat nahastuta nago.  
Zer esan behar nuen?  
Galdu egin naiz...

#### 4. Gaiz aldatu

Ah! Beste gauza bat...  
Orain etorri zait burura ...  
Ez dakizu besterik esaten?  
Ezin duzu beste zerbaitetaz hitz egin?  
Eta (gai/ kontu) hori utziko bagenu?  
Horrek gogorarazi dit beste kontu hau ...  
Eta lehengoan gertatu zitzaidan beste hau: ...  
Horrek ... ekarri dit burura.  
Beste zerbaitetara pasatuz, ...  
Hurrengo puntua/ gaia ... da  
Barkatu moztea, baina ...  
Horretaz nahikoa hitz egin dugu, eta gainera erabakita dago.  
Oraingo hau utzita, ...  
Utz dezagun ...  
Eta hori utziko/ ahaztuko bagenu?

#### 5. Norbaiten jarduna eten

Barkatu, ...  
Aizu!/ eh! ...  
Nahikoa!  
Ixil zaitez!  
Ederto, entzun dizut!  
Nahikoa da, ezta?  
Kokoteraino/ Aspertuta nago!  
Ez dut gehiago entzun nahi!  
Ixilduko zara!?  
Barkatu berriz moztea, baina ...  
Gauza bat esan nezake?  
Utziko didazu labur-labur gauzatxo bat esaten?  
Egon, egon pixka batean, ...  
Horrekin segitu baino lehen, ...  
Ohar txiki bat horretaz: ...  
Zure baimenaz nik zera esan nahi nuke ...

#### 6. Informazioa laburbildu

Hitz/ Berba gutxitan ...  
Labur esanda ...  
Hitz/ Berba batean esateko ...  
Pare bat hitzetan/ berbatan ...  
Laburbilduz, ...  
Laburturik, ...  
Beraz/ Ondorioz/ Orduan ...  
Esan dudanaren lerro nagusiak ...  
Azaldu dudanaren punturik behinenak ...  
Jorratutako ideia garrantzitsuenak ...  
Oinarrizko kontzeptuak ondoko hauek dira: ...  
Mamia/ funtsa  
Azken batean/ funtsean/ finean  
Laburpen bat eginez/ egiteko, zera esango nuke ...

#### 7. Norbaiti errepikatzeko eskatu

Eh?/ Zer?/ Nola?  
Zer esan duzu?

Errepikatuko duzu, mesedez?  
 Esan berriz.  
 Norekin/ Nora/ (edozein galdetzaile) doala?  
 Zer dela?  
 Ea ekarri dudan zer?  
 Ez dut ondo hartu/ entzun/ ulertu  
 Barkatu, berriz esan zenezake azken hori?  
 Inportako litzaizuke errepikatzea/ berriz esatea?  
 Adibide bat ipini/ eskema bat egin zenezake?

### 8. Esandakoa beste era batera errepikatu

Hau da / hots / alegia ...  
 Edo, beste era batera esanda, ...  
 Beste hitz batzuetan ...  
 Modu errazago batean ...  
 Edo era/ modu argiagoan esanda, ...  
 Horrekin zera/ ondoko hau esan nahi dut/ nuen, ...  
 Esan nahi dudana zera/ hauxe/ honako hau da: ...  
 Ea beste era honetara/ beste hitz hauekin hobeto ulertzen duzun/ didazun.  
 Nola esango nuke hobeto ulertzeko?

### 9. Adibide bat jarri

Esate baterako/ Adibidez...  
 Eman dezagun...  
 Jo dezagun...  
 Pentsa dezagun...  
 Adibidetzat/ Adibide moduan ... har dezakegu/ genezake  
 Kasu bat baino ez aipatzeagatik

### 10. Zerbaiten aipamena egin

...-ri dagokionez/ dagokionean...  
 ... dela/ direla eta ...  
 ...-z hitz eginez  
 Ezin aipatu gabe utzi...  
 Ez dut amaitu nahi ...-ri aipamena egin gabe  
 ... aipatu beharra dago  
 ... aipatu beharrekoa iruditzen zait  
 ...-ren aipamena egin

### 11. Zerbaiti garrantzia eman

Hau oso/gutziz garrantzitsua da  
 ... inportantzia handiko kontua da  
 ...-k izugarrizko garrantzia dauka  
 Azpimarratu nahi nuke/ behar litzateke  
 Adi egon!  
 ... hain zuzen ere  
 Nik azpimarratuko nuke

### 12. Zerbaiti garrantzia kendu

Ez da ezer  
 Ez du merezi  
 Ez da garrantzizkoa  
 Berdin dio; Iguale da  
 Ez da horrenbestera izango!-Hori baino ez bada!  
 Ez da aparteko ezer  
 Betiko kontua da  
 Ohi den bezala/ Betiko moduan ...  
 Hori da dena?  
 Eta horretarako (bakarrik) horrenbeste zarata?

**13. Norberak ondo ulertu duela egiaztatu**

... ezta? ; ... bai?  
Orduan, ...; Beraz, ...  
Zuk zera esan nahi duzu: ...  
Oker ez banago zuk ...-ela esan nahi duzu  
Ea ondo ulertzen/ ulertu dudan: ...  
Zuk esan nahi duzuna hau da: ..., ezta?  
Zuzen ulertu badut, ...; ala ez?

**14. Besteak ondo ulertu duela egiaztatu**

Bai?  
Konforme?  
Ulertzen da/ duzu/ didazu?  
Ikusten da?  
Bai ala ez?  
Hau nahastea, ezta?  
Ez dakit ulertzen den/ didazun/ zaidan/ duzun  
Konturatzen zara?  
Argi dago/ geratu da?  
Hartu/ Konprenitu/ Jaso/ ikusten duzu?  
Ez dakit ez ote ditudan gauzak lehen baino ilunago/ nahasiago utzi  
Ez dakit ondo azaldu dudan  
Aurrera egin/ segitu/ jarrai dezakegu?

**15. Telefonoz hizketan aritu**

(ikus 2. Eraskina, Ikasketaria ↔ Gurasoak)

**16. Informazioa eskatu**

Esadazu, mesedez... / Esan diezadakezu.....?  
... jakin nahi nuke...  
Badakizu ezer ...-z? / Zer entzun duzu ...-z?  
...-ren berririk badaukazu?

**17. Norbaiti zerbait dakien galdetu**

Ba (al) dakizu (...)  
Zer dakizu ...-z  
Ba (al) dakizu ezer ...-z

**18. Norbera jakinaren gainean dagoela adierazi**

Bai, badakit  
Bai, badakit ...-ela  
Bai, entzunda daukat  
Horixe da esan didatena  
Horrelako zerbait entzun dut  
Jakinaren gainean nago  
Ez nau ustekabeen harrapatzen  
Iturri onetik dakit  
...-ela jakinarazi/ohartarazi didate

**19. Norbaitek esandakoaren berri eman**

...-ela dio  
...-ela esan du/ dit/ zidan  
...-ela uste du  
... ote den kontua  
Bere iritziz ...  
... omen ...  
Zera esan dit: ...  
Honako hau esan zuen: ...

**20. Galdetutakoari erantzuten ez jakin**

Ez dakit.  
 Sentitzen dut, baina ez dakit.  
 Ideiarik ere ez!  
 Nik baneki!  
 Aitortu behar dut ezer ere ez dakidala horri buruz.  
 Ez daukat gai horri buruzko informaziorik  
 Ez dakit horren berri  
 Momentuz/ Oraingoz ezin dizut erantzun  
 Hori ezta galdetu ere!

**21. Zer gertatu den galdetu**

Zer gertatu/ jazo/ pasa da?  
 Zer izan da hori?  
 Nola gertatu/ jazo zen?  
 Nobedaderik?  
 Ezbeharren bat gertatu da?  
 ...-ren berri emango didazu?

**22. Norbaiti zer gertatzen zaion galdetu**

Zer gertatzen/pasatzen zaizu?  
 Ondo zaude?  
 Zer moduz zaude?  
 Ondo/ Txarto/ Nola sentitzen zara?  
 Kezkatuta/ beldurtuta/ Ondoezik/ ... zaude?  
 Zerk kezkatzen/ beldurtzen/ ... zaitu?  
 ... zaude, ezta?  
 Esan liteke ... zaudela/ zabiltzala.

**23. Jakinmina adierazi**

Bai?  
 Ah bai?  
 Benetan/ Egitan?  
 Ez da izango...  
 Konta ..., konta!  
 Esan ba!  
 Esan, behin bada ere!  
 Irrikitan nago (...) jakiteko.  
 Jakinmin handia sentitzen dut.  
 Edozer emango nuke ... jakiteagatik.

**24. Norbaiti zerbait gogorarazi**

Ez ahaztu/gogoan izan hori, mesedez!  
 Gogoratzen zara...? / Gogoratzen zara ....., ezta?  
 Gogoratzen bazara ..., mesedez, ekar ezazu bihar  
 Ez zenuen ahaztuko ..., ezta?

**25. Norbaiti zerbait gogoratzen duen galdetu**

Gogoratzen zara/duzu nola/zer ...?  
 ... ; gogoratzen zara, ezta?  
 Eta ez zara gogoratzen nola...?  
 Bai, ba; gogoan izan behar duzu....

**26. Zerbait gogora ekarri**

Gogoratzen dut ...  
 ...-z/ -rekin gogoratzen naiz  
 Gogoan daukat ...  
 Gogo-gogoan daukat, orain balitz bezala  
 Beti edukiko dut gogoan

Ez zait inoiz ahaztuko  
Horrelako zerbait gogoratzen dut  
Oraintxe etorri zait burura!  
Oker ez banago/ ez banabil, ...  
Gogoratzen dudanagatik, ...  
Entzunda daukat.  
...-z/ -ren oroitzapen onak dauzkat

**27. Norbaitek zerbait ahaztu duela adierazi**

Ez naiz gogoratzen...  
Barkatu, baina erabat ahaztuta daukat...  
Ezin dut ongi gogoratu...  
Ideiarik ez daukat!  
Ez dut gogoratu ere egin nahi...  
Bai... mihi-puntan daukat...

# EUSKARA ZERBITZUAREN ARGITALPENAK

## Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

### 1. GLOTODIDAKTIKA LANAK

#### a) Hizkuntzen irakaskuntzaren inguruko gaiak

- **Hizkuntzen Irakaskuntza: Topikoak eta Metodologiak.** *N. Gardner* (1).
- **Hizkuntzen Irakaskuntza: Gramatika Ariketak.** *J.A. Mujika* (2).
- **Hizkuntzen Irakaskuntza: Mailaketa Gramatikala.** *I. Olaziregi* (3).
- **Hizkuntzen Irakaskuntza: Zenbait Artikulu** (5).
- **Hizkuntz Jolasak.** *M. Sainz - I. Olaziregi* (15).
- **Trebatzen. OHOkoko Goiko Ziklorako Hizkuntz Ariketak.** *M. Sainz* (23).
- **Euskalkiz Euskalki.** *R.M. Pagola* (19).
- **Euskararen Oinarrizko Hiztegia. Maiztasun eta Prestasun Azterketa.** *J.M. Etxebarria - J.A. Mujika* (31).
- **Oinarrizko Hitzak. Euskarazko Hitz Erabilgarrienak.** *I. Olaziregi* (34).

#### b) Bideo-gidoiak/ Txotxongiloak/ Musika

- **Haurrak Euskalduntzen Giñolaren Bidez I.** *I.M. de Lezea - Kukubiltxo* (6).
- **Haurrak Euskalduntzen Giñolaren Bidez II.** *I.M. de Lezea* (9).
- **Ipuin Zahar eta Berriak.** *L. Iriondo* (10).
- **Jolasean.** *I. Urbietta* (11).
- **Amonaren Ipuinak.** *E. Genua* (12).
- **Ipuin Gehiago.** *A. Lertxundi - J. Lucas - Keinu - Maskarada* (13).
- **Eskolarako Ipuinak eta Txotxongiloak.** *I.M. de Lezea* (14).
- **Kontu Kontari.** *L. Iriondo* (20).
- **Musika Hezkuntza Eskolaurrean.** *I. Urbietta* (21).

#### c) Gaitasun-agiriak

- **Euskararen Gaitasun Agiria. Programa.** (7).
- **Euskaltzaindiak Batasunerako Eskaini dituen Erabakiak** (8).
- **EGA. 1993-94ko Azterketak** (43).
- **Irakasleen Hizkuntz Eskakizunak. 1995eko Azterketak** (44).
- **Irakasleen prestakuntza: HE1 erako curriculumak , 1., 2. eta 3. atalak** (45).

#### d) Ebaluazioak eta hizkuntz testak

- **EIFE 1. Euskararen Irakaskuntza: Faktoreen Eragina.** *J. Gabiña - R. Gorostidi - R. Iruretagoiena - I. Olaziregi - J. Sierra.*
- **EIFE 2. Euskararen Irakaskuntza: Faktoreen Eragina.** *J. Sierra - I. Olaziregi* (33).
- **EIFE 3. Euskararen Irakaskuntza: Faktoreen Eragina.** *J. Sierra - I. Olaziregi* (36).
- **HINE. Hizkuntza Idatziaren Neurketa Eskolan.** *J. Sierra - I. Olaziregi* (38).
- **Galbahe E1 Hizkuntz Testa** (B eta D ereduetako OHOkoko 2. mailarako). *I. Olaziregi - J. Sierra* (26).
- **Galbahe E2 Hizkuntz Testa** (B eta D ereduetako OHOkoko 5. mailarako). *I. Olaziregi - J. Sierra* (25).
- **Galbahe C1 y C2. Tests de Lengua** (gaztelaniazko testak OHOkoko 2. eta 5. mailarako) *J. Sierra - I. Olaziregi* (27).
- **Zortzi-A Hizkuntz Testa** (A ereduko OHOkoko 8. mailarako). *I. Olaziregi - J. Sierra* (28).
- **Pir-5 Hizkuntz Testa** (B eta D ereduetako eskolaurre-amaierarako). *I. Olaziregi - J. Sierra.* (30).

- **Euskara Probak. Irakurmena eta Idazmena** (OHoko 8. mailarako). *I. Olaziregi - J. Sierra* (37).
- **Pruebas de Lengua. Comprensión Lectora y Expresión Escrita** (8.º de EGB). *J. Sierra - I. Olaziregi* (39).

## 2. HIZKUNTZ PRESTAKUNTZA

- **Bizkaieraren Idatzizko arauak. Deklinabidea eta Aditza**. *A. Arejita - J.M. Irazola J. Uriarte* (1).
- **Euskal Aditza: Bizkaiera eta Batua**. *J.M. Irazola* (2).
- **Bizkaierazko Joskera**. *A. Arejita - J.M. Etxebarria - J.M. Irazola - J. Uriarte* (4).
- **Hezkuntza Administrazioako Hiztegia**. *I. Olaziregi - J.M. Berasategi - M. Zalbide* (5).

## 3. ZABALKUNDE LANAK

### a) *Euskal Ikasmaterialgintza (EIMA programa)*

- **Idatzizko Ikasmaterialen Bilduma 1994**. *B. Basterretxea - I. Olabarria - M. Zalbide* (38).
- **Ikus-entzunezko Ikasmaterialen Bilduma 1994**. *P. Mendizabal - I. Olabarria - M. Zalbide* (39).
- **Hezkuntza-softwarearen Bilduma 1996**. *P. Mendizabal - I. Olabarria - M. Zalbide* (44).

### b) *Irakaslegoaren Alfabetatze-Euskalduntzea (IRALE programa)*

- **IRALE. 1995-96ko Aurkezpen Txostena**

### c) *Normalizazio legearen garapena (NOLEGA programa)*

- **Euskal Girotze Egonaldietarako Eskuliburua**. *Askoren artean* (16).
- **Eskola-Antzerkia 1**. *I. Artola - J.M. Berasategi* (18).
- **Eskola Antzerkia 2**. *I. Artola - J.M. Berasategi* (30).
- **Eskola Antzerkia 3**. *I. Artola - J.M. Berasategi* (31).
- **Eskola Antzerkia 4**. *I. Artola - J.M. Berasategi* (40).
- **Eskola Antzerkia 5**. *I. Artola - J.M. Berasategi* (42).
- **Eskola Hiztun Bila**. *B. Basterretxea etab.* (28).
- **Sagastiberri. Urruzuno literatur lehiaketa** (1986tik 1996ra).
- **Goazen Barnetegira** (Bideoa).
- **Euskal Girotze Barnetegiak** (Bideoa).
- **Euskal Girotze Barnetegiak**. *Askoren artean* (34).
- **Ikastetxeen Errotulazioa**. *C. Lobo - I. Artola - J.M. Berasategi* (37).

### d) *Bestelakoak*

- **Euskal Irakaskuntza: 10 Urte**. *M. Zalbide etab.* (24).


**Oharra:** Parentesi artean jasotzen da liburu bakoitzak kasuan kasuko sortan duen zenbakia.











Irakasleen euskalduntzea EK15020242